

A. Zubikarai

**BALE
DENBORAK**



Augustin Zubikat

AUGUSTIN ZUBIKAT

Agustín Zubikarai

Bale Denborak



LEOPOLDO ZUGAZA, EDITOR
DURANGO



BIZKAIKO AURREZKI KUTXA'ren
Kultur Ekintzaren laguntzaz

1.598 urtearen inguruan
Laburdiko bale arrantzale artean
ibiltzen zan
JOANNES ZURICARAI,
itxas maixua gogoratzen,
eta geroago,
1.694'n,
bere azurrak
Terranoba'ko San Joan'go iltokian,
betiko bakearen zai,
gorde eutsezan
«Cy Gis JOVANES SUIGARAI chipi»
itxas kapitanaren oroitzex,

Ondarroa'n,
XX garren gizaldiaren azken zatian,
itxasoa estutu
ta itxas bizitza garrastu danean,
lenakoen bale-arrantza
ta kale bizitzako atalak
aizetu nairik.

Egilleak.

Ondarroa'ko eleiz nagusiak inguru jaso eta aizetsua dauka.

Mendiz bera etorran erri zarra lengo denporetan. Goiko kalean bera.

Kale onen ertzean, mendiaren berezko berakadan, mendiaren gibela eta itxasondoko ondarraren maia bardinduz, alderdi baten zimenduak itxas uretan artu eta mendiaren egal zindoan indartu ta eutsi eragiñez, jentillen denporetako lana dirudi eleiza orrek.

Inguru guztian arlanduzko ormak, balkoe luze baten antzera. Itxas laiño ta aize meiak artzeko tokia iparraldean. Aurrean, ain zuzen, erria erri danetik, Ipar-kalea.

Eguzki begirako atsedean toki argia egoaldean; kerizpe ta aize izerditsuen bidea sortaldean.

Ondarrutarrak izen berezi bat emoten dautse eleiz inguru oneri: korretak. Korreta zarra, Oiz eta Kalamua'n batutako urak ementxe itxasora sartzen ditun Artibai ibaiaren gañean. Korreta barria, itxas ikuspegirakoa, pelota tokiaren ezker ormaren goi ertzagaz bat eginda dagon alderdia.

Sarkaldean, aurrez-aurre ta luze, Likonatarren torre barriraño duan kalea: Kale andia. Egalean, Kantale.

Beietan erriberak, arrabal txikiñiak, karkabak, urondoak, itxasoari irabazi diran basatzak, nasa, kaia, ondartzeta...

Eleizak, goian, tellatu inguruen gain zabala dotoretzen, «kortzela». Ondar arrizko baranda, eskudela.

Tartetan eleiz au egin eben argiñen aal eta trebetasuna goratu nairik, gizon irudiak. Eleizea egin ebenean bertako ertilariak an laga zituen arte baten ezaugarri. Ondarroa'ko bizilagunak sekula ez eben iruntsi euren egoera geldirik. Origaitik, bertakoentzat, mamuak dira, «kortzeleko mamuak».

Inguruko orma landuak, karearrizko dira geienak, baiña korreta zarrean ondar arria erabili eben. Emengo eskudel gaiñean, soñak okertuta, bularrak arri gaiñean etzanda, erreka inguruko txalopei eta erri guztira begira ordu luzeak igaroten dakiez, egualdiaren giroan, erriko neketu ta zarrak: Agurak.

Aguren inguruan

Etxeetako orma, kaletako arzabal eta kantoitako egalak koskaz beteta daukez erri onetan. Bardin korretako arlanduak. Aizto eta erraminta zorrotzen egalak labantzen. Al dan eran arria busti ta zorrozgarria bertan erabilten arri batzuk arkotuta dagoz. Origaitik orma orretan gaitz izaten da sarri egoera eratsu bat billatzea. Alaz eta be an billatzen dira, edo ta zubizar inguruko jarrilekoetan, itxasora urteteko neketsu eta gogor sentiduten diranak, edo ta sagardotegietan basotxu bat edateko sus bat ez daukenak.

Esku lodi, atzamar arte etenak, bizi guztian erramutan baba lodi baltz, sikuz beteak.

Anton, Millan, Batis, Diopil... or dagoz ia egunaren ordu argietan.

Ez dakie alkarri zer esan, zer kontatu be, eguneroko egoera aspergarri orretan.

Begi erreak daukez. Kresalez eta etxetako ke lurrunen indarrez malkoz busti-busti egindako begi gorriak. Arrain askoren sakatsak baiño gorriago agertzen dira euren betazal urtenak.

Gaztain orri igar zetuak erreten dakiez tabaku orde. Zapi zatar urdintsutan, kolkoan gordetako zapi txaplatetan, alkondaren bateri tarratadaka kendutako zapi illunen baten batzen dabe errekin ori.

Tximur sakonak arpegietan. Iñoiz egualdi garratze-tan etendako azalaren agergarri.

Urreratu nadin.

Anton'ek ez dauka andrarik.

—Onek bale urtea euki nai izaten eban sarri ta..., urten dautsa akulari Batis'eri.

Bale urtea? Zer da ori?

—Betetasunez aurrera etozan andrak alkarregaz batu ta ikusten zituenian emengo mutillak esaten ekien esakera da ori: Ori, aurten bale urtea izango da, esaten ekien. Eta onen emaztia katu-emiak baiño sarriago loditzen zan lez...

—Nire semiak aitaren abizena daroe gero!, zital Batis'ek.

—Nok esan dau besterik?

—Eta nireak ez ala?

—Alkar ez berotu beintzat, lenengo berbatik.

—Ori esateko ba dakizu zeuk ze abizen daukazun?

—Dana dala, ni ezkondu nitzanean bikarioak ba ekian zer neukan, gero semiak jaio izan diranetan be, bera konpondu zan tokaten yakena paperetan ipinten eta or konpon.

Asarre barik, alaxe erantzun eutsan Batis'ek Diopil'en zirikadeari. Millan'ek, irri-barre sornatsuz, beriala bete-betea agertu eban onoko au:

—Abizena ez jakiteak aberatsentzat euki lei orrek kalte edo akikuloen bat. Baiña eta izenak?

Laster artu eban ordago au Diopil'ek. Eta zitalki erantzun be bai:

—Ni neu sekula ezagutu nazu neureagaz asarre?

Egia esan daigun. Diopil berberak ez ekian bere izen jatorrik.

Bein, bataiatzera eroan ebenian, etxean ez ekien zer izen ipini. Amaikagarren umea zan bera. Ez ekien uzkar umea izango zan be. Bikarioak ezarri nai eutsana ipintekotan atara eben etxetik. Aita besoetako edo albotikorik бага. Eleizpean, eleiz atetan gertatzen zanak zeregin eta ardura ori betetekotan, sarri oituten zan eran.

Bikarioak Telesforo ipini eutsan, eguneko epaktan izen ori aitutzen zalako.

Opil eguna zan egun aretan ain zuzen be, eleizan ofrenda edo eskintza eran opilla eskintzeko eguna.

Aita besoetakoa ez zan konturatu ezarri eutsen ize-nagaz. Ez eban ainbeste arretarik euki. Antxe bertan amaitu eban bere zeregina. Izeko batek biurtu eban umea etxera, eleizara eroandako era eta bidetik.

Etxean izenagaitik itandu eutsenean, berak fede onez erantzun: Ez dakit ziur zer esan be. Orain beintzat

deitu bearrik ez dau eukiko eta bitartean bikarioa kon-
turatuko da. Bat esateko ez dakit Diopil izan ez ete
dan be.

Orrela Telesforo Teofilo'n antzeko zalako, Diopil
errezago sartu yakon berari. Alaxe deitzen asi yakozan,
ez aztuteko be.

Errian, Okendo almirantearen gerra-itxasontzieta-
rako gizon eskabidea egon zanean, erriko kontsejukoak
sosean sartu zituezan bataiotako liburuetan adin orretako
gai ziran iru-urtetako mutil guztiak, bizi edo illak ete
ziran konturatu barik .Orrela zortzi aukeratu zituen.
Eta Telesforo Basterrolatza'k be suertean urten eban.
Iñok ez ekian nor zan eta ildakoen bat izango zalakoan
bazterrean laga eben, bizi ziran erriko mutillen kontu-
ratze bat, erreparu bat egitean.

Diopil berak ez ekian bera zanik. Berari, etxean,
Diopil deitzen eutsen eta kalean, askok, Kantale'ko Dio.

Egia esateko, iñoiz egon zan erritarren artean zu-
rrumuroen bat izen orreri buruz. Ba ekien batzuk Dio-
pil ez zana, baiña geiagoko barik.

Azalak ezagutzen

Diopil da lau gizonetatik berbaldunena. Lodi ta
gizenena be bai.

Kolorea galdutako txamarra urratua dauka soñean.
Merkatarien bateri trukatu ei eutsan bein, eta eguna-
ren ordu guztietan, itxasora joateari laga eutsanetik,
aldian darabil beti.

Praka zarrak. Urdiñak? Txaplata bakoitzak ba di-

rudi bere bizitzako eten edo indarren bat agertzen da-bela. Emaztea izan zanaren orduak ordaintzekotan, prakak barri ugari egin eikezan, euren ordezt. Belaun gainetan, atzean, gerri inguruan, mokor ondoetan... non ez daukez txaplatak, tarratadak edo urratuak estaldu edo ta bigunkeriak gogortzen?

Gerrian, praketatik kanpora, franela gorritzko barruko galtzak igarten yakoz. Irurogei ta amar urte ingurura eltzen asi zanean, umoreak okertzen asi eben Diopil. Sagardau ordezt, leizar eta areitz orriak egosi eta euren ura artzen asi zan, ona zala-ta. Igarri ere ez ontasunik.

Bein, Asterrika'ko baserritar batek esan eutsan, orretarako gauza obeagorik ez egoala, pago ondoetan, sustrai artean, nekez billatu eikean ostro lodi baiña bigun baten mamiña egosi eta bera patrikaran erabiltea baiño. Ez eban ukatzen, baiña tintia jaurtiten eutsala ta kendu egin eban.

Umoreak itxasora joanda kentzen zirala esan eutsan bere andrea zanak, ain zuzen be ordurarte itxasoan ibili ta okertzen eta gogortzen etorralako etxean gelditu eragin eutsenetik laster.

Bein, kalean, dendari bat il zanean, erropa ondakin batzuk zabaldu zituen bere etxeoak. Gixajoa umorezt jota ibilten zan a be. Azken denporetan, txisik egin ezinda, arto bizarren ura artzen eta puxika gainean enplastuak ipinten eutsezala bizi zan. Iñoiz jakin eban Diopil'ek franelazko barruko galtza gorriak eukazala, eta umoreak kentzeko berebizikoak zirala. Bere etxetik, garbitzen eutsezan egunetan, karkaban ikusten zitun dindilizka, aizetara atarata. A il zanean, prakak arein mandatua egin eutsan dendariaren alabari. Eta emon eutsezan. Erdi janda eta kolorea be erdi galduta, enplastuak gertaten ziran parean; alaz eta be beretzat ondo jausi ziran.

Lenengotan emazteak gogor egiten eutsan, franela orrek asgurea emoten eutsala berari eta besterik ezean, lotarakoan kentzeko-ta. Baiña oitu zan eta Diopil'ek bere gaixoa berotan biguntzen igarri ebala iñoan. Origaitik ia garbitzeko be ez zitun kendu nai izaten.

Oiñetakotzat, galtzerdi barik, olezko trasku eten eta meetu batzuk. Buruan txapel antzeko lanazko baltza. On Simon abadea il zanean emona.

Ara or Diopil, azalez. Larogetak urtetako buru ta pentsakeren ondasunak bere nortasunean.

«Kristo txikia»

Beste orrelako zerbait esan geinke Millan'eri begira. Mutilzarra. Sekula ez ei eban asti ta tarterik artu neskantil bateri gerorako asmoz begiratzeko. Nai eta bere amak esaten jakin, zaldarrik ez eutsala atzean ur-tengo etxean jarrita egonda.

Igar eta estu. Tolete bat baiño tenteago gaztetan. Gero perlesiak jo eta mirrin. Origaitik besteak baiño lenago laga eutsan itxasora joateri. Luzaro, txalupak arrantzatik noiz etozan zaindu, nasa ondora urreratu eta areik emoten eutsen arraiñagaz bizi zan. Zorrotza zalako «akula baltza» deitzen asi yakozan eta izen ori deitu ta ezarten eutsen aldi baten. Geroago «Kristo txikia» zabalago geratu yakon. Ba eukan deitura orrek bere gatza.

Bein, bera ebillan txalupak tira-bira egin eban. Bost lagun ebiltzan bertan. Aingira naian iñarduen

illuntze baten Idurre azpian. Erritik urten eben txalupak, talaxeruak deituta, eta euren biziaren arriskuz be, al zan bestean aitzetara urreratu ta billatu zituen lauren gorpuak. Bera, aga bateri elduta, korrenten baten indarrez, besteakandik urrundu egin zan eta ez eben jaso. Zelan ez dakiala, aitzarte baten jaurtita lez aurkitu eban bere gorputza goizaldean. Tatarrez al ebana egin, baiña ezin gorago eldu.

Urteerarik ez eukan andik, iñok lagundu ezik. Lararak eta iñarrak aurreko mendi berakadan, eta egaletan, aitz andiak. Ikusten zitun berak bere billa joandako erritarrak, baiña bere abotsa galdu egiten zan sokondo aretan eta billatzalleak be ez eben pentsatu an egon zeinkeanik. Eta barrero gaua jausi zan. Egualdi epela gertatu eta otzak ez eban kikildu, baiña goseak eten eta burua zorabiatzen igarri eban.

Konorta erdi galduta eukan, bere inguruan norbait igarri ebanean burutik eldu eta espanak bustiten. Gaueko arrantzara eioan baserritar bat zan. Berak eroiazan kafesne eta aguardiente katalanagaz gizona esnatzea lortu eban. Bere jantziak gaiñean ipini ta berotzea ere bai. A zan bat-bateko gertaera, a! Geldi-geldi bertan egoteko eskatu eutsan Peru'k, bera baserrira igo eta seme ta morroiagaz bere laguntzan etorri arte. Millan'ek ez eukan ba indarrrik iñorako asteko.

Andik ordu bete ingurura ekarri zitun Peru'k lau mutil lerdan. Danen artean jaso eben iñarra arteko bide-txior pendizan gora. Goian, baserrian, sukaldea bero-bero egoan eta kafe antzeko zerbait irakiten. Sartu orduko, berotzeko a lakorik ez egoala-ta, azunekin blas-tiatu eben bere azal gogorretan. Irri-barreak urten eutsan Millan'eri eta Pantxike'ri zurikeri ta zirikadak esaten asi be bai, bera lako andrerik iñoiz ezagutu izan ba leu, andre onen arraza ugariago ezagutuko zala in-

gurutetan eta abar. Goizaldea zan. Oerik onena eskiñi eutsen. Eta mutilletako bat geratu zan bere ondoan, edozer gertatuta be.

Ez eban igarri Millan'ek eguna noiz asi zan. Baiña esan eutsenean errira joango zirala an egoala adierazoten, ez eban olakorik nai, bera berera etorrira egoala ta orrenbesterako ba zala-ta. Baiña nekatuko zan bildurrez, astoa eskiñi eutsen, morroiak lagunduta bere gaiñean bidea egiteko.

Errira urreratu ala, il kanpaiak entzuten asi zan. Igarri eban zer gertatuko zan. Baserrian ez eutsen esan, erdiz erdizka eta eskutagarri zerbaít baiño.

Kaletan ez eban iñor ikusten, olakoetan gertaten dan lez, erri guztia eleizan batuta egoalako. Ama zaarrak eta gaixo banakak gelditzen dira etxetan, ume zaindari. Beste asko, umeak altsoan dituela joaten dira eleiz-kizunera.

Etxera baiño eleizara joatea naiago izan eban. An-drazkoen batek leio artetik ikusi ba eban be, iñork ez eban pentsatuko zein izan eikeanik asto gaiñean, base-rritar jantziz etorralako.

Eleiz ingurura eldu zanean, asto gaiñetik salto egin eta ittotasunez estu, atera urreratu zan. Atea zabaldu eta ango baltzitasun eta itzaltasuna igarri eta ikusi orduko, zer esaten eban be ez ekiala, bera bakarrik zalakoan ittotzat eukena eta bere illeta egiten iñarduelakoan, zaratatsu didarka asi zan: Bizi naz! Bizi naz!

Ori entzun eta ango min, naigabe ta ondamen-diaren zotiñean be, norbaitek euki eban barru-barruko urteera bat eta «ene, an bera Kristo txikia» esan eban, eleizan egozan guztiak entzuteko eran. Ordutik, lengo «akula baltza» galdu ta deitura barri ori geratu yakon.

Andik urte batzutara gaixotu zalako, nok zaindu ez eukalako, mutilzarra zalako, urte bitik bein blusa andi bat emoten eutsen laguntza etxe edo asilutik. Aretxegaz ibilten zan uda eta negu. Ez bera be duban, Eleizan organoa jo bearra gertatzen zan egunetan, auspoari eragitera joan bear izaten eban jantzi orren truke. Jai nai asteun.

«Padarra»

Batis'eri, errian, «Padarra» deitzen eutsen.

Padarraneko familiak ia ermitak aiña ezagutzen ziran lengo denporetan.

Batis'en aitita Olatz inguruko ermitan jaio zan. Obeto esanda, inguruko baserri baten, eta beste ermita bateko seroreak ekarri ei eban parrokira bataiatzera. Norena ete zan be barik. Bataiatzeak arduratu eta kezkatuten zitun orduko fededunak, gaiñerakoa, odolaren berotasun eta ondorenak eta pikareska, gizonkeritzat lagata.

Eleiz liburu batzutatik zenbait parrokoen arduragabetasuna igarten da. Ezin leikie danak agirietan ipini be «Mutriku aldeko seroreak ekarria da ume au, beste garbitasuna barik» eta kittu. Edo ta «jakin nairik sakon alenginduarren, ez neban aitatasunik jakiterik lortu». Olakoetan, jakiña, Eskutasolo edo Larrekkoa edo santusanten baten deitura geituta. Ba dagoz ainbat antzerako agiri lengo liburuetan.

Orduko parrokoa ez egoan lendik eukezan baiño seme bortitz geiago santuei ezartekotan.

Origaitik, kontzientzian estututa be, atara eragin nai izan eutsan serore eroantzaleari noren semea edo nungo umea ete zan. Parrokoa bera be ikaratu eta zurbilduta geratu zan eta inguru guzti areitako gizonekin gogoratzen, berak birjiñatzat eukan Olatz'eko seroreari, loditasunik be iñok igarri ez eutsan neska txatxar areri, nok ikutu ete egion-ka.

Dana dala, umea bataiatzera eroan eban arek, erdi irri ta erdi zital, errepika lez erantzuten eban: noren umea dan? Sorginkeriz sabela bete eutsen neskatil batena.

Sorginkeriz zeuok beteko nazue ni, danok eleizpetako bizilekutatik tatarrez jaurtiten ez ba zaituet, jardetsiten eutsan parrokoak, asarre, txotxinkerietan sinistuten ez daben abadeak aotan ipinteko baiño ez zarielako.

Seroreak, lenago be amarrenak eta asikiñak eta ermitetako eskintza eta limosnak zirala-ta, beste parrokoekin be asarraldiak euki zitun arek, ez eban origaitik beretik urteten. Nasai eta ausardiz erantzun be bai, iñoiz zugatzak berez etorten ba dira, aizeak erabilitako azi-miñetatik, edo ta elorriak loratu, neska bat zegaitik ez ete eikean izadiaren ikutuz edo samurrez bete ta andratu.

Gogo barik bataiatu eban umea. Ez egiteko asko falta barik.

Batis'en aitita zan.

Besteak ori ba ekien lez, egualdiaren aldaketetan, aizea gangar ibiltan dan eran gizonak be zirikalari sentiduten diranean, brasta brasta esaten ekiezan gure arrantzale ezagunak alkarri ixil-mixilkako orrelako asko.

Eta nik, jakin nairik, Batis'eri bere nortasuna eskatutean, Diopil'ek irritsu erantzun be bai, Millan'era kiñu egiñagaz:

—Ori zeruetatik etorria da. Or goiko Santakutz mendia baiño arutzagotik edo, espiritu galduen baten bitartez.

—Esanak esan, ez ei zan iñor egon gure aitita zanari, kozkondu zanean, ingurukoen itxura edo antzik artu eutsanik.

—Ori...

—Zer? Ez ortarako alegiñik egin ez zalako, diñenez.

—Leike.

—Eta, orraitio-k-o, danak ezin esan leikie beste ainbeste. Gizonaren esneak bere itxurea ataraten dakie gero!!

—Zu zeuk ori sinistutea...

—Zegaitik ez?

—Berez ekarri dautsuz andreak zure semeak, ala?

—Izurdiaren bitsagaz, bete-betea Diopil'ek.

—Askotan ni konturatu baiño len bai beintzat.

—Ez beti itxasoan ipar baltzetan ibili izan ba ziña!

—Batsuk aiña apoñu artu izan dodaz nik.

—Ixi! Urandietan sekula ibili ziñan?

—Apoñua, diño? Artu, mendebalik be ez orrek, andrearen aize egunetan ezik.

Laugarrena geratzen da.

Betozkoz dabil.

Gizonari begietara begiratu bear ei yako.

Ez dau sartu nai izan nire jardunean. Ez igarri ez dabelako. Besteak zer esango?

Ondar arri latzean, zela ala kañubeta txiki bateri ertza ezin atara ta bardinduten dabil. Akatsez beteta ekarri dau kañubeta ori. Galtzairu oneko dirudi. Laster yoakoz lagun en eztenkadak:

—Sutarako ozpalak egiten erabilten dozu, ala?

—Zerbait esan lei. Okiña ba litz be zorretako makillei koskak egiten erabilteko.

—Atzo be itxas kabra ederrak janda dago, sapu ori, ixilik gordearren. Arein ezkatak garbitzen koskatuko eban.

—Zeuk ekarrita!

—Ni-neuk ez daukat suiñik be orretarako. Nirea jakiña da: porrusalda goizean, eguerdian azak eta...

—Aizez beteta ipurdiko galtzak.

Barre batsuk. Jaramonik ez Anton'ek. Ondar-arria zela-ala txistuagaz busti eta ekin bere kañubeta ori zorroztu edo beintzat miñña leundu nairik.

Diopil'ek, zirikatzeari jarraituz:

—Onek be eukiko dau, ba, lengo zerbait.

—Lengo zer?

—Jatorriko edo... Zu zeu berez ez ziñan etorriko, kontixu!

—Jatorririk onena, norbera. Bestiei laga ta norberagandik asi. Ni jaió nitzanean, goian zerua eta beian lurra ta kittu.

Anton'en urteera orreri Diopil'ek:

—Iño! Alako baten be kaskarra argitu yako alu oneri. Bestiok jaió giñanean goian larrosak eta beian klabeliñak egozan ala? Zer gero?

—Gero? Otz ez dana bero! Nire aitak ba dakizue zer esaten eban? Gizonak gizona billatzen dabela. Eta ortarako, ondo azi eta ondo ezi.

—Errez da ori esatea. Ori, esan, edonok be esaten dau,

—Esaten daben askok kakalekua errezuan be bai.

—Or dago!

—Brast! Eutsi orreri!

—Eta nire amak esaten eban... itxurarik euki eza-
rren, askok baiño geiago jakin be ekian arek-eta, gogo
onez beteta dagola inpernua eta guraso txarrez.

—Kontxo! Ez dabe esaten, ba, gizon lepo meiak
burua astun?

—Orreri ez lepora begiratu. Baiña pentsatu be ez
burua astun daukanik.

—Niri adarra joteko...

—Ez da ain gaitz. «Akerra»neko ez zara ba?

—Zu «Kristo txikia» zarean bestean.

—Eta akerrari adarra jo ezik, zer egin leikio, ba?

—Barrabil...

—Zatarrori!

—Mingañetik ten asko egiten ba dozue...!

Ezaupidea-luzatzen

Gure gizonak azaletik ezagutzen asi gara. Euren bostean eta lagun artean.

Ementxe, eleiz inguruan, orma gainean besuak eta bularra ipinita edo lagata, egunik geiena uretara begira egiten dabe.

Eleizeak ba eukan bere inguru onetan, orman atarata, ia orma aiñako arri luzea jezarteko. Baiña gizonak, kontu-kontari, eleizan sartu barik denpora luzea bertan emoten ebalako, edo ta eguzkiaren galdatan erdi lotan barrura sartzeko gogo barik gelditzen ziralako, bikario batek, maillu andi bat artu ta gizonen aurrean, asarre, erdi zoro, berak zatitu eta zatitu ezin ebana koskatu eban, ez jezarteko eran lagata, mailladi ori.

Fedea be alaxe sartu nai eutsen arek bere eleiztar ziran erritarrei, egin kontu erri osuari: bildurraren pixu eta maillu astunaren indarrez. Eta itxasoan ekaitzik zital eta gordiñenak baiño goitik berako irristada otzago eragiten eutsen orrelako bikario baten zaparrada eta astiñaldiak bizitzako sasoirik onenean itxasoetan etendako gure gzonei. Ziñaldari, testigu: «Kortzeleko mamuak», berba egiten bildurtuta, betirako arrizko soiñez estalduta. Denpora zarretan, gatzaren denporetan, norbaitzuk gatz biurtuten ezagutu zirean lez.

Egunero euken autuen bat. Eta egunero txikota osoan batu barik laga, autua erabagi barik laga.

Ez ba ekien be, batek edo besteak laster billatuko eban aukeraen bat, jakin eikeanari itandu edo atarateko eran. Andik edo emendik aztarrenen bat lortuko eben, nai ta erdiz erdi edo nastea sortzeko eran. Ori zan eurak bear ebena. Tretzen mokoloirik ez ei da iñoiz bear lez aritu barik geratu. Esakera ori euken. Ortarako giro ta asti faltarik ez euken.

Bertsolari naiko edo aizeduna be ba zan «Kristo txikia» Poto eta akats, or konpon. Aidean artu ta nun nai sartu. Entzun ala bertsoa buruan gorde eta aukera, orduko zart, erantzun orde.

—Lengo asteko barririk ba dakizue?

—Ointxe be egingo neuke...

—Zuk egin ezer be ez.

—Ori. Atara esan ba zendu be...

—Ta? Zer?

—Koñatua bete-beteta trintxan gora joiala...

—Len be esanda daukat nik zuri, konturatzeko eran esanda euki be, koñatuak bere kontuak atarako dituala eta nik neureak daukadazala.

—Aren erdia biziten ba zenki!

—Biztuta dabillalakuan izorratuta ez al da iñor ibilten?

—Dana dala, koñatua zer?

—Ara berau, ezer jakin nai ez dabena.

—Zerbait bearko dau andreari okotzeko bizarretan ikututen lagateko be ta...

—Txo...!

—Sekulako bertsoak atara ei dautsez.

—Oraingotan fin dabil ala?

—Aposturen bat irabazi edo?

—Nik emen esanarren, ez pentsatu ortik zear kantoirik kantoi eurak aizetzen ibilliko naizenik.

—Sinistu Kredua!

—Entzun:

Trintxa'tik gora dator gure Sebero,
ikusiaz batera, otz ez dana bero,
zenbat edan ete dau illuntze ezkeror?
Andria, zetan zagoz beraren espero!

—Andria aren zai? Nire arreba? Bear ba da gatza loratutakoan edo!

—Laga egiozu jarraitzen, asi orduko tirrika ekin barik.

Kontu kontatzen daki sagardandegixan,
eta txurruta egin lagun onen fixan,
gero lo konkor nasai eskatzeko maixan,
or konpon etxeak miserikordixan.

—Beste asko be miserikordixan obeto giñatekez gu.

—Ori egin dabena bera be... Or amaitu da?

—Amaitu?

Andria, zetan zagoz beraren espero?
Umiak lotaratu ta eurekin zeu gero;
itxasuan ei daki ibilten primero,
liorrian kakaztu eta gero zero.

—Ori esan dabena bera ez pentsa gero izango dala albako luzero!

—Kontxo, Diopil! Noiztik ain abil?

—Je! Txakurraren buztana dantzan dabil.

—Ia berau ete dan gero bertsuon egillia.

—Onegandik urre ez dago bertsolari gillia.

Jarrai.

—Bai.

Oiean sartu zaitez eta zaindu ondo,
birtutiak gorde ta prest euki ukondo...

—Iñioiz ibiliko zan a be zorongo.

—Bertsua amaitu arte ixilik egon zaite, zirikondo.

Sermioia botateko emen naz egongo,
nik beintzat parkazioik ez dauzat emongo.

Eta ixo, azkena da ta:

Eskillaretan gora ba dator Sebero,
andria zetan zagoz beraren espero?
Komedia au dogu ia egunero,
negarra egin biar gabero gabero.

—Orreik zeñenak izan leikezan igarten ez da gaitz,

—Ortarako buruari ez egin ats.

—Kontuz. Sakristiko ateko kisketa, klisk-klask.

Ez jakin zelan igarri eban Anton'ek, «Akerrak»k, korretara emoten eban eleizako ate txikitik parrokoa etorrara.

Argiaren itzalen baten? Edo ta etorri eikeanaren zai egoalako? Oitura ori eukalako, bear ba da, ordu orretan?

Zorroztuten iñarduan kañubeta txikia gorde eban bere praketako sakelean, erdi eskutuka.

Ormako arria, janda egoan ormako ondar-arria, lepoz artu, estali, bustita egoala iñok ez igarteko eran. Eleiza aldera begira jarri eta besteak konturatzeko eran, ixiltzu, «izurdak, izurdak azalean» esan eban.

—Izurdak ez, zeure zurdak, berba txarra esanda, entzun yakon bikarioari zitalki, zorrotz eta garratz, Anton'ek esandako itzari egala artuta.

Etenda laga zitun gure gizonak bikarioaren batbateko urteera onek. Iñoiz lenago ere... Mutu egozan.

Beste barik, destaintsu, korretako ormatik ibai aldera begiratu eban berak. Arro, zoli ta puts.

—Simon'ek al dau itxasora urteteko asmorik?

—Ba dakigu gertuten asia dala.

—Eta Mikolas'ek? Etxean egonda atunak arranzaten diralakoan?

—Oraindik goiz izan leiteke-ta.

—Noiz da goiz eta noiz berandu? Zeiñek daki ori? Erantzun, ez dakizue?

- Ori, jauna, zetarako dan.
- Zetarako? Or be akikuloak? Zegaitik esan eba gure Jainkoak «stote parati»?
- Ori guretzako latin be ba da.
- Dan lez. Esan, noiz da goiz, esate baterako
- Santa Katalina noiz, besigutarako goiz esate dogu beintzat.
- Bai eta Kandelariotan andrak andra andi ageitzen dirala, baiña...
- Zer?
- Antxoatarako goiz izaten dala.
- Nik entzuna daukat andrei ulea moztuteko San Juanak aurretik goiz izaten dala be.
- Bai, eta san Juan, olanda pariak jua, ez al d orrela?
- Ori abadeak jakin leikie. Guk-u...
- Zuek andrean barri eta bera be larri, ez?
- Ori esateko, jauna...
- Beorrek jakingo ditu onen ixilleko kontuak eta.. Or barruko txabola orretan...
- Ixo!
- Andretatik libre al zagoz zeu?
- Andrak eta aingira baltzak, gaur bardin gu retzat.
- Gaur.
- Len be...

—Len be tangarte eta lanbas askorik ez zan bear batzuen urak sikatzeko.

—Lengoei gatz emon eta gatza loratzen ba da orduntxe ekin barrero odola eta kaskarrak berotzen.

Diopil, ia jakin ziñeiken noiz urteteko asmoa ete daben lenengo duan txalopa andiak.

—Bai jauna, bai. Alegin egingo dot.

—Al ba da, gaur erantzuna.

—Ori esan bearrik ez, al ba da.

—Eta lengo bertsuak zer?

—Zelako bertsuak?

—Uste dozue ez naizela konturatu sartu naize-nean...

—A, arek? Betikoak, betikoak.

—Betikoa nik esaten dautsuedana: seigarrena iñor ez izorratzea.

—Ai ene, balio bear orretarako, zirikalari «Ake-rra»k.

—Burus ez al da pekaturik egiten?

Abadea, barre txiki mingotsa eginda, aldendu zan.

Alkarri begira geratu ziran gure lau gizonak.

—Abade ez ba litz...!

—Txikia baiña... potozorria, esango neuke bera-gaitik, aopean Diopil'ek.

—Bat geiago sakurako, pazkotarako, akulari Anton'ek.

—A zelako arpoilaria bera, baletarako!

—Patroitzarik laga barik, jakiña.

Gure zarrak, asarretuta ez, baiña zerbait minduta orrelakoxe esakera ta pentsakerak agertzen jarraitu eben.

Bale arrantzaleak gogoan

Arpoilariak. Patroiak.

Zer ete dakie agure oneik antxiñako baletako kontuetaz?

Antxiñetatik Terranoba-ra joaten zirala euskaldunak. Ba! Zeiñek daki ori?

—Emengoak baiño lapurditarrak joaten ei ziran lenago.

—Nungo paperak diño?

—Paperik onenak buruak, gure zarren buruak. Ez al dakizue donibane ta ziburutarrak ara joaten libre eukela ta emengoak ez?

—Arra bat bidean, danok euskaldun, eta guk ez al geinkian beste areik aiña?

—Jakitea da bat. Aukerak eukitea beste bat.

Areik ingelesekin konpontzen ekien, gu gerratan ibiltzen giñan denporetan. Bestetan gu prantzesekin gerratan.

—Gu?

—Gu, bai. Edo panderoan sartuta geunkezanak.

—Nik be entzun izan dot iñoiz orrelako zerbait.

—Ba dakizu nok dakizan orduko gauzak, beste iñok ez bestean jakin be?

—Emen?

—Malen Balebizarrek. Ortik ei dauka izena eta ez berari ezarria, lengoetatik datorkiona baiño. Aren aititak eta zarragoak be orretan ibiltzen ei ziran danak. Baleak arrantzatu eta arein gantz eta bizarrak saltzen. Bere aitita zanak seme bakar bat euki et lenengo ostertan itxasoetan ondatu. Ain zuzen Malen geratu zan alaba bakar eta oiñordeko. Bale-bizar deitura be laster galduko da, onezkero gatzetarako emen ez da galdituko-ta.

—Bizi danagaz be aztuta nenguan.

—Ospitalean bizi da. Urandiko txirla, sasoi baten. Gaur iñor ez eta erri laguntzaz bizi da.

Ba ei dakiz berak kantu luzeak ortaz. Buru argiko eguna bear. Egun illunetan posporoak argi gitxi egiten ei dauksa.

—Gaur ez dago ba laiño andirik.

.....
Diopil'ek lagunduta, erriko laguntza etxe edo asiluko atera eldu gara.

«Errefalla»k atea zabaldu. Diopil an ikusi eta bat bateko arrada sentidu dabela igarri dogu.

—Ene ba da ta! Gauza txarrik ez dozue ekarriko, e?

—Gosea bai beñik bein. Eta ez da gauza ona.

—Amaika gose pasatako gizona.

—Era guztitakoak nik.

—Arrantzaliak noiz ez dira orretaz keixatu eta samurtu?

—Txarrena, andre gosea.

—Zagoz ixilik! Larogetak urtetan akordu ori eukitea be!

—Ai ene, oraingoa ez da obeagoa.

—Zerena daukazu, ba, orain?

—Nire gosea? Urteak kentzearena. Zeiñek osatu ori?

Malen Bale-bizar etxean al dago?

—Lenako laguntzarra a be?

—Ori zuritzeko mariñelik... Olezko amabirgiña deitzen eutsen lagunak. Zurikeri, zirikeri, zirri, edozer alperriko ziran orrentzat mariñel uts baten aldetik Orren burua uranditan ebillan beti. Pilotu edo kapitaneatik gora. Niri beintzat ezezkoa nekez ez eustan emon

—Zu zeu ere adar bateko txoria izan al zifian ba?

—Zer ba? Zartzaroan arrautzak egitekotan laga?

.....

Oe ganean, galtzerdi-gifian diardu Malen'ek. Esku lana. Ule zuri, arpegi kiskur, betondo igar, aragi ori. Laure-mifnez? Ikusteko argi baiña entzuteko gogor.

Errefallak lortu dau zer nai dogun jakin eraztea. Arroto da. Aintzat artzeak biztu.

—«Peru gurea Londres»en? Londres'en semeren bat daukazu ala, Diopil?

—Librak ei dagoz an, librak.

—Zer? Liberame? Niri azken agurra egiten ez ziñen etorriko e?

Errefalla'k, bitarteko: Kantu zarrak entzun nai, kantu zarrak!

—Ze pentsaten dau orrek, «Peru gurea» Kuba'tik ekarritako abanera dala?

—Ez asarretu. Beste zarrago bat.

—«Ana Juanixe» bear ba da? Zer ba, Mutrikuarra dau laguna, ala? Guk ba dakizue zer esaten geuntsan mutrikuarrei? Mutriku txabillu erre-beru, katillu bete salda beru! Areik denporak, areik! «Ana Juanixe»... Zatika esan beariko dot, gogoratzen ba naiz. Ai ene! Ori gaur laiñorik ez darabildala buruan.

Kapitan jauna, erria bela
txalopa nabegantian,
ainbat ariñen sartu gaitezen
Mutriku erri onian,
Mutriku erri onian eta
Ana Juanixe'n etxian.

—Ederra! Benetan ederra asiera.

—Asiera ez da, erdi aldeko baiño. Ai ene urtiak!
A ederra ba da, au zer da ba?

Ana Juanixe, ez eixu esan
berbarik banidadian,
despedidako gabian bere
neure besuan ziñian,
zuk niri laztan, neuk zuri laztan,
an despedidu giñian.

—Ene ba da ta! Inpernuko bildurrik ez daukazu?

—Ez Madalen bat zerutan dagona egia ba da. Ba dakizue? Gogor egiten euskuen abadeak kantaten gendulako be. Benetan gero! Jiesus!!

Diopil'ek, barre egiñez: Naiago neban «Akerra» ementxe egon ba litz. Oneik neskazarrok zenbat gose pasatu ete dabe euren bizitzan?

Etenik ez.

Zek biztu dau Malen?

Ekiñean laga bakarrik berari

Kantu zarrak? Besterik ikasi gendun ba gure bizitzan?

Gure aitita zanak... Iño, arek ekiazanak ba nekiz!

Luzetxoa da, baiña...

Kapesne pixkat egongo da, ez Errefalla? Espanak pixkat busti ta labantzeko be...

Danak gogoan eukitea gaitz. Ai len, len!

Gure aititak esaten eban oneik Terranoba edo alde aretara lenengoz baletan joan zan zarauztar bateri ataratakuak dirala. Ai ene!

Orduan, sei milla euskaldun batzen ei ziran beintzat Terranoba aretan. Laburdi, Gipuzko eta Bizkai-koen artean. Gizonak ei ziran areik. Emenguak baiño lenago ibili ei ziran andik laburditarrak.

Zarauztar bat ei zan emendik lenengo asi zana,

aurrez laburditarrekin ibillia. Ez dakizue? Etxebesteneko
Martin edo. Oneik bai ikasi nituan ondo.

Etxebesteneko Martin
txalupa andien pilotu,
zek zaitu ain gaztetandik
itxas zabalean lotu?

Gabaren illunak aiña
itxasoak nau kezkatu,
gizona eta arraiña
burrukan gabiltz setatsu.

Etxebesteneko Martin,
bene-benetan esaizu,
laiño galduen bidetan
iñoiz ez zera larritu?

Bale gaiztoen olatuz
iñoiz ez naiz izutu,
nai ta sarri arrain orrek
gure txalupak ondatu.

Etxebesteneko Martin,
txalupa andien pilotu,
Lur-Berriko izotz mendik
ez al zaitue gaixotu?

Bale bizarrak ditudaz
zure gerria lotzeko,
nire igortzien faltaz
zure soiña berotzeko.

Etxebesteneko Martin,
kapitan naiko pilotu,
balea arpoiz jotzean
zeiñekin zera oroitu?

Bale mingaiñak ditudaz
eleizarentzat promesa,

ni jaiο nitzan Zarautzen
euki dezadan babes̃a.

Eleizari promesa
ta erriari babes̃a...
nik ere artu nai nuke
senar onaren sospresa.

Senar onaren sospresa
Terranoban ez da galdu,
zu etziñan aztuko ta
ni ere ez iñoiz saldu.

Etxebesteneko Martin,
Lur-barritako pilotu,
zure emazte onekin
ez al ziñan esposatu?

Iru aurtxoen inkesak
ba dute zerbaiten kezka,
joan nitzan egunetik
zintzo det zure ametsa.

—Orra. Orra danak. Pozik?

Nirekautan nabil. Kantu galduak? Nok esan bio
tzetan olakoak berotuko ez ziranik? Erriz erri miñez
eta gogoz oroituko ziranik, nok ukatu? Idazten jakir
ez daben erri bateri ez daiogun ezpaian edo zalantzar
jarri orretarako eukan gar, min, samurtasun, irudiper
eta bizitzarik.

Etxebesteneko Martin nor ete zan? Liburuetar
sartu eben euskaldunak izen ori 1.545 urtean laburdita
txalupa baten, arotz zeregiñez joan ei zan Terranoba
alde ortara. Amabost urte eukazala. Ume moko. Geroa
go, itxasoetako ibillaldi eta osteretan pilotu egitera
eldu, ortarako agertu ta euki eban gar eta berezko ja

kiñez. Ba dira diñoenak bera izan zala alde onetako euskaldunetatik ara lenengoz joan zana.

Aurrera.

Aria luzatzen

Malen'en kontuak!

Nun asi ta nun amaitu?

Era guztitako. Danetako.

Lizunkerri gabeko kontu berdeskak. Pekaturik gabeko kontu ariñak. Garrazkeri gabeko irri mingotsak. Gorroto gabeko barru txikikeriak. Luzeegi zabaldu ta galtzen diran kontu labanak, ipuin lako laburrak.

Esan eta esateko bera:

—Zegaitik ez zarie joan Toba ikusten?

—Karkaban bizi dan Toba?

—Kresala edan nai dozue itxasoetan sartu barik?

—Olako gauzak jakiteko...

—Astindu ezik ez dautsazue autsik atarako trapu ta oial zarrari.

Gatz bizia eukan Malen'ek bere gor eta guzti. Esakera zorrotzak. Jakin ere bai zerbait baiño geiago berak. Asiera, bidea, iturria, zela-alako urratsak askorenak eta askorentzat euki ta ekiazan.

—Sakristian ikusi?

—Sakristian baleak?

—Edo ta bale bizarrak.

—Sakristauarenak!

—Zegaitik ez? Ez al dakizue baleak daukaza zatirik onenak, miiña eta bizarrak eleizarentzat izate dirala? Ortaz, nunbaiten egon bear kontuak. Eta illak Ez al da agiririk egiten eleizako liburuetan bat ilte danean, edo ta lurra emon bearretan?

—Errian ildakoentzat bat. Ta itxas andieta ittoenak?

—Areintzat kandela geiago biztu ta erreten dira jakin bear zenduke.

—Leike. Ta?

—Ba kandelak argi egin leikela paperetan ere.

—Leikena, leikena.

Gure kontu esalea, Malen, eskartu nai izan dogu Baiña berak:

—Ene ba da, nor da berau ainbeste kontu jaki nai daben au? Zure barri ba dakit, Diopil.

—Nire barri ta zarra be...

—E?

—Baietz. Nik baietz emon neutsula ta zuk ezetz.

—E? Zu zeu be geldi egoteko eziñan sortu gero Diopil. Ai ene! Ondotxo ezagutu zindudazan nik. Aingera kumak lakoxe ziriña izan be ta!

—Ixo, geiegi esan barik.

—Atsa artuta gero arraiñari gatza?

—Ez koipetu beintzat orain biok, maspasatuta gero.

—Ta ori nor dala esan dozu?

—Peru Otarrain ez zendun ezagutu? Aren semia.

—E?!

Zu zeu ez zara ain zuzen be Kontze soltera zala eukia izango?

—Jesus, Malen! Errekaize eguna da gaur? Naiku da, txotxindu ez zaitezen be. Gizonari min emon daikezunik pentsatsen ez?

—Gizonari min? Dakian alderdi erreta ba leuke...

Peru'ren semea benetan? Erdu! Ekatzuz musu bi, aitaren seme ba zara ez zara makala izango ta bero beruak emoten.

Ai Peru, Peru Otarrain!

Zure aita, birgiñarik zeruetan bizi ba da, ez da areitatik urrun ibiliko. Ez orixe.

Liburu zarrak ikusi ta irakurten

Gure parroketako liburuak denpora luzeetan errietako bizibidearen goraberen artxibu bakarrak dira. Amarraren eta asikiñekin kezkatutako abadeak nekez eta bete bearraren lorrez gain-gaiñetik egiten zituen agiriak gordeten ditue.

Nire erriko kontu zarren jakin nai eta miñak,

Malen'ek esanda lez, eurak ezagutzera makurtu nau. Kontuak aña zar eta ori, koipetsu ta biurri dagoz. Askotan irakurteko gaitz edo neketsu beintzat.

Euretan eta eurekin nabil. Lengoa eta oraingoa alkartu nairik. Barria zarragaz lotu nairik. Lengo eta oraingo jokera, gorabera eta bizibidea aritu nairik. Gure bizitzako etorri ta jarraimeneko zubiaren zimenduak eta egalak ezagutu nairik.

Betikoa da itxasoa nire erri kresaltsu onen aurrez aurre. Baiña itxaso orren sakonak, itxaso orren munak eta abaroak ez dira lengo denporetako.

Betiko dira mendiak, erreka onduan estutzen gaituen mendi koskorrak. Baiña lengo pago, aritz, gaztain eta artak, lengo maasti eta sagastiak, lengo belardi eta soloak, gaur berde illun eta igarreko arboladi makal dira.

Betiko dira etxe batsuk. Leio itxi edo olezko balkoi estuak eukezan alkar joten, eta alkarren arrimuan, sarritan orma bakarrean alkarri eutsi eta jasotako etxeak. Baiña lengo ondar-arri arlanduak gaur kolore naastu eta argitu bagako zementu autsezko orma itxurabagakoak eta otzak dira.

Betikoa da ondarra, betikoa laiñoa, betikoa itxas bitsen lurrun astuna.

Betiko eleiza andiaren keriza bustia egualdi usteltan edo ta eguzkiaren izerditan.

Betikoa, giro bakoitzeko agerraldiekin, fedearen oiñarria...

Konturatu nadin. Merezi dau. Nire parroko illen liburuetao orrialde batek bi-irutan irakurtera eroaten nau. Tengada berezi bat. Bizi-bide oso baten agerpen bat irakurten nago. Aldi bateko ogibidearen eskabide

bat ikusten. Gure asabak, euneko onenbesteko agiri baten, emon bearrekotzat bete betean sinistuten eben eskintza. Nai eta zenbategaz osotzen zan sekula jakin ez eben zerga edo kontribusio baten kontua.

Poetak dira erriaren kontulari eta kantaririk maitetsuenak. Bein, bateri, eskintza ori zenbatekoa zan agertzeko eskatu eutsen. Eta berak, bete-betea, gero-koak be jakin egien, zorrotz, biotzeko zotin eta naigabez erantzun au laga eban: «Biziagaitik irrizkatzen dugu bizia».

Ori zan lengoen legea.

Paperak diñoste. Ikus.

Askoren arteko agiri bat

Zegaitik joten ete eben erderara gure erretore zarrak, euskaldun erriaren gertaerak agertzeko?

Kaku bat geiago. Baiña goazen. Erderaz irakurri, euskeraz pentsatu eta al danik zeatzen, esan nai batik kendu barik, agiriak diñoena nire paperetara aldatzen nago.

«Milla zazpireun eta berrogetabat garren urteko Dagonillak ogei egun eukazala, albiste bat etorri zan: baleetan iñarduan txalupa bat ondora joan urte onetako Jorraillean eta izentatzen diran bertan ebiltzan arrantzale oneik galdu zirala gure errikoen artean:

Frantzizko Irurre, Mari Zugazaga'ren legeko senarra, gitxi gora bera ogei ta amasei urteduna eta ondasunik gabekoa.

Antonio Makibar, Maria Thomasa Jauregi'ren legezko senarra, gitxi gorabera berrogei urteduna, eta ondasunik gabekoa.

Manuel Bega, Maria Ana Aremaio'ren legezko senarra, amazazpi urte osta egiña, eta ondasunik gabekoa.

Domingo Atxurra, Theresa Iturriaga'ren legezko senarra, gitxi gorabera ogetabost urteduna, eta ondasunik gabekoa.

Thomas Urresti, ezkongaiia, Frantzisko Urresti eta Josepha Laka'ren semea, ogetalau urte egiña.

Eta danentzat kanpaiak jo dira, bai eta jakin eraz il onetako 25 eta 26 egunetan egingo dirala euren ari men aldeko eleiz illeta eta eskintzak.

Egitzat artu eta ondorengoentzat jakingarri geratu daiten, agiri au izenpetuta lagaten dot.

Mizkiri'ko Paulo jauna.

Sakonduten

Liburuak aztertu eta irakurten jarraitzeko garrantzitsua da sortzen dabe orrelako jakingarriak billatzeak.

Zein dira gure gizonak?

Azterrenik billatzea merezi ete?

Frantzizko Irurre Agirre, milla zazpireun eta lau garren urtean jaio zan. Gurasoak mutrikuarrak. Eta jakin Mutriku aldeko Idurre'tik Ondarroa'ra noiz etorri ete zan maitasun billa. Bere emaztea, Mari Zugazaga

bizibidearen premiñak luzeago erabili eben. Mungia eta Zornotza'ko odola ekarri eban gurasoen jatorriz.

Ezkontzako frutuak paperetan batzen dira:

1.731'n, neska bat: Mari Bautista.

1.733'n, mutilla: Frantzisko.

1.735'n, barriro neska: Madalene.

1.736'n, beste neska bat: Kathaliñe.

1.741'n... aitaren amets eta amaren kezka: Juan Aitaren ondamendiak garrastu eta ama alargunaren malko tantaz mindutako titi bustia artu bearko eban onek.

Aurrera.

Antonio Makibar Zelaia. Azkoiti'tik etorri ziran gurasoak. Berak, nai eta emen jaio, Ea'tik etorritako arrantzale baten alaba begiztu eban eta beragaz alkartu.

Batek jaten daben tokian bik jan leikela ta, be-deratzi seme alaba ekarri zituen, bata besteari tengadaka. Abizenik ez galtzeko keixu. Bat ekarri eta bestea osta osta bizi, baiña etxean txikirik falta ez sekula

Irakur liburuak:

1723, Pedro.

1.725, Ana Mari.

1.727, Ana Mari barriro be.

1.732, Txomin.

1.735, Antonio.

1.737, Maria Madalene.

1.738, Pedro.

1.740, Clara.

1.741, Maria.

Mari eta Pedro, Pedro eta Mari, bat il ala bestea
etxean

Test bat egitea merezi ete Tomasa'ri?

Bere bakea ez daigun eten, oraingoz beintzat. Udan,
egun bero baten ittotearen albistea artu ebanean, bera
be sein egiteko egoan. Zenbat itxaropen barri itto
itxasoetako aize zakarrak?

Ez da gaitz eleizako argi-zari oletan batutako argi-
zariaren su bildurtian, mankal baltzaren gaiñean, bere
malko lodiak igartea. Eta bere kantu latza entzun be
bai, alargun kanta, errukiz eta parkamenez betea, ixil-
ixilka, belarrietatik kendu ezin izaten dan durundi luze
ta gogoragarrian:

Oi Itxaso, itxaso,
nire kutunaren obi,
oi itxaso, itxaso,
nire ametsen il zori.
Urdin ezagutu zindudazan
maite miñetan nebillanean,
zoro gangar ibiltan nekian
Pxatxikorekin zure bitsetan.
Oi Itxaso, itxaso,
nire negarren iturri,
oi itxaso, itxaso
eriotzaren irudi!

Besteen atzetik

Setatsu nabil, arduratsu ta egarri eleiz paperak
irakurten. Izenen erreskadak atsegiñez jarraitu.

Manu Bega. Amazazpi urte egiteko edo egin barri il zanean. Eta ezkondua. Emazte bigun baten loxintzak artu baiño len, zek eroan ete eban atako bandan, ur andietara, bale arrantzan?

Zortzi anai arreba ziran etxean. Amasei urtetan, urte bitik bira, zortzi. Bera gazteena.

Irri mingotsa atara eragiten dau parrokoaren agiriak: «ez eukan ondasunik». Esan bearra be! Erri guztiak ez al daki ori?, egingo eban beretzat, parrokoak, ori agertu bearrez aurkitu zanean. Zer ondasun eskatu zortzi umedun arrantzale famili bateri? Aurrak ondasun, mariñel etxetan. Arrain zatar pixkat naiko, bere tatoekaz umeak loditzeko.

Manu'k semerik euki ete eban ez diño e agiriak. Ez jakin amak, amasei urtedun andra koitaduak, bere gurasoen aterpea billatuko ete eban, alargundu ondoren, gure parrokira jausten ez zan basterren baten. Mendaro aldetik etorri ziran Ondarroa'ra Aramaiotarrak. Mendaro-Azpilgoetatik. Zeiñek jakin Arno azpian edo Astigarribiko ibar edo ingurutan frutu bedeinkatu eta errukarren bat andik laster sortu ete zan?

Odolaren jatorriaren billa dabizantzat, odol garbiaren arrokeria erakutsi nairik, jatorri zintzo eta lege ta sinisteen araberako bide zuzeneko jarraipen bat gurasoen gurasoetan billatzen alegintzen dirantzat, laga eban konturatzeko añaiko oar txiki bat parrokoak bere idazkeran: Anaren amaren gurasoak, Nikolas Tolentino Basterretxea eta Mari Txopite, ezkondu gabeak, solteroak zirala.

Abade zarrak egi gordiñak agertzen dakiez ziurtasunaren astuntasunez bete bear izaten dituen liburuetan. Gero, gizaldien buruan, askoren aize garbiak likinduko dituezan odeiak.

Aurrera.

Txomin Atxurra...

Paperetan ez da agertzen bere jaiotzako argita-
sunik. Amoroto ingurutan bizi dira Atxurratarrak. Berriatua'tik, Markiña aldea lagata, Eizmendien ostean Mereludi auzoaren sakon unean, Amoroto'ko goiak ikus-
be egiten ez diran ibar estu eta busti baten, an billa-
tuko doguz baserri banakak. Ba dago an Atxurra izenek
bat...

Baserrietako bakea sarri eten eben itxaso zabal et-
aizetsutako olatuen orruak.

Onek be, gure Txomin onek be, ez eban alabaril-
jaioten ezagutu. Bere alargunak sarri egingo eban nega-
truxu eta lodi, kumatxoaren danba-danbetan, alabear-
begiratu ta bere aita gogoratzen.

Ikus daigun gure gizonetako azkena: Thomas
Urresti. Oraindik amets barri gitxi egiña.

Ez jakin baleetako irabazi eta ondorenen premi-
ñan joango zan etxeko estutasunak nasaitzeko kezka-
Edo ta baserri legea arintzeko, urten egin bearko eta
eban. Ondarroa eta Berriatua bitarteko baserri on bater
bizi ziran bere gurasoak. Baserria laga ta itxasoan sartu
egon lei onetan giro bateko pekatu. Bizi premiña ibil-
tari da. Ibili eragiten dabena.

Begira gurasoei: Aitarenak, Migel Urresti, Urres-
tilla'tik etorria, Azpeiti ingurutik. Bere emaztea, An-
toni Lizarralde, elgoibartarra. Amaren aitak. Lazaro
Laka, Berriatua'n sortua eta Josepha Bengoetxea, Biz-
kai'ko Mungia'tik etorrana.

Agiriak pentsatu eragiten dau: Parroko batek, iru-
lau lerrotan, orri erdika baten, ezin eikean geroko gizo-
nentzat erakutsi geiago laga.

Arrizkuak eta alargunak, ondamendi eta ondasunak, gurasoen pekatuak eta baserrietako uskar umeak...

Eta illen agiriak lagata, bizienak, jaiο barrienak, gure mundura agertu diran ume errugabeenak nora garoez?

1.741 urtean, ogetalau ume bataiatu zirala diñoe agiriak. Amasei mutil, zortzi neska. Itxas txalupak gizon eske egozan. Urtearen azken illetan, gabonak orduko, erreskadan, tarte txiki bat lagata, bata bestearen atzetik, ama alargunen negar kantu eta muxinga asko entzun beariko zituen. Mari Atxurra Iturriaga, Mari Makibar Jauregui, beste Makibar bat bitartean eta Juan Irurre Zugazaga datoz eleiz bataioaren ur eske. Ain zuzen be itxasoetan, ur andietan itto ziranen seme alabak, ur garbiagoen eske.

Abadeak, ondasun gabe il zirala esan ebanean, ez ete eutsen begiratu ama gazteen betondo eta arpegi larriei?

Mizkiri'ko Paulo jauna deitzen zan agirien parrokoa. Eta gaurkoa? Ez ete daki gaurkoak, zarretatik artuta, agiri onein inguruan edo denporetan bizi eikeanen baten barri, edo jazo eikean gertaeren bat?

Serora-mistikak.

Abadetxeko sarreran, eskillaretatik igarten da baba lapikoa sutan dagola.

Ba dakie errian parroko onek urte guztian jan nai izaten dabela azala leundu eta fintzen daben lapikoko ori. Asikiñak eta onenkiñak ondoren.

Gogora datorkit: abadearen lapikoa, txikia bai gozoa.

Gora orduko, zelatari da norbait. Ateak, argi ta tean, kerizpeak. Arreba? Seroraen bat?

Azken mallak igo orduko, atea zabaldu ta «Al Maria purísima» berak.

Egunon, nik.

Abe Maria, barriro berak.

Egunon Jaungoikoak, nik.

—Txartelik artu al zendun?

—Udan gagoz.

—Bai, baiña txarteletara joan al ziñan?

—Txartelak garizuman artzen dira.

—Igarten da.

—Zetan dator itaun ori?

—Zure erantzunetik.

—Kontxo! Asmotxa zara.

—Mesedez, errespetuz eta apaltasunez etorri.

—Gaur arte sekula ez dausat ba txapelik kend neskazar bateri. Eta orain beintzat eskuan daukat.

—Jesus!

—Jesus eta Jose!

—Irri ta burlaz?

—Ez zaitetz begitankor, sartu ordukoxe.

—Mingain puntan neukan neuk be beste zerbai olakoxe.

Ixildu gara.

Ate egalean bera, ez barru ta ez kanpo.

Eskillaretan ni, esku bat agan eta besteagaz txapela biurri estutzen.

—On Simon etxean dago?

—On Simon baiño lenago Abe Maria dago erantzun eske.

—Goikoaren egunonik nai ez ba dozu, deabruak eroan zaizala lenbailen tatarrez.

—Lotsagabe zital!

—Zein da lenengo txikota luzatu dabena?

—Eta?

—Andrak eukiten dabe zertzeta.

—Mesedez, lotsaz etorri abade jaunaren etxera.

—Ez nator baba lapikoa kentzera.

—Umiltasun geiago bear zenduke beintzat, agertzean.

—Karidadea lenago dala ta nago bat aukeratzeko, ta oraindik ez dot ezagutu zure borondaterik.

Bat batean, brats!, atea itxi da.

Barrutik erabili be bai kixketa.

Ate gaiñean dagon leio txiki zabalduetik lurruna dator eskillaretara. Erri guztiak daki seroreak lapikokoa gertuten ezik besterik ez dakiala. Alaz eta be parrokoak gangorrik (galdorrik) ez dabela erakusten bere aurrean.

Bizi bideko argalkeriak.

Berutzen asi orduko, atea zabaldu barriro.

—Nor da, zein da emen?

—Ni, Manu, Peru Otarrain'en semea.

—Otarrain? A, bai, bai.

—Ta?

—Zugana netorren.

—Itxuraz ez modu onian.

—Gizonen moduan.

—Ez, esateko, lotsa ta dedu onian.

—Bai gizonari eskatu leikean oituran.

—Ba, ba...! Asi gara banidadian.

—Parkatu. Gizona naizen bestian.

—Txapelik ez dozu kendu beintzat abadiaren aurrean.

—Pena daukat len kentzia sorgin bat agertzean

—Iñor ez uka, mesedez.

—Esan dodana minutu bat ez dala ikasi dot bizitez

—Sorgiña naizela diño ta entzun batera? Asarru agertuz seroreak.

—Ixo, ez zirikatu lengoz gañera.

—Ia, esan itz ori oster!

—Mesedez Joxepa, joan zaite sukaldera.

—Emon, emon errazoia deabruari ta gero illeta jo erri lotsagabeari. Ori esan eta erremuskada bizian eskutaten de serorea.

Don Simon'ek garratz:

—Zer da nai dozuna?

—Ikasi ta ikasteko nagona.

—Ortako sagardotoki edo guzurretxera joan.

—Esan nai dodana...

—Emen baiño autu geiago erabilten da an. Kontu geiago aritu.

—Ez dira kontu guztiak bardiñak.

—Ez eta danak be fedekuak.

Esan, zer da jakin nai dozuna?

—Mizkiri'ko Paulo ezagutzen zendun.

—Nik?

—Entzutea beintzat.

—Zein Paulo?

—Emen parroko izaniko bat.

—Don Paulo, esan nai? Don Paulo. Kontxo! Azkenian titulorik be ez dozue aintzat artuko. Edozein txorimalu ba giña lez.

—Parkatu.

—Parkatu orduko ukatu. Ori da gaur egiten dozuena.

—Mizkiri'ko Paulo ori...

—Don, don!

- Bai gizon.
- Kontuz, abade, parroko.
- Abade, baiña gizon.
- Danen gaiñetik abade, e? Berbatarako, tratu-
rako, abade, parroko, parroko jaun.
- Azalak, itxurak.
- Eurak zaintzen artu ardura.
- Danok sartu bear giñateke jokura.
- Sartu barik bata bestearen lekura. Ta zer?
Kontu ori zer?
- Mizkiri'ko Paulo...
- Don Paulo.
- Bai gizon.
- Bai, abade jaun.
- Era onetan, baba lapikoa erreko da.
- Lapikoa erre baiño len, errezuak egiteko dau-
kadaz eta minutu bat falta da eurak asteko.
- Ortaz, bale kontuak eta urandiko arrantzetako
gauzak urrengorako laga bear.
- Bale kontuak jakin naiean zetozan? Ni abadetza
ikasía naiz eta ez arrantza.
- Mizkiri'ko Paulo be abade zan baiña...
- Don Paulo.
- Parkatu, laprast egiten daust deitura orrek.
- Ba laprastadan joan zaite beko karkabara. Baz-
kaldu aurretik nona errezatu nai neuke. Beko karkaba

aurreko etxean, an bizi dan... andra batek, ori, andra batek, andra ta ondra ez dodaz nastatu nai, arek ei dakiz orreitako gertaera ta asmatuak. Ez esan nik bialdu zaitudanik. Ez sartu ni orretan. Ni abade naz.

—Bai don Simon. Andren ondra eta gizonen ondra. Bai, don Simon.

—Ori, don Simon.

—Bai gizon, bai.

(Barrutik) Nona'ko ordua!

—Entzuten? Gu abadeok gizonon gain egon bear beti, gure errezu eta bearretan.

—Gizonen gain, baiña andren menpe. Ori be ez da ba iñoren aurrerako alako «ondra» andia.

—Lotsa pixkat.

—Bai galdu ez ba gendu.

—Aitaren urik ez daroazu beintzat.

—Edozetara be amaren «ondra» bai eta ez saltzeko,

Karkaba aldetik

Lengo gizonak eta beste batzuk korretan dagoz. Alkarregaz eukitako zerbaitek minduta. Txikikeriak. Nireen antzeko.

Karkaba aldetik, abots gozo, bigun, garbia entzuten da, kantu mintsuz.

Gizonak dagozan baiño beeratxuago, etxe andi bi bata bestearen ostean, obeto esanda, alkarri ormak emonda, eleizaren arku eta arkupeko zuloen eta euren artean etxarte bat lagata, karkaba baten tokia lagata.

Txalopa andien aga luzeak bertan, eleizako ormetan etzanda, lotu barik, al bestean. Sakonen maste nau-siak.

Beerago maste txikiak, brankakoak eta atzekoak belazurrinak, tanbuletak eta abar.

Egal baten tinkagaillu, girgillu, burboil, galanda eta abar. Beste alderdian belak: nausia, gibleko mesana, gabiak, trinketak, latiñak... Bai eta erramu, lemako aga, atxamart, arpoi, korain eta arrantzarako tresna eta gaiak. Eta ojael, lurrezko ontzi eta abar. Upel erdika arrakalatuen bat be agiri da. Eta arri mordoa.

Olio zar usaiña, koipe garratzu atsa emoten dabe belak eta karkabako lizuna galdu eragin, arrain gantzenak zudurretan be kili kili eragiten dabelako.

Egalean leio estuak, ez zuzenak. Naiz eta eleiz ormen aterpean etxeak abaroa euki, kanpora sarratzen dira egur zabal eta zarrez egindako leio atalak, edozelako aizetatik zainduta etxea eukiteko eran.

Bigun dator abotsa. Gozo. Zarata bako egualdiaren nagitasuna galdu eragiten.

Ixo, ixo, diño Diopil'ek, bear ba da arretaz entzuteko esan bearrean, mandeulien egada ta durundia be erraz igarten dalako leku onetan. Entzun. Gaur be eguna eukiko dau beko orrek. Itxasoko kresalak andren eztarriak garratzu egiten ditula? Itxura ederra dago or.

Iñok erantzun ez. Betozkoa ipini bai Betis-ek.

Toba alarguna da, irurogetak urte eta neskatil askoren gozotasun eta leuntasunez kantari. Bat amaitu orduko bestea. Maite kantak eta itxas kantak.

Bere bizitzako kurutzeak min asko sartu eta emon eutsen andre oneri, negar eragin be bai mara-mara eta lodi. Baiña katurako egokitasun eta zaletasunik kendu ez, biguntasunik galdu eragin ez.

Erriko kantu guztiak dakizala diño. Doñuz eta itzez. Iñoiz doñu askori itz biribil eta sentikorrak geitu be bai.

Ez dauka umerik, bere senarretatik eta... euki ba zitun be. Senarrak be ez ain zuzen antzutuak. Orain bakartadeak makurtasun batera lotu dau. Beretarrak galdu eskeroz, geitutako senideak ez dautse laguntza asko eskiñi.

Katuak aiña ume egiñarren, kozkonduak itto eta besteak ume guri zirala il yakozen. Beretarrak euki eben odol meeko ete ziran entzutea be.

Bata bestearen ondoren ba dabil kantari. Ara orain:

Nire senarraren ardura,
itxas andien onura,
ume barridun emaztea etxean
eta bera parrandan talape ertzean.
Ai Antoni Mari,
Antoni Mari marraxo,
zuk ekarritako arrain freskuak
semeari paputsik ez egingo,
semeari paputsik ez egingo
ez eta izterrik be lodituko.
Antoni Mari benetan marraxo,
andrea baiño taketa naiago.

—Antoni Mari baiño besterik ez dozu iñor euki ala?, deitu minduta, eutsi ezinda, brixak urtenda, itto bearrez, goitik, gure albotik, Batis'ek.

—Ez uste a Kristo izan zanik eta besteak lapurrak, betik, berialako erantzunez, zital eta zoli, Tobak'k, leioaren egur atalak batu eta txikotagaz lotu bitartean.

—Biok be ba dakizue alkarren barri, baiña eutsi, eutsi aidean geratu dan ordago orreri, Diopil'ek, zirikalari, Batis'eri.

Ixilik, baiña alkarri kiñu zorrotzak egin be bai beste ingurukoak.

Itxas lapurrak

Batis eta Toba'ren asarreak ba euken bere asiera: Itzetik, berbatik artu leikioe: lapurrak.

Itxasertzean, itxas lapurren bizitza, naste, zikin-keri, zabarkeri, gorroto eta zitalkeriz betea izan da. Gauza garbia ez beintzat. Ixillean eta eskutuan egin bearzan lana bere gertaeretan, ekintzan eta ondorenen banatzean.

Itxas lapurrak, lenengotan, erbesteko txalupen sartuera eta indar aldietatik aldeztu edo gordeteko izan eikezan. Gero... lapurretak. Nai eta Aita Santu baten baimenez, bedeinkatuta izan ez da be, ondo ikusita ebiltzalakuan jokatu ortan iñarduenak. Aren baimenez ibili beintzat.

Erdikazko baimena? Kristau ez ziran itxasontziak inguratu eta arei ostutea azke lagatean, zer? Lapurreta-

rako garra ortik geitu eikean: bizimodu errezaren tengadea eratsu ta nasaiago jarraitu eikean, batez ere arrisku zale batek. Gogo adoretu eta ameslari batentzat, itxas lapurreten atea zabaltzea lez.

Abadeari ez ezpai ori agertu. Bertan bera, bereala eleizatik kanpora lagateko zirikaldia sartuko yako areri. Roma locuta... esaera bein da barrero gogoratuz. Itsu eta mutu. Kittu. Eta erbesteko itxasontziei kendutako kandelerak eta urrezko ontziak nai sedazko eunak eleiza dotoretu al ba leikie, obe. Barruko arrak kili-kili egin begie bildurtiei edo ta gerriko miñak koldartu-eikienei.

Nun dabiltz itxas lapurrak?

Errian ez da asko igarriko. Ez len eta ez orain. Eskutuko gauzak. Urandietan ibili leikie, arrantza andietan edo ta merkatari eta tratulari lez ezagutu eta agertu.

Baiña...

Sakristiko liburu zarrak gain gaiñetik irakurtean, abade zaarrak liburuan idatzita laga eban au billatu dot:

«Donosti'ko portutik itxas lapurretarako asmotan urten eben 1.691 urteko Urrilla'ren lenengotan injiman (fragata) baten Lukas Iturriaga, Frantzizko Bega, Manu Iriarte, Anton Eiguren, Martin Manrike eta Joseph Sasturri'k.

Luzaro ez zan eurenik ezer jakin, ez eta ebiltzan ingiman ontziarenik be. Nai eta agertu ez, danen pentsakeran egoan ekaitzen batek nunbaitera tatarrez eroanda egon edo bizi eikeazala, edo ta kartzelaen baten egon, iñogaz artu emon eta albiste barik. Baiña denporak igaro ala, euren etxeakoak il susmoa artu eta bildurtzen asi ziran, eta alaxe, famili bakoitzak beretarren illeta egitea erabagi eta agindu.

Origaitik dator liburuko au:

«...Epailla'ren amargarren egunez kanpaiak jote asi ziran, lenengoz Lukas Iturriaga zanaren alde. Txom Iturriaga eta Mari Arantzamendi'ren semea zan, «Ik tza» baserri etxe inguruetakoko lurren jaun eta ugazab lez. Erriz Berriatua'ko done Pedro'ren eleizateko biz lagunak dira, baiña eleizaz nire parrokiakoak. Gitxi gor bera ogetasei urte euki eikeazan, eta beartsua, pobre familiko seme zalako. Epailla'ren amaikan egin zan be illeta eta bere gurasoak be etorri ziran bertara.»

Beste liburuak zeaztasun gitxiagoz itz egin leiki Illen liburuak ez diño ez guzurrik.

Eta andik egunetara bestien dolu-min eta illeta egin ziran, olakoetan egiten diran erritarren laguntza eskeintza ugariz.

Illen artean, liburuan agertzen diran izenen artean ain zuzen be Antonio Egiguren egoan. Toba'k ainbest destain, gorroto eta zitalkeriz kantatzen ekiazan bertso tan be aitatu. Bere senarraren aittita. Ain zuzen be Batis'en aitaren anai izana.

Senarraren illetak egin eta urte-beteko il ondor neko alarguntza zaindu baiño len Toba ezkondu egi zala ikusiko dogu geroago, ta andik sortutako aurtxo senarraren senitartekoei bialdu eutsela jakingo dogu, t ez maitasunez.

Ortarako...

Lenengo senarr

Iru seme euki zitun lenengo senarraren batasunetik

Lenengoa, koitadua, iru ille bete orduko il egin zan. Beste biak, bikiak, indar barik jaio ta il.

Azkoiti'tik etorria zan gaztea. Goseti, baserrietako ezin bizi ta estuntzetan makalduta, itxas aldeko iparrak ten eginda.

Terranoba'ra ostera bat egin eban. Andik etortean, Toba'ren gurasuak ostatua emon eutsen. Etxean eza-gutu ziran Toba ta bera. Mutil ona zala, langillea ta etxe-koia ta zerbait egin eikealakoan begi onez ikusi ta biotz zabalez artu eben etxean. Ezkondu aurretik alkarren barri jakitera eldu ete ziran?

Beste ostera bat egiteko asmotan ebillala, Toba'gaz buztartzera zirikatu ta ezkontzea gertu eutsen, itxasoe-tako joanaldi orreik luzeak zirala ta maitasuna be zaindu eragiteko asmotan. Gurasoak ba ekien Toba odol beroko zala, loxintza egarritsu zala eta bere maitekerietan au-sarta ere bai.

Paperik be egin barik, agiririk zabaldu barik ez-kondu zitun parrokoak.

Lapurditarren txalopa andi ta izendun baten lortu eban ostera egiteko aukera.

Paperak eta egutegiak baiño ziurrago erabilten dituez atsoak kontu ta jakin bearrekuak. Jorraillaren erdian ezkondu ezkeru, Urte barri zoriontsuak itxaron bear ta alako autu-mautuak erabili zituen euren batza-rretan. Baiña Toba'k euki eban gai onetan zeñek txatxartu eta aotan erabili.

Gizonak ez eban jaiotzik ikusi ez eta jakin be itxasoetan ebillan artean. Andik biurtu ta jaiotzaren barri jakin, zazpikia ete zan itandu eban. Baiña ille bi-dun umetxoaren irribarre alai ta zorongoak artu zitun kumatik. Poz-muxinga orrek negarra ataraten eutsen.

Berak sekula ez ebala iñor izorratzerik pentsatu duba ostatur etxean egon zan artean eta kezkek burua a eutsen. Oraindik zaspikira be ez zala eltzen konturat: zan bere illen kontu nastetsu ta gaitz osotuetan.

Mutiltxoa jaio zanean, bere etxeoak be, zerb igarrita, eta itxurak gordeteko be, abadeari esan eut: zegaitik ezkontzeko deirik barik alkartu zitun eta ab

Parrokkoa be estu eta zurbil laga eben. Lenago ezkontza aurreko bete bearrak burukomin ugari en nak izan ziran, bera baiño aurreragoko eleiz ardu dunei. Erritarrak ba ekien ori, autu zarrak luzaro go ratzen diralako, batez be maitekeri, lizunkeri edo a gikerizko zerbait bitarteko gertatzen diranetakoak. I emen be, eun urte inguru lenago, Agiriano abize eukan parroko batek izerdi larri ete likiñez busti eb liburu bat, abade jantzia be kenduko eta eutsen bilc eta kezkek eraginda. Garbi dago orduko agiria le goko paperetan. «Nik, Peru Agiriano batxillerak, e onetako parroko naizenez, 1.592 urteko Epailaren og tairugarren egunean, «eleizaren ikusberan», (in fa Ecclesiae) Makoaga'ko Peru Otxoa eta Arezmendi Mikolas ezkondu nebazan. Eta gero, Berbizkunde P kotako irugarrena baiño len, iru egunetan agertu nel zan legeko iru ezkon deiak Epailako ogetabederat ogetamar eta ogetamaikan, Ori mutilla Erregearen s bitsura eioalako gerrako itxasontzi baten eta nes bere emaztea, irainduta geratu ez daiten, ba dakit e len be, ortaz, autu eta naste ta zer esan ugari eg zirala.»

Senarraren gurasoak, jaiotza jakitean, orrelakoet oi diran opariekin etorri ba ziran be, umea bataiatz ikusi ta ezaguru barik aldendu ziran, ez modu e giro onez.

Yokin'ek, ala zan senar gaztearen izena, konturatu zanean, altxorra eskatu eban eta etxez aldatu zan, Toba'ren zizpuru ta negarrei entzungor egin eta bere gurasoen arren eta eskariei jaramonik egin barik.

Illebeta orduko umetxoa il zan.

Alegiñak egin zituen Toba'ren gurasoak barriro Yokin'en babesari berari emoteko. Zuritu eben. Lengo pekatua gogoratzeko ume errugaberik be ez egoan bitartean. Lortu eben barriro biak alkartu ta adiskidetzea.

Oraingotan, ain zuzen be bi batera sortu. Bikiak. Baiña Yokin'ek ez eban semerik ezagutu, ez eta Toba'k Yokin'en maitasun eta laguntzarik geiago artu.

Irabazien egarriz, edo besterik ezean, gurasoen kontura bizitzen ezin egon eikealako etxean, itxas lapurren txalupa baterako oles egin eta an sartu zan.

Iñok ez eban garbi jakin zer gertatu zan.

Bein erbestetik jakin erazi eutsen Toba'ri bere senarra breaz beteta laga ebela ondartzaren baten, itxasontzitik kanpora atarata, eta berak jakingo ebala senarraz arduratu edo bertan bera astu.

Alegiñak alegin Toba'k ez eban gizonik ez bere soiñik aurkitu, bata besteri deitu, ots egin edo ta nun aurkituko billatzen alegin setatsuak egiñarren.

Itxas lapurren txalopetako oitura zan, eurentan iñor besteen aurka jaiki edo ta mingaiñetik laban agertzen ba zan, breaz inguratu, lumaz bete ta baster baten gorde, gero, itxasertzera urreratzeko lenengo aukeran edozein tartean legorreen lagateko.

Olakoen bat egin eutsen eta gerokorik jakin ez.

Seigarren illabetez beteta, andretasunean lodi ta keixu bizi zan Toba bere senarraren barri edo albiste gaizto eta uskutuko ori artu ebanean.

Olakoetan iñor ez zan ausartuten zegaitiak eskatzen ez eta aitzakirik billatzen.

Lotsari eta eskarmentu izaten zan, laido eta iguin-garri, ez beretzat bakarrik, senitarte guztiarentzat baiño orrelako zigor edo ta bastertze bat.

Etxeak ondatzeko, familiak laidotzeko eta erritarren aurrean betiko zikinduta geratu eragiteko.

Itxas lapurrak itzez eta tratuz berbatuak izaten ziran. Juramentu egiñak. Itxasoan ebiltzan artean, zigorpean lez, azkatasun barik, makur bizi ziran. Eskutuz betetako bizia eurena. Irabaziak, askotan, alegiñaren neurri, beti be zori baten ondoren, gauzak ondo gertatu eta urten ondoren. Baiña menpetasun itsuz jokatu bear eben, ezpai eta txistik barik aginduak eta premiñazkoak beteten.

Bakoitzaren izatea itsukerian galduta lagaten eben, artarako eskini ta lotzen ziranean.

Itxasoetako giroa... kantuz dakian erriari itaundu.

Itxasoetan urak ur,
egunez giro, gabaz zur,
sei bela eta lau egur,
ontzi artean bi lapur.
Bi lapur edo, lau segur,
deadar garratz, dei maltzur;
ia mutillak ken bildur,
gurea da ta jo zuur.

Atzetik asi ta gallur
mendetu arte ez makur,
aberats gara bizi truk,
gora Yainkoa ur ta lur.

Itxas lapurretan ebiltzan ontzietako buruak ez ziran ausartuten barruko gizonen arteko iñor ilten. Jaubeak be ez iñor salatuten. Baiña bein txalopak alkarren artean eukiten zituen burruketan zerbait gertatuten ba zan, edo ta aurrez barruan nasteren bat sortu edo ta aitzakiak billatzen iñor asarretu zalako, gizon bat orrela bastertzen ebenetan, alkaternaz inguratu eta legorrera eroaten ebenean, an bere eran edo al zan eran laga-teko, gizonaren biziari guzurrezko errespetu eta lotsa eskintzen eutsen. Ba ekien orrela lagaten eben gizona nekez salbatuko zala eta ala gertatuta be, gizon ori lotsaz edo makurrez galduko zala, bear ba da ekaizpean ond-tuko zala, edo ta erbestean betiko eskutatuko zala.

Toba'k alegiñak egin zitun bere senarra billatu ez da be, beretzaz zerbait jakiteko, bere erraztua billatzeko edo ta ziurtasunez bere eriotzaren barri jakiteko.

Amatasun andi eta aurreratuan egoala, bere egoerak errukia emon eikean, baiña ingurutako andrak ixilean min artuko ba eben be, iñok ez eban aurrerapenik emongo senarraren barri jakin nairik. Gañera, Yokin, ez zan errian jaioa be, urte batzuk zirala gosekil eta argal errian «jausia» baiño.

Bildurrak erangindako egoera eta oiturea zan ori. Zarretatik etorrana. Endaz etorrana.

Nekez etsi eban.

Gau luzetan zai eta ernai egon ba zan be, sarri leiora urteten, edo ta atearen edozelako ots eta zaratei erantzuten, bere zoritzarra iruntsi eban.

Erdibitzeko eguna eldu zanean, denporak bete ziraneko, gustiz aul eta erdi zoro egoan.

Auzokoen laguntasinik be ez eban euki eta jaio keran itto yakozan umeak. Bikiak ziran.

Ez eban lortu etxekorik urrenak be gizona azt eragin eta bizitzara etozanen ametsik beregan suspetzerik. Alkaternaren usaiñik ez yakoen bizitzan galduko bizi ba lira.

Umetxo biak, errurik ez euken ume guriak, oitur beteaz, etxe azpian, ormetatik kanpora, tellatuaren ur tenak emoten eben aterpean eta babesean lurperat zituen, jaio ziran lez, bataiatu aurrez aingeru jantzi edo ezaugarririk be artu ez eikeelako.

Ametsak eta kezkak, lorrak eta nekeak, andur ardura eta amatasun zeregiñak, orrelaxe eta orretan amaitu ziran.

Ixillean ba da be egia esan eta erakusten ausartuten ziranak alkarren artean esaten ekien, bear ba da mesede baiño ez zala ama orrentzat gauzak orrela gertatu bearra.

Su ondoan, ba ekian alargunak sarri-sarri itxas kantua gogoratzen eta negarti esan edo ta kantaten, eta ebedeinkatzeko:

Gora Yainkoa
ur eta lur...

Albiste illunak

Erdibitzea egin eta egun bira Getari aldetik jakin

erazi eben, alkaternaz igortzi eta betetako gizon baten ondakiñak batu zituela aitz artean.

Besteen utsune edo errazturik ez egoala ta, atsa erioela mamin zatiak eta eteten ziran aragi pusketak, bereak izango ziralakoan, iñora eroan edo bialtzeko ez ziralako, bertan lurra emonda laga zituela.

Bein orrenbeste jakin ezkeroz, zapi baltz bat geiago ipinten asi ziran eleizan, «sepulturen» gain.

Beartsuen eleizkizuna egin eutsen, irugarren saillekoa: ixilla, laburra, kantu bagako eta argi gitxikoa.

Zein ausartuko zan eleizak estutzen zitun bearkunak beragaitik artzera?

Ogi eta dirutan egin bear izaten zan olakoetan eskintza. Askotan etxearen ondasunak jateko bestean.

Toba'k ez eukan ondasunik ez bere buruagaz be. Gañera gertatua kontuan eukita, bere borondatean laga eben eleizako abadeak ezer nai ba eban egitea edo lagatea.

Illeta egunean beste zeregiñik bagako zaar batzuk batu ziran eta sekula utsik egiten ez eben atso igar eta alargunak.

Olakoetan kapa baltz luzez estalduta, aurreko jarrilekoetara joan bear izaten eben seniderik urrenik be ez zan agertu ez batu.

Ia iru illabete ba zirala edo izan eikezala ori gertatu zanetik eta bake santuan bertan bera gertaera ori lagatea obe zala, geiago aizetu barik, esan eben gizonik baretsu ta jakiñenak. Beste askok lengo gorrotoa barriztatu eben.

Geienen ustez obe izango zan ezer jakin ez ba zan be.

Lotsa, bildur eta zer esan guzurti ta eratuak mindu eta kezkatuten eben gure erriko bizitza.

Barru-barruko kezkak

Erriko oiturei lotuta, Toba, alargun gazte, gizonaren illobitzakoan, «etxeke sepulturaren» belaunikatzen zan ia egunero, eleizaren jai eta batzar guztietan.

Gure eleizan etxeke illobiak, eriotzaren dedu eta lotsa ta ondorenak, bestelako lan askok baiño geiago lotu eta makurtuten dabe.

Arri artetik, arlosa artetik, askotan, bustiaren lizuna agertzen da, batez be mendebal egunetan. Eta atsa zabaldu. Baiña norbere izerdia lez, ats ori bigun igarten da.

Senarraren gorputzik ez eban gordeten bere illobiak. Itxas errietan sarri gertaten da ori, eriotza asko edo ta aldentze asko itxasoaren sakonetan galdu eta eskutatzen diralako, edo ta erbesteko portuen bateko eleiz inguruen baten.

Toba'k gurutze bat baiño geiago eukazan.

Bere kontzientzian ezin iruntsi eban, zegaitik galdu zan gizonari, bere fedeak gizon onen aterpea emon eikioan, eta bere sabelean bizi-bizi sentidu zitun ume koitaduei, bere senarraren eta bere arduraz eta ametse aragitu ziran umetxo arei, bere kontzientzian eta bere maitasunetan bizi barrira elduta egozan arei, senarra gal duta gero be bere sabelean eleizara eroaten zitun erru bako arei, zegaitik egunero entzuten ebillan santuen ba kea eta alkartasuna ukatu.

Norberak egiñiko pekatua ala besteren ondorenetik etorria astun eta garratzago ete zan, ezin ulertu eta erabagita ebillan.

Olakorik aitatu edo agertzen ba eban, abadeak esaten eutsan fede bako edo fede galduko zala; bero eta itsu zaindu bear ebalá sinismena, nai eta askotan ulertu ez edo ta itxaropenik be norberari sartu, edo emon ez. Eta zorrotz agintzen eutsan iñor ez naastuteko bere txotxinkeriekin.

Toba esperantza barik geratu zan.

Eta barriro odolaren berotasunak baretzeko edo ta itzalduten alegintzeko nortasun eta adore barik. Baiña odolean eroianik...

Bere lengo maitekeriekaz gogoratzen zan; olakoe-tan laguntasun premiña zirikatzerá makurtu be bai.

Bi-irutan bidera urten eutsan, gertaera ba litzan lez, Antoni Mari-ri. Edo berak ikusteko aukera emon.

Aren argalkeriak ezagutzen zitun, bere lizunkeriak be bai.

Kezka batek erdi atzeratzen eban. Ba ekian bere aita itxas lapurrekin ibilia zala eta senarraren ondorenetik bizitza ori gorrotatzera eldu zan. Ez eban nai beste orrelako gertaeren baten bere bururik sartu edo aurkitu eragin.

Antoni Mariren etxeakoak, zerbait igarri ebenian, laidoz eta guzurrez bete eben Toba'ren bizitza. Lizunkeriekin naastu ta koipetu. Madarikatu.

Abadeak be estu artu eban, lengo senarraren urte betetzea aurretik alargun bat kale bizitzan astea, ager-

tzea bera be, pekatu zala ta erri legean be zigortu eikeela.

Toba'k, bere ezaupide ta guzti, negar egiten eban ixillean eta gero ta otzago, aspertuago, naskatuago beteten eban gizonaren illobiko egon bearra.

Erriko andrak, ixillean, guzur ori ikusi eta sinistuten eben, baiña oiturea galdu ba leu gora-goraka asiko ziran eta Toba lizunkereri atsez beteta ezetsiko eben.

Urtea bete ta ezkondu zanean, senarrari ondo maitasun gitxi gorde eutsala ta barriketan ibili ziran.

Etxekoak atean ipini eutsezan bere jantzi banakak. Orrela kalean laga eben Antoni Mari.

Leio atzetik eta artetik, edonundik, Toba'k beretzako destaiña igarten eban.

Zabal ziran agoten kantak Euskalerrian eta berak, etxe inguruan norbait ikusten ebanean, kanta orreik gogoratzen ekiazan bestiei ortzak erakutsi nairik. Baiña bere bostean esaten ekian, itxas erri bedeinkatu onetan, bera be agota edo antzeko ez ete zan.

Bere bizi-barria, zar-barri, ikusi eziñaren makurtasun onen mendean asten ausartu zan. Antonio Mariñri etxekoak esan be autsen Azkoiti'n ez ete egoan, lengo senarraren errian, alargun aluren bat andre galdu ori artzeko.

Antoni Mari'k sentzuna euki eban, bere artean, bere kolkorako, andre ori birgin ezagutu ebala sinistuteko. Eta burua makurtzeko. Onetan esker ona agertzen jakin eban, esanak esan eta etxekoen asarre ta ezin ikusien gain.

Antoni Mari'gaz bakarrik ete zitun Toba'k bere gurariak?

Argi bagako tokietan bizi giñan. Ikasi bakoen edo ta gitxi ikasien artean be bai. Gurari asko sorgiñen zirikaldieci aitzakitu edo ta errutzen. Gizonkeriak ake-larretan andratuten, etxetatik urten barik. Ateen narra eta karrakada asko, ixil-mixilean, espiritu gaizto ta akertsuen bultzadei ezarten.

Oraindik etxeak ez euken giltzik ez katerik. Katu zuloak bai beietan.

Ezin sinistu eben erriko atsoak Toba eta Antoni Marin arteko artu emon zintzorik. Ez beintzat ezkontza bat gertuteko asmotan.

Atsoak, eta agurak be bai, asi ziran jardunetan. Ikusi, entzun eta bizi ba litue lez kontaten zituen gertaerak. Berba ta guzti, ots eta abots, asmo ta egite, dei ta kei, arnas eta ats.

Akiliñe Baltza batek berak ikusi ta bizita lez zabaldu zitun, lenengotan misterioz eta gero arritasunez.

Berak ba ekian norbait elduten zala Toba'ren atera. Gabaren illuna gitxi zala, jantzi aldatuz, itxas kapela eta estalkiak barru barruñano sartuta.

Ate asko errez zabaltzen ziran.

Akiliñe'ri entzun:

—Toba!

—Gaur be?

—Ixo!

- Baiña...
- Ez nago oraintxe manu.
- Gangar zatoz.
- Ez; estu.
- Odolik ezin baretu?
- Ez zaite aker. Eragin maratilleari.
- Ezin. Gaur ez. Naiku da, txotxo.
- Ez izenik aitatu.
- Zuk be ez nagizu zirikatu.
- Ez zaitez olako.
- Ezin nei bestelako.
- Norbaitek ikusi neike.
- Nire entzutea galdu leike.
- Mesedez, Toba.
- Joku txarra darabilgu.
- Gaurkoz bakarrik.
- Gaurkoz bakarrik eta etzi barririk...
- Eta atea zabaltzen zan, kirriotsu.
- Katua marrauka.
- Sorgiñen bat dabil katu orrek barruan!
- Doala ori be karkabara bere zeregiñean.
- Bildur naz nire senarra zanaren espiritua ez ete dabillen orrek beregan.

—Itxasoetan ittoten danik ez da abere biurtzen legorrear.

—Baiña katu au arrain zalea da.

—¿Eta?

—Nire senarraren gogoia sartu eikean iruntsitako arraiñen baten bitartez.

—Ain zuzen?

—Miaurik egiten ez daki ta zu agertzen zareanean marrauka.

—Bildurrez.

—Edo salatzeko agurrez.

—Ori esaten ei dau abadeak Liñe auzokoaren ka-tuagaitik. «Orain be alargunak ba dauka lizuna».

—Eta igarri?

—Orretan daukaz buru belarri.

—Berak be eukiko dau zerbaiten egarri.

—Txotxo, zuk eta nik ezin geinke onetan iñor laidotan jarri.

—Besteak be ez gu ain larri.

.....

Eta Akiliñe'ren esanetan, mutilla ta andrea, edo ta gizona ta andrea alargunaren oiean alkartu eta batzen zirala, sekula santan iñok ez jakitekotan.

Eta Akiliñe'k, bere kontuari errazoia emoteko, edo ta ziurtatzeko, ba ekian berekiko zerbait esaten: Bera ez zala sekula atzamarra mixkatzen ibilten.

Alderdi baten Gorozika, mendi gaiñean.

Bestean, itxas ertzean, Asterrika bere parean.

Eta sorgiñak ujuka joaten ei ziran batetik bestera, egan. Eta jentillak oin bat Asterrikan eta bestea Gorozika'n ipini, Ondarroa'ren gaiñean argizko zubi egiñaz. Eta satorrak batetik besterako bideak ei eukezan. Eta okillak arbola baten adarretan ibilten ei ziran Gorozika'ko munak esnatzen edo ta Asterrika'ko basoak alaitzen.

Guzur bat esan neban Gorozika'n,
ni baiño lenago zan Asterrika'n.

Eta gaba eteten zanean, eta erreka gaiñeko laiño ziriña goratzen asi, gau lenean joanda erramutan itxasotik etozanak andra ederren soiñak ikusten ei zituen laiñoekaz batuta gabeko lizun eta likiñak ezin garbitu ta uxatzen.

Itxasoetan urak andi
ta legorrean andrak eder,
gabean ze egualdi
goizaldeko laiñoak dager.
Ai Toba gurea,
ederraren arnasa,
gabeko txoriekin
erabil lanbasa.

Bizkaiko korrejidoreak ba ekiezan olako kantak. Eta aria luzatu edo txikota eteteko, komeni ala, ordezkariak bialtzen zituen erri ta auzoetara. Zurrumuruak leundu ta ixiltzera bialdu ta aker barriak biallatu. Beti be kakua luzatu ta orapilloa naastu. Ori esaten ekian bertoko abadeak.

Aizeak ekarri eban albistea Lekeitio ingurutik. Gabaren orduetan, korrexidorearen aginduz, bere bialduak etxeetan indarrez sartu zirala, nai ta foru zarretan iñoren etxean sartzea edezeiñentzat be galerazota egon, eta amabost andrazkoen gonak aidean billatu zituela eta ez ain zuzen birgiña garbien goratze ta laudoriotan. Eta deilariari be bertso ta kantuak atara eutsezan eta itxasoetan nekatu ta izerditu bear zan arrantzaleari biotza urratu: «Seiñeru zantar lotsagabia...» edo ta ba goiaz... «andra ederrak oian itxita leortar txarrien kontura». Siniste orregaz zein arrantzalek pena eta mintsu urten ez itxasorako joan bearretan?

Eta Lekeitio lez Ondarroa be zirikatu nai izan eben korrexidorearen bitartez. Alargunen ibillerak zaindu edo ta neskatiillen oiturak ikasi ta jagoteko. Edo ta legeari jarraituz: buruko zapiak eta soiñekoen erakusgarriak legez erabili eraziten, zein nor zan danak jakin eta ziurtatu eikien.

Gau baten, Antoni-Maritarren salakuntzaz, Toba'ren etxean atea jo eben, Bateko ta besteko azpikeri ta esan-mesanak indar artzen asi ziranean, Antoni-mari-tarrak euren odola zuritu ta garbitu nai eben. Batetik eurenari koipea kendu eta bestetik Toba eta Antoni Mari'ren artean bitarte baltz eta sakona edegi.

Agintarien mandatariak etorri orduko, iñor konturatu ez eian be, ingurutan ziran zelatari. Ateko bultzada orduko, karkabara eroaten eban leiotik norbaiten itzala igarri eben urteten. Katuak marrauka asi ziran karkaban, inkesa andiak egin ondoren.

Nun sartu zan itzala, nun eskutatu?

Etxe zarrak sarrera bat eta urteera asko eukiten zituen.

Korrexidorearen bialduak ez eben gizon urratsik billatu. Baiña laidopean geratu zan Toba, besteak ger taera au zabaltzen be arduratsu ibili ziralako.

Igarri eban Toba'k etxean eukazala zelatariak eta salatariak.

Gizonak urten ebenian, kumatxoan eukan andra kila bateri musuan emon eta igortziak egiten asi zan

Eta Andre Mari kutsu gabeari, eta Doloretakoari eta Arima bedeinkatuei arrenka igarri eban leio arte tatik egunaren zabaltzea. Eta albakoa jo orduko, goiz leneko kanpaiak ots egin orduko, eleizpean zan bera zer entzun edo ta zer igarriko.

Yurdana gor eta errena ikusi eban bere maki lleagaz tatarrez eta narraz etorten Ez eutsan begiratu ta poztu zan. Poztu ez, baretu baiño, ezer ez ekiala be retzat irunsi ebalako.

Eta Mikela eta Akiliñe ixilleko kontutan igarri zitun, eta lotsaren arrada sentidu eban goitik bera, begi ratu ez ba eutsen be, euretan oartu ebalako zerbait ba ekiela.

Eta Malen entzun eban, brixak urtenda bere bos tean berbetan, asarre eta zital, eta bera bakarrik ez zal sinistu eban, alkarren barri, jakin ez da be, iruditzer ebelako.

Abadea eleizan sartu orduko, Malen joan zan bera gana asarre, korrexidorearen bialduen laidu eta lotsaga bekeriak agertzen. Eta Toba be urreratu zan bere nai gabeak erakusten. Baiña abadeak ez zitun baretu, estutu baiño. Gizonen pekatuak gizonak autortu bear ei ditue ta andrak kontatzen lagundu.

Orrelako giroa egoan errian. Aztutea ba litzake birtute, baiña gogoratzea ez ete litzake egi ukatze?

Illuntze aurrea, geroagoko arratsalde baten. Urteak geroago.

Berez ete etorkion Toba'ri beti bere bizitzari egokiozan bertsoak gogoratzea? Edo ta goian, korretan, agurak ikustean zirikatuten ete zan orretara?

Garratz egoan Batis. Larri. Besteak ixil. Diopil mingaiñari ezin eutsita.

Leioa itxita be, doiñua aldatuta, etxe artetik ba etorran Toba'ren abotsa. Ba ekian bekoak goian nor egoan eta sua zelan biztu.

Ezten luze ta zorrotza euken bere kantak:

Ondarruko gizonak
Deba aldean jostari,
ara joan ezkeru
etxera ezin ekarri.

Etxera ezin ekarri
eta Deban ze barri?
Umekin zu izorri
ta an bestek igortzi.

Trala-trala tralalatan,
sartu ori kalabazan.
Trala-trala tralalatan
sartu galtzak lixibatan.

Etxera ezin ekarri
eta Deban ze barri?
Emen izarak zikin
eta erbestean zuri.

Zuri urdin zikingo,
arrautza biko gorringo,

Kredoa kanta lenengo,
parkatu Jauna urrengo.

Nok nori sosuak baliari ipur baltz! Ori! Ipur baltz!
Entzun? Didarka, garratz, zatar, Batis'ek.

Diopil'ek, zirikalari ta baretu nairik: Aiz, aiz orri,
aterritako aizeak egingo dautsu argi.

—Nai ez dabenak artu keirik, ez dagiala biztu
surik, barriro be Batis'ek.

—Andre orrek eztena sartzen baiño ez daki.

—Orrek be aurea eder eta atzea gonapean, bes-
teak lez. Bereak eskutuan.

—Ba! Andrena zer da ba?

—Zer dan andrena? Munduaren eztena.

—Bateri ziri ta besteari irri, euren beti azkena.

—Esana. Eta egira jo ezkeru, itxurea geiago, azala
fiñago, izatea baiño.

—Ixildu zaitetz zu, Millan. Zer esan zeinke an-
dretzaz mutilzar geratu ba ziñan?

—Nik andretzaz zer dakidan? Bestiak aiña eta
pikua arbolan.

—Zer?

—Ni ez naiz ibili sekula adarretan.

—Esana ba da ba, alako a:

Mutil zar,
gizon erdi.
Neskazar,
andra ta erdi.

Ori egia ba litz...

—Or dago!

—Nori? Ba litz eta ba zan, biak alkarren kasan.

—Ai, ene! Ziarrotzako abadeak ba dakizu zer esaten daben olakoetan?

—Areik be espiritu garbia berbetan eta zikin lekua aldian.

—Or barruan dagon gure parrokoak olakorik entzungo ba leu...

—Berak esaten dakiana: Garbi dagonak jaurti daijala lenengo arria.

—Zer da ba Ziarrotzako abadeak esaten dabena?

—Gizon eta andren kontua tratu bat dala: arrautza tratua.

—Zein da ori? Don Blas?

—Grak eta blast! Zein izan eikean besterik?

Agureak beste kontuetara biurtu ala baretzen asi orduko, barriro be kantu biguna mingarri:

Etxera ezin ekarri
eta Deban ze barri?
Amodiua merke
musu labanen truke.

Nire arrautzak zuringo,
zureak barriz gorringo,
Jaunak zu arrain ei tekoz
izurde baltzan pareko.

Ezkondu nitzan goizian
bakarrik nengon gabian,

ezkontza egun berean
Debatik ziñan lanean.

Debatik ziñan lanean
baitere besten oiean,
Antoni Mari neurea,
ondratu dozu andrea!

Malkoak urteten eutsen asarrearen miñez Batis'er
Beretik atara. Eta berba garratzik eta lizunik ba ekia
bi irutan barriztu zitun ekiazanak.

Alperrik bestek esan jaramon egitea, zirikatze
zala, Toba adoretzea zala, arrotzea, txakurtzea. Zenba
eta geiago aizetu, su geiago egiten zala. Erdi lotsatut
andik alde egiten asi ziran bestek, Batis bakarrik lagata
Au, bere destain eta itsukerikin, ez zan konturatu orre
gaz, alako baten, asarre ta itsu, «zeuk daukazuz erre
guztiak Diopil» esan eta bakarrik egoala ikusi arte

Gertatuaren laburpena

Danak ekien gertatua.

Yokin'en alargun geratu eta andik laster, alargun
tzako lenengo urtea bete orduko, nabarmenkeriak et
txarto esan-bideak egon ba ziran be, legeari ateak za
baldu eragin eta onesprenak eskatzeko, Toba eta Antor
Mari, alkarregaz sarri erdi eskutuan ibili ba ziran be
ezkondu ziran alako baten. Ori bai, familikoen asa
rrean eta ingurukoen berbaroan.

Bilbotar batzuk Deba'n euken euren txalopa, bale
tarako txalopa andia, orretarako gertaerak egiten. Olako

gertaerak denpora asko eroaten eben, eta bake aldi eta itxasondoko bare abaroak aukeratzten ziran. Orretan, beste langille askorekin batean, batez be itxas lantegietako arotz eta tresnagillekin batean, txalopako buru izango ziranak ekin bear izaten eben, euren erara ontzia eta bertako arazoak eratzeko. Antoni Mari be an ebillan, gertakizunetan, gero bertan kontramaixu lez joateko.

Toba alargun geratu zanean, lengo bideak eta ibi-llerak gogoratuz, Antoni Mari'gaz eukitako maitekeriak kimatzen eta txingarpetik arrotu eta aizetuten asi zan.

Lenengo aurra, Yokin'eri aitatasuna ezarri nai eutsena, beragaz ezkondu baiño leentxuago Antoni Marigandik eukitako maitekeri ta aragikerietatik etorrana zan. Au ezkontzara ukatu eta Yokin'eri, etxeko ostatua ezkontzeagaz katiatu eta ordaindu eragin, aren ez jakin-ñean. Baiña biak, Toba'k eta Antoni Mari'k, ba ekien etorteko zana norena zan.

Umea il zan. Yokin'en lenengo asarre eta iges-al-diak be baretu eta bigundu eta lenengo laidoa mututu. Gero bikiak be il. Yokin'eri gertatua, esana dalako, ez dogu barriztuko.

Bakartadearen itzala eukan Toba'k, edo odolaren irakiña. Bata ta bestea, bakoitza bere eran, astunak. Eta Antoni Mari'ri ordea eskatzen ausartu zan.

Igarri eban arek Toba'ren naia. Ukatzeko adorerik ez eban euki. Jausi zan sarean. Koldarkeriz edo ta gurzurkeriz, edo ta bear ba da etoikeriz?

Deba'n lanean asi zanean, ostatuz sartu zan etxeko alabeari ederkatura egiten jakin eban. Uste baiño lenago.

Deba'ko barririk ez zan jakin, ez igarri, gure errian. Pentsatu be ez olakorik. Emengorik be ez an, itxuraz.

An eta emen bizimodu bikoitza eroian mutilla

Emendik Deba'ra beragaz batean osteraka asi ziranak, ez ekien ango ostatuko barririk, bera bakarrik sarzalako an. Origaitik ez eben artu ango bigunkeri labankerien aztarrenik.

Antoni Mari egunez, argitan, lotsa eta errespetu eskatzen eban gazte jator egiña zan. Edozein aña al gintsu eta trebe lanean. Bere zeregin eta ardueta zeatza. Asmotxa, eta luzera ikusten argi eta azkarr Zorrotz eta giartsua. Endaz be familia on eta lots dunetik etorran, itxasoetako arrantzan izen andiko etxetik. Barru nai urrutietako itxasoetan, beste edozeiña aña nortasun eukenetik.

Illuntzetik aurrera, gabaren itzalpean, su-angil baiño ziriñago sentiduten zan. Gaitz izaten zan arbako gabetan, kurtzailluen argiaren etenak ate eta lei zarren artetik igarten ziran kalietan, andik igaroten za itzalaren jokera eta tajua norena ete zan igartea.

Adorea bear zan leioetan kaleko itzal eta keriza ikusten egoteko be. Illunaren astuntasunak zotin eragiten eban bakoitzaren irudimenetan, eta gabaren esku tuetan aidean ebiltzan irudien espiritu zitalak bildurt sartu.

Gabea, edozer be, ernai eta zelatari egoanare aurka gertatu eikean, eta egiaren urratsik barik, txo txinkeri, sorginkeri, mamukeri, eta amets gaizto ta gu zurtien irudipenezko mundu baltzean sartu.

Egia, ikusia, zigur kontatu zeikeana, norbere kaitez etorri eikealako itto egiten zan, eta askotan, norber konturatu barik sorgindua izan zala ezpaian geratu

Zabal ebiltzan sorginduen kontuak. Askok ekiezan batak edo besteak igarotako estutasunak, astiñaldiak eta lotsariak. Eta askok ekien baita be, jakintsu mutu asko egozala leio zarren ostean edo ta orma arrakalatuen babesean.

Origaitik, jakinda be, obe zan zalantza eta ezpaian laga, lotsagarritzko erantzunen bat ez artzeko. Alaz eta be, ixillean, eskutuetan esan eta zabaltzen ziran autu asko, laster jakiten ziran, batez be odolekoen artean.

Azken gaba?

Bestetan Antoni Mari izaten zan bitartea eta aukera billatu eta artzen ebana amaren ixil eta eskutuan Lore'ren lo-gelara keixu urreratu ta sartzeko.

Ostatuan iñor egoanetan, ganbarako gela baten lo egiten eban Lore'k, eta ori laster igarri eban mutillak ostatu aretan sartu zanean.

Iñoiz gela aretara joaten ekian, gau ondorenetan, edo eguna argitu baiño lentxuago, batez be aize edo euri egunetan, kaleko zaratak barruko egurren oiñotsa naastuteko eran.

Lore'k ez eutsan arrera asarretsurik egiten.

Ama zarrak sukalde atzean eukan bere astegunetarako oea, ostatuko tresna eta jantzi eta eunkiak gordeten ziran tokian.

Lau gela eukazan ostatuak lenengo eta bakarra zan oin zabalean. Gela zabal eta aukera bakoak. Zenbat lagun, ainbeste sartzeko aiñakoak. Baiña egun bakarretan ezik, sarri bakarrik egoten zan gure mutilla.

Gorago, tellatu azpian, beste etxe-gela edo egoera txiki bat, apaindu bagakoa, komoda zar, kutxa eta kuadru eta tresna atzeratuen artean, oe bakarragaz.

Argitzat, tellatura emoten eban leio estua, maki-llazko sarea aurrean eukala, bertatik katurik edo piz-tirik etxera ez sartzeko asmotan an ipinia.

Ostatuan bizi izaten zanetan, goizaldeak eldu yakozan, iñoiz, igarri barik, Lore'ren gelan erdi eskutatuta, eratasun andi barik, ixilleko kontuetan eta eskutuko samurkerietan.

Lenengotan bildur agertzen zan Lore eta keixu. Lotsatu eragin nai ez, baiña deadarka uxatu eragiteko eran, larri eta zurbil. Amaren bildur? Gero, atsegiñez artu ez da be, ez zan ausartuten Antoni Mari'ri ate atzean ostoporik ipinten, bear ba da zela-ala ostopo orreik aldentzea jakingo eban gaitasunik ukatu ezin eikiolako.

Euki eben iñoiz bero-aldi amorratu eta samur giro gozo eta arrisku ardurabakon bat be.

Neska liraiña zan Lore. Ostatuan gizonekin jardunean ikasia. Txutxu-murkada edo zirriren bateri, zorrotz eta zital erantzun edo ta destañez bastertu eta orrelako gertaera eta uneak bertan bera makaldu eta galdu eragiten ekiana.

Baiña Antoni Mari'k mandazaiñak eta merkatariak eta bestelako langille edo bidazkariak baiño ten geitxua-go egiten eutsan.

Igarrita eukan edo erdi sinistuta egoan bein txalopan gertatu eta erbesteko itxas andietara joatean, ostatuko neskatilla etxean gelditu bearko zala bestelako aukeraen baten zai. Eta urteak loratzen igarria zan.

Ba eukan emakumentzako berezko ekarri atsegin eta samur bat. Askok eukiten ez daben doai eta duintasuna be bai. Origaitik makurtu ete zan Lore, makurtu eta bigundu, eta jolastu eta samurtu, eta mutillaren naikeriei zabaldu eta eskiñi?

Gau aretan, amaren aginduz laztan azal bat emotean, eta gorritu, ama arek ez eban pentsatu, laztan gartsuagoak ez ebela lotsatu ez gorritu ez atzeratuko bere alaba liraiñik.

Udabarri aurreko gau gozoa zan.

Geletara joan eta Lore berean, lotarako asmo barik, lotaratu eziñez, kezkaz begira ebillan leio txikitik zear, nora ez ekiala, izarrei, izadiari, ingurutako illun eta kerizpeari, etxe ondoko itzalei, edo ta etxe barruko illunera, erdi zabal, bestetan baiño zabalago laga eban ate artetik zear, bake eta egun bare aretan zarata txikienik be oartu ez eikean iñor urreratzekoz.

Aitzaki bat edo bestez, amaren gelara jatxi zan. Ama, bere gaueroko errezuak egiten billatu eban. Aitzakitzat zapi bat artu ta goratu zan. Bigarrenez be jatsi zan, eta erdi konkortuta billatu eban ama, oian etzanda, jantzirik be aldatu barik. Gau beranduan edozein ate joten agertuta be, jantzita lo egiten oitua zan ama. Igarri eban laster loak gainduteko eran egoala.

Gorakoan, ez zan ausartu Antoni Mari'ren gelan oles egiten, ia orretara eldu ba zan be.

Beste ordu erdi inguru bere gelan egon zan. Pentsamentu eta kezkaz, larritasunez eta ittotasunez. Jantziz arindu be egin zan, guriago egoteko.

Agurreko eguna eta ain zuzen be gau aretan ez ete zan mutilla beregana agertuko? Maitasun kanta bi-

gunak be gogoratu zitun ametsen zorotasunean eta negar
ixilla be egin eban mara-mara.

Gau izartsuak ate eta leio erretenetatik igortzer
eben argi makalagaz baliotuta, bera ausartu zan ba
batean, sekula ez moduan, Antoni Mari'ren gelara
urreratu eta sartzen.

Iñoiz sentidu ez eban dardaraz eta bildurrez
igaro zitun maillak, goitik bera. Gelako atea leun-leur
bera igaroteko aiñan zabaldu ta sartu zan. Jarrileko bai
ostopo billatu, jo eta narraztu, egaldu eta oe ingurura
eldu zan.

Erdi lotan egoan mutilla, baiña konturatu eta oartu
eban ordukoxe, besoak zabaldu, alkartu eta ixillear
geratu ziran une baten.

—Dardaraka zagoz!

—Bai.

—Bildur?

—Benetan.

—Zeñien bildur? Nire?

—Ez.

—Joango ez nitzalakoan?

—Ez dakit.

—Baretu zaitez.

—Eta barriro besarkatu, laztandu eta alkarri be
gira lotu.

Laztan eta loxintza, musu eta igortzi, sekula ez bestean eri eta bero agertzen zan Lore.

Eta negar eta sispuru, inkesa eta zotin, iñoiz ez zan eskiñi beste baten mende ain errez.

Antoni Maria'k lenengo sartuerako arrigarritasuna mendetu eta gaindu, gero negar muxingakin gogaitu eta Lore besoetan eukala, irudimena argitzen igarri eban. Biotza eta burua aldebanatu ziran, guraria eta gogoa bakoitza bere bidetik asi.

Igarten eban, ikutu ala, Lore, jantziz arinduta, guri-kerien garrez joan yakola. Era berean irudimena Toba'gana aldentzen yakon eta aregazko aragiaren tengadak be gogoratu.

Malkoak eta zotiñak ziran ordurarteko berba bakar-rak. Baiña ba etorran ekaitza eteten eta bare-aldia igarten.

—Antoni Mari!

—Laztan!

—Itz egin bear dogu.

—Zetaz?

—Ba zoaz.

—Bai.

—Eta bakarrik geratzen naz.

—Amagaz.

—Zer daike amak nire premiñetan?

- Nik aiña.
- Eta nire premiñak bionak ba dira?
- Zure ta nireak?
- Zegaitik ez?
- Leike.
- Sinistu eidazu.
- Esan.
- Ez nazu ulertuko.
- Ezetz?
- Zure zurea naz.
- Benetan?
- Oso osorik.
- Eskerrak.
- Egitan diotsut. Bai.
- Nik be, benetan, eskerrak.
- Otz billatzen zaitut.
- Ni?
- Ez dirudizu bestetako.
- Betikoa naz.
- Nirea da akatsa.
- Zerena?
- Gora etorten ziñanetan...
- Asarratzen ziñan.

—Ez da dana egia.

—Erdia ez dakit. Beste erdia bai.

—Gaur ni izan naz etorri naizena eta, jakiña, ez nitzan etorri bear. Ala, ez?

—Zegaitik ez?

—Oker pentsatu eragin daiketsut.

—Izan lei.

—Zu zirikatzeraz etorri naizela pentsatu zeinke. Zu guritu eta... Ori pentsatu zeinke, ez?

—Nik ez. Zuk diñozu.

—Beste baterako lotutera.

—Ez dot pentsatu olakorik.

—Eta alaxe da. Ezin ukatu. Gaur borondate osoz zugaz egotera etorri naz.

—Ba dakit.

—Zetatik?

—Ikutu ala igarten nago.

—Pozik?

—Bai.

—Antoni Mari...

—Maite...!

.....

.....

—Ez dakit ba dakizun.

—Esan.

—Ez dakit poztuko zarean be.

—Zetaz?

—Gogoratzen?

—Geiago agertu ezik?

—Gogoratzen ez?

—Esan ezik...

—Kandelari egunean... Ba dakizu. Nik ez nebanai. Asmorik be ez neban. Etorri ziñan. Bestetan lako garrez eta berotasunez. Bear ba da pattar pixka edanda. Eta ba dakizu zer eskatzen zeustan.. Gogoratzen ez?

—Bai.

—Nik ez neban nai. Ondo dakizu. Ez dozu ukatuko. Ezin ziñei olakorik. Eta zuen amaren esaera b gogoratzen zendun, aspertuteko aiña.

—Bai. «Andrak andra andi Kandelariotan di agiri».

—Ori. Alaxe da.

—Eta?

—Bestetan ez lako erregalu bat nai zendun. Gogoratzen?

—Oraindik gogoan?

—Nire neskatil izatea zuri eskintzea nai zendun. Ondo dakizu beste iñor nigaz ez zala ibili. Nik ez nebanai, ondo dakizu. Nik baiño indar geiago zendun.

—Zeuk be lagundu zendun.

—Zer egingo neban, ba, azkenean?

—Pozik geratu ziñala be autortu zendun.

—Nai ez da be makurtu nitzanean. Ondo dakizu ori. Ez dozu ukatuko, ez?

—Eta?

—Bigarren illean uts.

—Zer?

—Igarri.

—Zer igarri?

—Zure frutu baten zai nago.

—Nirea?

—Bein ontara ezkerro, zure eta neurea, jakiña.

—Lore!

—Itxaroten zendun?

—Ezin lei.

—Nigan zerbait gertaten zala pentsaten neban.

—Eta gaur arte esan ez.

—Ba dakizu olakoetan ziurtasunik ez dala egoten.

—Eta gaur bai?

Ezin lei. Ez dot nai sinistu.

—Bigarren utsa, Antoni Mari. Ez dot uste... zailantzan ipiniko dozunik, ez nik be lagako zaitudanik. Ez dot uste nire ezpairik euki zeinkeanik.

—Baiña Lore...

—Ezan geinke geiago eskutuan ibili. Ezin geinke ixilean ibili. Zu ba zoaz.

—Bai, ba nua.

—Eta ni geratzen naz, ni geratzen naz bakartadean sekula geratu ez naizen egoeran.

Ordu luzeak.

Luzaro egon ziran biak geldi.

Alkarri begiratzen be ez ziran ausartuten. Ez zan lotsa, ez bildurra, ez eta amorrua be. Olakoetan gertaten dan egoera.

Ixillean igaro zituen minutu batzuk, kontzientzia astundu edo ta barrua berotu eta irakiten igarten ebela.

Bat batean, muti:aren besoak bere gainetik kendu, putsekin jagi eta bere gelara joan zan Lore, kirioak etenda, nerbioak eraginda, negar eutsi eziñari emonda.

Antoni Mari'ren lenengo arradea iruditzen eban, baiña ez gero ain otz eta mutu geratuko zanik.

Lenengo zalantza eta ezpaien ondoren, erruki agerpen bat, edo betetasunezko eskintzaen bat itxaroten zitun Lore'k. Gertaeraz konturatu orduko, biozkerien bat, gerorako ziurtasunen bat, bere ittotasunetik urteten lagunduko eutsan zerbait.

Eta orren orde, larrialdi astun bat igarri eban Antoni Mari'gan. Mututu eragin eutsan kezka larria.

Negar eta negar, milla pentsamentu erabillazan

buruan, bata bestearen gain, kendu ezinda, gaindu ezinda eta berak nai ebana biribildu be eziñean.

Negar aldi bat eten, larrialdi bat baretu, burutasun batzutatik urten eta begiak zabaltzean, malkoen lainoak igortzi eta arintzen alegintzen zan, atera zigur begiratzeko, norbait an ikusiko ete eban gurariz.

Sinisten be gaitz beretzat an iñor ez agertzea.

Orduak aurrera. Egunaren izpiak be laster tartetatik sartzen asi bear ebela igarten zan.

Ogeitazortzi ordu barru gizon guztiak gertu egon bear ziran txalopan, biaramonean gertaten zalako mare puntarik bizienetakoa eta a galtzerik ez zan komeni atzerakuntza andiren baten arriskuen ez sartzeko be. Ordu orretarako, bederatzietarako iragarrita egoan txalopa bedeinkatzea be, oitura zan lez.

Baletara urteten eben txalopetatik batek ez eban lagaten porturik gertakizun guztiak egin eta ondoren eleizaren onspena artu barik.

Une berean, abadeak kapitanari errietako ainbat oitura gogoratzen eutsazan. Batez be arrantzaleak eleizarekin bete bear izaten zituen eskintza eta tratuak. Baleen mingañen irutik bat eleizari eskiñi bear eutsen, bere onurekin eleizak eta eleiz gizonak zaindu al izateko. Eta urdailak gordetean tripa barruen onurak be gorde bear zituen eleizaren barruan sortuta egozan kofradien laguntasunerako.

Beste txalopak baiño atzerago ebillan, urte onetan, «Espiritu santua eta Arimak». Alaxe eukan izentzat txalupa onek. Beranduegi.

Euskal txaluparik geienak Udabarri aurretik joaten ziran, Epail edo Martiaren lenengotan. Ia ille bi bear

ziran Terranoba'ra joaten. Arrain toki orreitan Maiatze rako izotzen arriskua arintzen zan eta lau illabeteko arrantsua egitea oiturazko zan, bestelako gertaerarik bitartean sortu ezik.

Irurogei lagun eroiazan: Kapitana, pilotua, kon tramaixua, osagillea eta arotz maixua. An egozan ordu rako danak tosta gainean, beste gizon eta lagunei begira Bakoitzak bere tokiak aukeratu eta jakin bear zitur aurrez.

Gure mutillak azpalditik ekian berea, bera zar izan be orretan arduratu bear zana-ta.

Ausartuko ete zan Antoni Mari Toba'ri agur egir barik ainbeste illebetetarako joaten?

Lore'ri esan eutsan arratsaldean Ondarroa'ra joar eta gau berandu elduko zala, besterik ezean ordu batzuk beragaz igaroten.

Toba'ri agurra.

Toba'ri esanda eukan Antoni Mari'k, egunak irabazi nai zituela itxasora urteteko. Larri ta keixu ebiltzala, ezelako astirik barik orretan. Ez gau eta ez egun ez eukela atsedetik. Besteak baiño beranduago ebiltzalako, gabean gau berandu lotara ta goiz-lenean barriror txalopara joaten zirala. Eta lana sendo, geldiene barik, prisaka.

Origaitik, azken agurra be, ostera onetan, bat-batekoa izango zala, ariña.

Alaxe, esanak gogoratuz, egin eban osteratxo
errira.

Otz,

Tresnarik geienak aurrez batu ta eroanda eukaza-
lako, ez eban orretan zetan denporarik galdu.

Etxeko jardunak, senar emaztien jardunak... barri-
keta sentzubako, azal eta ariñetan amaitu, dana azken
orduko estutasunak sits eta bits gogoratzen eta gaiz-
tetsiten.

Asarretu be egin zan Toba beragaz, esan eutsanean
illuntzean Deba'ra joatea premiñazko ebala.

Barruko arrada barik, baiña itandu be egin eutsan
gurariak asetzeko bera baiño gazteagoen bat ete eukan;
bera ain arin zimurtu eta lizundu ete zan, beretzako
guraririk be ez eukiteko; lengo zezenak zelako pentsua
jan ete eban Deba'n ain ardurabarik mantzotuta etorte-
ko. Eta ainbat orrelako. Onetan Antoni Mari bera be
ez zan motel geratu. Asarre biziz agertu be bai, bien
artean susmo txar eta nastea ipini nairik ebillala-ta
azken orduan. Konfiantza be galdu eban itxura artzen
eutsala.

Orrelako erantzun eta aitzakiekin, errezago estaldu
eban bere oztasuna.

Toba ez zan beretik errez urtetekoa.

Asarre aldietan lenago bigundu, edo errukitu, edo
samurtuko zan gizona bera baiño.

Oraingoan, bata bestek bakoitzarenari eutsi ta
orduak bete ziran, arratsaldeko orduak geienak kalean
igaro be gizonak Lagun artekoak agurtu ta eurekin az-
kena emoten.

Illuntzean, etxean, alkarri musu bana emon ba eutsen be, otz, siku, azal eta destaintsu izan zan

Kontseju batik ez, ametsezko itz batik ez. Ez geroari begira, ez eta egungo egoerari be. Geiegi zaar-tutako andre gizonak irudien.

Toba'k atea itxi eban. Ez eban leiorik zabaldu. Ez jakin barrutik begiratzen arduratu ba zan be.

Antoni Mari'k Deba'tik eroan eban zaldia azkatu, ta gañean jarri barik, oiñez egin eban etxe ondotik bide zabalera artekoa.

Deba'ra eldu, gelan sartu, atea itxi ta gelatik ez eban iñora urten. Ez lorik egin be, Leio artetik eguna zabaltzen igarri ebanean, jaiki ta kaleratu zan. Buruauste bikoitza zan berea.

Etxekoandre zaarrari, bere gela aurretik igaroeran, atea jo ta «agur, etorri arte» esan eutsan erdi bildurti, erdi mintsu. Barrutik, oartu ebanian, egoteko, agurtzeko egoteko, baiña... barriro «etorri arte» esan eta alden-du zan.

Bere joera ez zan iges egitea. Damu bizi baten, ittotasunik ezin kenduta, mintsu eioan. Txarto egiñaren astuntasunez.

Bedeinkatzea.

Berrogetamar gizon, sasoi sasoiko, ontziaren malladietan ikusten ziran, edo ta maste nausietako bakoitza-

ren egon lekuetan, bakoitzak bere zeregiñeko tresnak eskuetan erabili, euren lokarriak ikusi, korapilloak arakatu, lotuerak ziurtatu eta abar.

Kapitan pilotuen inguruetan, bost mutil, oraindik bizarrak be urten bako mutil guriak, amalau-amasei urte bitartekoak, nok ze aginduko prest, aginduak eta oarrak bixkor eta argi eroan eta zabaltzeko. Txalupetako morroi txikiak ziran.

Mare puntako ordua ba etorran. Ontzia, belak zabal, gertu, goiz aize leun eta bigunari musuka.

Ondarrean, ainbat erritar, urtean bein eta ez beti gertaten zan orrelako urteeran bat ikusi eta bertan eioazenei agur on eta anaikor bat egin nairik.

Erriko abade nausiak, bikarioak, atze eta aurre, eskuma eta esker bedeinkatu bear eban txalopea. Aizto txiki bategaz, ertz zorrotzdun kutxilloagaz kurutzearen ezaugarria irarri, alderdi bakoitzean, toki bakoitzeko onespena egin-ala. Aurrean, korasteian, barru eta kanpo egin eban lenengo. Esker-eskumatan gero, gerri-gerrian. Eta atzean azkenengoz, egurrik urteenian.

Gero, oiturean jarraituz, ixiltasun sakonean bere abotsa entzuten zan Aita Gurea errezaten, berak esan eta besteak erantzun. Ez bakarra be. Nazaretar Jesus'en goratzez eskiñiz lenengoa. Arimen oroitzez gero; beste bat geiago ezaupide edo oneraspeneko santuen bitartekotasunez. Beste bat itxasoak egin zitun Jaunari, eta beste bat ekaitzak menderatu eta baretzen dakianari; Beste bat geiago deabrurik eta deabrukeririk ontzian sartu ez dedin, eta espiritu okerrak biderik galdu ez eragien bat beiago. Une onetan konjuroen otoitz bat be esan eta egin eban latinez. Beste bat oraindik be sinisterik ez egoan tokietatik gogai eta pentsabide oker eta gaiztorik ez ekarteko, edo ta erlegiño santuaren

aurkako siniskerarik ez batzeko. Eta azkenean, Itziarko Amari Agurra, Salbea:

Agur Itziarko
Ama maite ederra,
zeruko atea,
itxasoko izarra.

...
Begira ezazu Ama maitea
gu nola bizi geraden,
peligro eta tentaziua
besterik ez dago emen.
Zure laguntzaz eroan gaizuz
nai dogun portura. Amen.

Abadeak bere eleiz jantziak kendu, kapitana eta beste ingurukoak besarkatu eta legorrera oiñak luzatu orduko, urteera gertuta egoan.

Aurrez, soketatik tengadaka batzuk, ibai egaleko arri artea gaindu arte; erramutan besteak, arraunetan kapitanak agindu ala; orrelaxe ibai egalean, geldi geldi; mastetan egozan gizonak be arduradunen deiak eskatzer eutsezan bela eta oial nausiei zabaltasun egoki eta eratsuago emoteko gertu.

Esku eta zapiak jaso ta eragiñez agurtzen eutsen legorretik. Ontzitik al bestean erantzun. Azkenian, azken agur lez, kañoi txikitik sutots batek urten eban zaratatsu. Kañoia ondo ete egoan ikusteko ondo etorran Itziarko Amari eskiñia zala ta egiten zan dunbots edo kañoi ots ori.

Nekez galtzen zan begietatik ontzia, mendi ostetik be luze ikusten jarraitu. Ordu luzeak bere irudia zeatz galdu orduko, baiña gizonak eta jenteak gero ta urrunago; itxasoaren bide zabaletan ontzia be gero ta txai-roago; «Espiritu santua eta Arimak» gero ta aizetsuago.

Inguruko errietatik be, itxas errietatik be, ba ekien begirale ugari egoten. Ainbat errietako mutil eta gizonak joaten ziran bertan eta erri guztietan jakiten eben urteeraren barri.

Matzaku (Matxitzako) muturraren bidean zuzendu zan.

Arriskuz betetako osterea zan oraingoa.

Ez ekien txalupak banaka urteten, bost seinako aldretan baiño, alkarren laguntza eskintzen, premiñarik gertatu ezkeru.

Ez ekien Iger aldera joten be. Españetako eta Frantzeko erregeak alkarregaz gerratan ibilten ekien, eta arriskuak geituten ziran olako giroetan.

Egun onetan, aize makala egoan. Udabarriko egun bare eta giro leuna igarten zan. Origaitik, illuntzean oraindik, Matzakutik ondo ikusten ziran bere belak eta gaba jausi ala argi banakak be igarten ziran bere bidean.

Dudarik ez illuntzeagaz batera kapitanak, danen aurrean, otoi luzeak egingo zituala, biotz minberatuak nasaituteko be.

Ama alabak.

Lore portura joana zalakoan ebillan ama.

Bere artean pozik, alabak ardura ori artu eta adiskidetasuna erakutsi nairik joango zalakoan.

Baiña Antoni Mari'ren gela jaso eta garbitzeko gora

joan zanean, zarata lakoa entzun eban goian. Oartu, zelat egin eta alaba aurkitu eban.

Negar asko egiñaren urratsak igarri eutsazan amak Lore'ri bere begi gorrituetan eta betondo orietan. Errukia artu eutsan. Igarri eutsan naigabea ezin ittota ebillala.

—Mutil ona izan da.

—Besteen antzeko.

—Atsegin yatzun?

—Zegaitik berari itandu ez ni bere atsegiñeko ete nitzan?

—Ori be egin neikean.

—Eta erantzuna ze izango zan...

—Uste baiño obeagoa eikean.

—Ba! Danena. Gaur bai ta biar ez.

—Zarrak esaten dakiena orretara: «Piarres, atzo bai, biar ez, ez nago negarrez andrea bearrez.

—Ziur egon ortaz.

—Ezin ukatu bere juera sentidu dozunik.

—Ps!

—Mollara joan bear ziñan agur egiten, nasa aldera.

—Zetarako?

—Orrelako oroitzak betiko geratzen diralako, neska. Bai zuri ta bai berari.

—Leike.

—Eta ez jakin...

—Zer?

—Ak eta zuk zenbat urteren aldea daukazue, ba? Danetara be zenbatena, bostena?

—Urteak egiten al dabe dana gizakien artean?

—Dana dala, beti aukera eskatzen, etxean euki bete-beteko aukera ori eta...

—Zer eta?

—Arraiñak igaro ondoren sarea uretara.

—Ama, eta aukera ori nik ala berak eukan?

—Mutillena jakiña da. Ten ezik aidean ibili. Ba dakizu berak, bere lanekin, ezetarako astirik be ez eukala.

—Astia, ama, artu egiten da nai danean.

—Ori be egia izan lei, ala danean.

—Da ta. Neuri esan!

—Nik dakidana da kaiolan euki dogula txoria eta iges egiten laga dautsagula.

—Ala diñozu. Iges egiten laga dautsagula.

—Ori ez ukatu beiñik bein.

—Ia ba. Zure esanetan, orain ur andietan arrain andia. Ez?

—Jakiña.

—Areri be, beste askori lez, ari baltza ez yako faltako soiñeko zurian.

—Aitzakiak? Ai neska, alako baten be...

—Bai, alako baten kakua.

—Ia konturatzen zarean eta argitu. Urteak aurrera eta matsa geldi, beste askori lez gertatu barik.

...

...

Beian, atean, deika ebillan norbait.

Oraindik eskalletan bera, amak zirikalari gogoratu eutsan: Zeugaitik ez dagiela esan beintzat «ostatuko neska eta bide ondoko arbola, bardin».

Deia.

Atean, mutil txiki bat urduri.

On Paskal'en partez, Lore, aztu barik, bere etxera joateko illuntzean.

—Nok esan dautsu?

—Ba On Paskal berberak.

—On Paskal'ek ala bere arrebak?

—On Paskal'ek ez dautsut ba esan?

—Eta zetarako?

—Niri itandu ori?

—Ez dakit ba.

—Nik be ez.

—Eta noiz joateko?

—Illuntzean.

—Illuntzean, noiz?

—Berari itandu.

—Berak ez zaitu bialdu, ba?

—Agindua bete dot nik.

—Noiz libre egoten dan be...

—Ba arto esnea artu ondoren kartetan jokoan ibiltzen da, eta jokoan dabillala ez dau inor artu nai izaten.

—Ene ba! Noiz ete da ba?

—Gero jokoan dabillala Arimenak joten ba dautse, beriala apaldu nai izaten dau.

—Geldiro esan, ia tartea billatzen dogun.

—Afalduta gero errezuak egiteko be ba daukaz, ordu erdi onak emon bear izaten ditu orretan.

—Orrela ba da, biar goizean meza ostean joatea izango da egoki ta zuzenena.

—Niri agindua da errekadua aztu barik emoteko eta ain zuzen be illuntzean joateko esateko.

—Bai baiña denporarik ez ba dauka... Eta zetarako esan dautsu?

—Barriro?

—Ez naz konturatu.

—Niri be ez dauka zetan aitatu.

—Eta Lore bakarrik, ala ni be bai?

—Niri esana ori da: Lore'ri esateko.

—Zetarako ete da ba?

—Andrea...

—Norbait egon da ala?

—Nik ez dakit ezer. Lore zeure alaba da, ez?

—Bai.

—Eta zer da, neskazarra?

—Txotxo, bizarrrik be ez daukazu ta...

—Ba neskazarra ez ba da, bear ba da, ezkontzeko paperak egiteko izan lei.

—Bai, esatea be! Jaungoikoak argi! Ara berau, une mokoia, iñori pongolak joten.

Mutillak agur orduko, gora igo barik, eskalleren zuloatik deika: Entzun, Lore? On Paskal'ek illuntzean beregana joateko.

—Ni? Zetan?

—Nai dozu neu oraintxe bere arrebarengana joatea ezer ete dakian?

—Ama, illuntzean esan dau?

—Ala.

—Ba illuntzerarte, geldi etxean.

Artzaiña eta ardi zarrak.

Illuntzean, egoki iruditutako une baten, bikarioaren etxe aurrean egoan Lore.

Milla alegin egin eutsazan amak, lagunduko eutsala-ta. Andre zarrak gogoko izaten dabe parrokoagaz

egoteko aitzakiren bat. Baiña Lore'k ez eban onartu amaren laguntasunik.

Kezkaz ebillan ama, bazkalondo guztian deia zetarako ete zan-ka. Lore'k ez eutsan dei orreri zegaiti berezirik billatzen. Orrelako deiak, len be euki zitun abade orregandik.

Askok artzen zituen abadeak bitarteko edo mandatari maitasun irristada sentiduten ebenean, lenengo lotsaria iñoren kontura lagata, abadeak onetan lotsaririk ez eukela zetan eroan sinistuta.

Edo ta etxe ezkontzaren bat egitea komeni zanean, edo ta, besterik ezean, abadeak eurak be sarri erabilten eben euren burubidetan ezkontzak egin edo eratu naia, edo ta baita premiñaren baterako, ezetan asi aurretik, euren menpeko neska-mutillen gogoia ezagututa euki naia.

Oraintsu abade onek Lastur-go mutil baten guraria agertu eutsan gaur lako dei baten. Ama zarragaz baka-rrik bizi zan mutil ori eta ba eukan etxea, errenta eta dotea, kezka barik biziteko aiña, esaten ebenez, eta esku-zabaltasun be bai beragaz lotzen zana, edozer gertatuta be, ondo lagateko.

Ameriketako Indietatik urre ugari ekarria zala entzutea ba egoan eta ala zan. «Dana aukeran, neska falta», esaten ei ekian berak.

Lore'k abadeari erantzun eutsan, mutil orrek beti eukala zerbaiten utsunea eta falta. Ezaguna zala mutil orren beste esakera bat be: «Indietan neskak aukeran, oillarraren almena falta».

Indietako neskatxakin antzututakorik berak ez ebala bear. Indietatik etorten ziranak gaixoz eta zorriz beteta etorten zirean entzutea eukala eta ori esanda

ez zala iñoren famarik galtzen edo ta loituten, agirikoa zalako eta erri guztiaren aotan ebillalako.

Abadeak ugarra kendu nai izan eutsan entzute eta siniskera orreri. Emengoak be, Indietara joan bakoak be, ba ekiela astotxo edo kirten samarrak urteten, eta aukera bardiñean, burukomin eta estutasun bagako bizitza be aintzat artzeko zala artara jarri ta aurrera-tzean.

Eta zuritu nai ez da be, —berak eskuak garbitzen zitun onetan—, erakutsi nai izan eutsan mutillaren gogoia egizkoa zala eta bizimodu on baten sartzeko gurariaz egiña zala eskabide ori.

Lore'k, bigun eta leun, merkatari bategandik ikasitako bertsoak agertu eutsazan:

Inditara joan nitzan
urre gorrien garrez,
urre gorrien garrez
ta ango birgiñen aizez.

Etxera biurtu nitzan
ondo fardata urrez,
ondo fardata urrez
ta andre eriz tatarrez.

Etxea apaindu neban
tellaz bera dotorez,
tellaz bera dotorez
baiña ni makur unorez.

Lau urte egin Inditan
ogeiren bizi truke,
ogeiren bizi truke
ta orain zartzari musuke.

Barriztu eragin eutsazan abadeak bertsuok. Entzun ala kopiatu be bai berak. Nai eta erriaren esakera eta

agerpide oneik beretzat eskutukorik euki ez, berari be komeni yakozala orrelakoak, askotan sermoiak baiño indar eta arrera obeago eukiten ebelako buru-uts eta gogo gaizo askotan.

Gero, Lore'ren ezezkoa ain bete eta ziurtzat igarrita, beste norbait ezagutzen ete eban orretara makurtuko zanik jakin nai eban. Lore'k erantzun be bai berak pilosofi gitxi ekiala, baiña mundu onetan asgura bagakorik, odoldunen artean, ez ebalu uste iñor egongo zanik.

Abadeak bat batera ebagi eutsan:

—Kontuz.

—Zegaitik?

—Berkak erabili errespetuz.

—Ez dakit nori ukatuz nabillen.

—Berben esan naia, nun, noiz eta zelan, alan.

—Bai jauna. Sinistu kredoa eta zaindu fedea.

—Ori egia.

—Eta beste guztia, sorginkeria.

—Zer?

—Esana beindik aidean ez da ibiltzen ba?

—Ia barrero...

—Pekaturik esan ba dot, emon penitentzia.

—Arro!

—Arro ez, makur. Eta besterik ez ba da, agur.

Lenagoko jardunaldiak gogoratzen, zoli eta zital asi eban abadeak bere deiko batzarra. Akulari, erruki barik, min emon nairik.

—Indietatik datozenak zorriak dakarrez.

—Ala diñoce.

—Abadeak euren etxetako neskameak izorratzen dakiez.

—Jakitea leikena da.

—Eta egin. Ez?

—Nik ez dakit olakorik.

—Esaten bai.

—Nik ez neban olakorik esan.

—Ukatu?

—Bai.

—Nik entzuna ukatu?

—Gaitz entzun eikean esan nebana. Nik ortik zear dabiltzan bertsuak kantatu nituzan.

—Egizkoak, ez? Beata txotxiñen bateri sinistu, ta guri ez?

—Ez neban aitatu be sinisteko gauzak ziranik.

—Dana dala. Eta ondarrutarrak zelako bertsuak kantaten dituez, ba?

Esan, esan.

—Areik be dakiezanak, jauna.

—Azkuredunak ala azkure bakoak?

Beriala konturatu zan Lore nora eioan On Paskal. Gorritu zan. Izutu. Goitik berako arradaz, nun egoan be ez ekiala geratu.

—Nik be ez dot ezagutzen este zikin bagako andrarik.

—Esan be ez dau iñok egin orrelakorik ez da gonik.

—Eta burukomiñik sortu eragiten ez daben neskarik be ez.

—Ez beti jakitez.

—Eta orrelako burukomiñak ez dira kentzen ez Ondarroako Antiguako eleizari kanpaien artean burua sartuta, ez azunen ura edanda, ez eta sube azala bakokian ipinita, ez moskor-moskor eginda, eta ez San Joan eguneko bedarrekaz egindako enplastoz burua berotuta.

Gero ta asarreago abadea. Lore ixil.

—Gauzak argi ta garbi ariñago erabagiko doguz eta esan, lotsa barik, lotsak galdu ziran-eta. Zenbat i:ebeteko zagoz?

—Ni?

—Bai. Zenbat illebeteko zaurgintzan?

—Bi.

—Ori. Bero ibili zan ondarrutarra, txalopea gertatera etorri eta neskei azpiak garbitzen. Berea ba da, jakiña.

—Berea ez izatekotan nundik jakin?

—Zuena da ortaz. Benetan? Zuena biona ta ez bestena?

—Ez naiz saltzen naizen neska galdua. Ori egia da. Ez naiz lorerik lore dabillen erlea be. Ori be egia da.

—Onetan, erleak barik, erlemandoak izango dira, ziurrago.

—Mesedez!

—Ba! Eta bera ezkongai da?

—Ez dakit.

—Obe. Asiera ona.

—Amak ba daki?

—Bereak?

—Zein dago beteta, bera ala zu?

—Ez daki, ez.

—Obeto oraindik.

—Ia ba.

—Betikoa. Ibili gabaz eta gero abadea bete kakaz. Ori. Ori egiten dozue. Eta gaiñetik txotxin batzuen bertsoak ekarri.

—Nik ez neukan orrelako asmorik ez gogorik.

Ez. Atzerik agertu ezik, beti birgin. Betikoa: aurrea dotore, garbi; atzea lizun, zikin.

—Oraingoan aurrea da ba pekataria, jauna.

—Esan bearrik ez. Ori da beste pekatu bat: gauzak aurrez egin eta geroari, atzeari laga garbi dedin.

Ixillunea.

Parrokoa batetik bestera urduri. Neska geldi, lotsor, baiña keixu.

—Zer da orain esan bear dozuna?

—Zelan jakin dau?

—Berak esanda.

—Antoni Mari'k?

—Dana dalakuak. Kontramaixu orrek.

—Berak benetan?

—Berak kapitanari, eta kapitanak niri.

—Kapitanari zegaitik?

—Kapitanak ezin artu leikelako iñor, dakiala, emen zerbait egin eta argitu edo erabagi bakorik. Itxas legea da ori.

—Ala joan ba litz?

—Zuen salakuntza bategaz kapitanak txalopatik atara eta legorrean laga bearke eban. Bear ba da sekula ez agertzekotan. Itxas ontziak, txalupak, ezin leikez izan legorreko egitada eta okerkeri zitelen eskutaleku.

Goazen. Billatu daigun konpoketa bat. Ori da oraingo nire ardura. Kapitanak bete-beteko konfiantza dauka nigaz. Nik, zeregin onetan, konponketa bat agintzen ba dausat, mutillak ez leuke kalterik.

—Zer izan leike ori?

—Ezkontzarako gertu zagoz?

—Ez dot pentsatu.

—Neska, eta ez ezkontzekotan aurgintzan jardun? Ba dakizu ze pekatu dan ori?

—Nire kontzientziko da aurgintzan ez nitzala jardun.

—Beraz, parkatu, baiña lengo berbekin esanda obeto, lau berba garratzekin esanda, putakeria.

—Ez orretan be.

—Egia, seigarrenekoa ikasten. Ori, ez? Gaurko gazteak ulertzeko gaitzak zarie.

—Gogo onez, ez.

—Eba'rik ezagutu zendun?

—Kreduz.

—To, to. Paradisutik kredorik ez eban urten, jakin? Eta Madalena?

—Ebangelioak dakarren emakumerik emakume tarikoena.

—Parkatu. Zure pentsakera aurrean daukat. Ez ukatu. Billatu daigun barrero konponketen bat. Benetan zagoz beteta?

—Ori ataraten atsegin?

—Ez nabil olgetan. Benetan be beteta zagoz?

—Ala da.

—Ezpai barik?

—Ibili zanak autortu ezkeru, nori joko dausat illeta?

—Zure egoera ez da ez olgeta.

—Ori neuri esan. Olgetak dakar beneta.

—Ezkontzara gertuko ziñake?

—Arta jorran asi baiño len, arto burua elduta.

...

...

Arrituta egoan On Paskal neskaren erantzunekin, eta berak artu eta erakusten eban arduragetasunagaz. Neskak argi erakusten eban esakera: Ostatuko neskea eta merkatarien eskea, bata eta bestea, aizeagaz puztutako odolestea.

Ezkonduko zan, premiña gertaten ba zan. Eta ez gogorik ez eukalako. Baiña norbere era eta aizetan. Norbere gurarietan. Azken gabeko Antoni Mariren jokarak zearo aldatu eban beregan arentzako eukan begirapena.

Amaitzeko, parrokoak esan eutsan:

—Dana dala, aletin egingo dot zerbait itxuratzen. Esanak esan. Baiña jakin nik dakidana eta orain sentiduten dodana, au dala:

Amari esateko, abadea.

Paperak eskatzeko, abadea.

Agiriak atarateko, abadea.

Kapitanari ziurtasun bat eskintzeko, abadea.

Eta kakaztuta geratzeko, abadea.

Ortik gañerakoa... ez da bere ardurea.

Pentsatuko dozu eta konturatuko zara ala dala, ez?

Ni neuk be bertsoak atara neikez, askori, gitxien uste danari, eta ez guzurrez.

Deituko dautsut.

Urrengo deituran, besterik esan ezik, amagaz etorri. Ia konpontzen dogun eta errurik ez daukan datorrenari legezko jatorri bat eskintzeko era billatzen dogun.

—Eskerrak.

Garbitasun billa.

Deba'tik Ondarroa'ra papertxo bat bialdu eben, soil-soil Antoni Mari'ren barri jakin nairik. Bere izate, guraso, ondasun eta jatortasuna eskatzen.

Albistea artu ta Ondarroa'ko parrokoa zurbil geratu zan eta lenengotatik pentsatu be bai: Antoni Mari orrek an be bere odola ez ete dau irakiten ibili?

Baiña zerbait erantzuteko, ekiana baiño geiago jakin narik, seroreari emon eutsan zeregin ori. Berak ez eban Toba'gaz itzik egin nai, len be naste eta berbalekutzat erabili ebalako.

Seroreari agindua, zur eta sentsunez, iñok igarri barik, aitzakiren bat artuta, alegin egiteko zerbait jakiten,

Serorea, beste barik, Toba'ren etxeko ate joten agertu zan.

—Ai ene bada ta! Ze barri?

—Abe Maria Purisima esaten be laga lenengoz.

—Nai dozuna. Ze barri?

—Eta erantzuten ikasi. Jakiña, zuk pekatu barik sortua ez dozu esan naiko ta nik erantzun be egin bear.

—Nai dana. Ze barri?

—Nik? Barriak zeureak. Ba dakit barri onean zagozana. Ez al da ala?

—Ainbestean zatozanean be... nai ta iñoren kolkoan sartu nai. Orren jakin miña dozu? Ortarako ezkondu zaite, ezkondu, eta ikasiko dozu zer dan andre kontua.

—Jesus, Maria ta Jose. Ori erantzun jatorra.

—Ori izaten da gure altxorra, eskutuan ezin euki ta agertu bear frutua.

—Ta... esan. Antoni Mari? Joan zan edo ez? Bai, ez?

—Dakizulako diñozu ori.

—Ondo zabiltz beragaz azpaldian?

—Berari itandu ori. Onezkero an ibiliko da a inditarren bat joteko gogoz.

—Jesus! Ori da esakera! Aitaren...

—Aitaren bai. Semiaren ez geitu. Aren semiak...

—Jaungoiko laztana. Ori da esakera?

—Esakera ta izakera be bai.

—Lotsatu bear.

—Ez al dakizu nungoa dan? Eta nungo urak daukazan? Abadeari itandu, eleizako liburu ta paperetan famili bat zelan geitzen dan.

—Ene, ene! Orixe da aoa betien bete erabiltea.

—Dana dala. Zer da zure barri?

—Nirea? Zarra barri.

—Azpaldi kendu nitun begiko makarrak, bai?, eta ez etorri nigana neskazarren irribarrekin.

—Beti oker pentsaten.

—Oker ez. Bikarioak bialdu zaitu?

—Bai.

—Ta?

—Ba... umeak ikusten.

—Aldian daroadanari begizkorik egiten ez etorri beintzat. Eta bestiena... ondo daki abadeak linbora bialdu zituna.

—Esperantza onean zagoz ortan?

—Bai, ta zer? Pekatu al da ori?

—Jesus! Senarra euki ta... Senarrarena ba da beintzat.

—Zeiñena izango da ba?

—Parkatu. Senarra Terranobatik da, ez?

—Nai daben tokitik a.

—Eta azkenengoz noiz egon zan etxean?

—Iru illabete.

Tu dudarik ba dozu, umea jaioten danean kontuak atara.

—Ez, esan nai neban...

—Lengo baten lengusu bat euki nebalako?

Esan abadeari, zu lako iñuzente batzuk etxean eukiarren, berak eukiarren, sekula ez dodala pentsatu nik bera akerra danik Eta askok ez besteko sinismena daukadala bere gizontasunean.

—Ez da ori...

—Ez dakit zer dan ba, ainbeste misterioz eta eskutukoz etorteko.

—Ez. Esan nai neban... Bai, jakin neban zure senarra erbestean ibili dala.

—Bai. Deba'n.

—Eta egunero etorten zan?

—Komeni zanetan. Eta berari eritxonetan.

—Eta agur egiten etorri zan?

—Denporaletan urten eban etxetik. Asarre bizi. Eta zer? Sekula iñor ez al da etxeetan musturrak luzatuta ikusi?

—Baiña bere barririk ez dakizu geiago.

—Ondo ibili ezik jakingo neban.

—Ondo ibili? Ondoegi bear ba da.

—Zuk ba dakizu zerbait.

—Ez.

—Ezer jakin ezik zu ez zatoz onera.

—Leike.

—Zeiñek bialdu zaitu, bikarioak?

—Bialdu... Etorteko esan.

—Sekula ez naz ibili erdika. Guazen, guazen orain-

txe bertan beregana, gizon baten aurrean agertzeko ba naz-eta.

—Abade baten aurrean.

—Nai dana. Abadeak zer dira ba, emakumeak?

—Esan nai neban...

—Gaberarte be ez dozu esango, esateko dozuna era onetan, eta beste barik guazen naizen moduan. Ez uste beti «amen» esango dautsadanik.

Izerdi likiñetan.

Izerdi likiñetan geratu zan bikarioa Toba eta bere serorea atean berbaroan igarri zitunean. Zer entzuteko, bataren gordintasuna eta besteren burubakotasuna eza-gututa?

Sartu eta korapilloa naastu baiño len jakin eraziten asi zan Deba'tik papertxu bat artu ebala. Ez eutsela gauza garbirik esaten. Izan eikeala ori baleetako kapi-tanak bere garbitasun eta kolkorako zerbait euki nairik izatea.

Toba'k erantzuten eutsan berak ez eukala minga-ñean puzpolorik, edozeiñen aurrean jarduteko be, gauzak aurrez obeto esaten dirala mandatari ez jakiñen bidez baiño.

Ori, ez jakiña esateak, ez eban abadea zuritu, asar-ratu baiño. Baiña Toba'k garbi esan eutsan ia serora arek nun ikasi ete eban ezer, ondo ekiala berak firmatzen be ez ekiala-ta.

Lengora joanda, abadeak baretu nai izan eban. Ezer jakiten ba eban, berak esango eutsala, jakin orduko, zer zan eta abar.

Gero, baretuta, barruko gauzatxoak agertu eutsazan Toba'k. Bere esanetan gizon potozorri bategaz ezkondu ezkeroz andreak eroan bear daben bizi bide edo bizi lege errukarria be agertu eutsan. Eta bikarioak, ten asko barik, bear ebana ta zerbait geiago jakin eban.

—Datorrenerako izenagaz be gogoratu bearco da ta ori, guk santuen barri ez dakigu ta...

—Noizko?

—Noizko? Arima pielen argitan jaio bearco dau, izurdea nai mielga izan, denporak orduan izango dira-ta.

—Santos, orretara?

—Santos? Auzokoak bizi guztian irrika ibilteko? Ez. Bizardun gizonen izena billatu niri, beata txotxiñen izenak barik.

—Dana dala. Denporak izango dira testigu. Ori ba litz burukomifnik andiena...!

Beste alderdian.

Ondarroa'ko albisteak ixilik eta ixileko lez artu ondoren, On Paskal'ek garbi agertu eutsazan Lore'ri pentsatu, jakin, igarri eta gertutakoak.

Berea bezin aundi da zure errua, Lore. Ulea erakusteko al da bakarrik kaskarra? Zein nor dan jakin

barik, zelan ainbestean ibili? Ezkondu batekin pekatu ekin dozu, esan eutsan. Ba dakizu pekatu ori baten ordeztatik dana?

Ez eban olakorik sinistu nai. Ezkondua? Eta sekula igarri ez? Inoiz berba batik ez ortaz?

—Nun eukan andreak ukondua?

—Ukondua nun ete eukan? Zure birtuteak toki berbera euki bear eban.

—Egia ala ba da, ba daukat damua. Baiña ziur egon atzipetua izan nitzala.

Abadeak, esan da esateko, geituten eutsan: Ez uste zurekin bakarrik tratua eukiko ebanik. Diñenez, eta au ixileko albistea da, ezkonda aurretik be euki eban beste andrazkon batekin bere kakua, nai ta gatza emon auzi orreri.

—Pentsatu bear neban, ez ba nitz fida, lenengoz izateko ondo ekiala zelan gida.

—Esakera ori dakiana ez da bera motela.

On Paskal eta amak ixilean jardun eben, tartetan, besteak buruz bera irauten eben artean.

—Gero zer gertatuko be, komeni zan izena zaintzea.

Gizona, ezkondua zala, ezin zeinkean umerik legez argitu. Legea eta eleiza gainean egongo ziran, eta zer esana eta nortasuna eta fama ona arriskuan.

Bizirik sortzen ba zan, gerorako katea. Illik ba etorran, kittu eta bakea.

Baiña gain gainez zaindu bear zana, etxe eta familiararen entzutea.

Ortarako, neska loditzen igarri orduko, aukerako baserri bat billatzea eta berbatzea komeni zan. Bakar-tadeko baten azken denporak bete ta erdibitu.

Erabagiko zan gero umea linbotik zelan aldendu. Neska amatu zanik ez jakitea be abadearen kontura geratuko zan, kontzientziren bat, on egitearren arduraz eta diruaren onuraz, arek baretu eikealako. Eta gero, mingain luzerik agertzen ba zan, sorginduta laga ingurukoen begirako.

Ori zan tratua.

Abadeak, indarra kentzeko, katea pixkat luzatzeko, kapitanari gaztigatu eutsan lenengo aukeran, berak esandakoan ez egoala gauza garbirik. Orretara mutillak jarraitu eikean bere zeregiñetan kapitanaren ostopo eta ezezpen barik. Gero gerokoak. Abadea ez zan osagille be, edo ta osasunean aitua, onetan zeaztasun bat agertzeko. Illebiko betetasuna orrelako egoera baten bertan bera galtzea be ez zan lenena izango.

Gero, gauzak euren eran ondo joanda, Jaungoiko mendiko baserri etxeren baten umea argitzen ba zan, andik seroraren batek eroan eikean parrokiaren batera, bataiatzera, norena zala ez ekiala, ta guzurrik barik. Billatuko eben ortarako ez ekianen bat, bataiatzera guzurpean ez eroateko be, eta umea linbotik atara eta kristiñau geratuko zan. Ezin eikean iñun be abaderik ume bat bataiatzera ukatu, nai eta arreta asko ipini. Izena egunak emongo eban eta abizenak, apelliduak, egokitasunak sortu.

Orrela, dan danak ondo joan da be, egitekoak eginda be, ostatua jator geratuko zan, entzuterik galdu barik, eta neskatilla buruko zapien ardura barik, beste batentzako duin.

Eta umea bizi ezkeru, baserri askotan bestien ondoan pozik artzen ekiezanak billatu eikezan, kozkondu arte eurakaitik eskutuko dirua artzekotan.

Len be, orrelako konponketak, ugari egiten ziran, nai eta gero, atzamar luzeakin izentatu bat zein eta nungo zan, eta semien semeentzako be bere deitura gelditu.

Toba'ren erabagia.

Ondarroa'ko parrokoak, besteren albisteak artu ala, igarri eban zer zan jokia eta bere lenengo pentsakera ziurtatuta edo atakotzat etsi eban.

Origaitik, burukomiñak kentzeko, ezkontzako paperak eta agiriak ondo ete egozan begira ibili zan, orrelako nastetan, utsune bategaitik, koroia be kenduko ete eutsen bildurrez.

Toba'ri deitu eutsan.

Onek, egunetan be, ez eutsan jaramonik egin. Kaleko andra batek berari ori egin bearra... Iño! Baiña barrero be deitu eutsan. Gordin itz egin be. Aretara beartzen eban Toba'k. Berak ez ebala nai iñor atzetik autuetan eta barriketetan entzuterik. Txirristadak munduan dirala, usterik gitxienetan egiten dirala; gizonkeriak be bai. Inpernuak beteta dagozala seigarren aginduaren ondorioz. Baiña zeruak be gaiñezka dirala andre on eta zintzoen birtutez.

Igarri eutsan laster Toba'k zer agertu nai eutsan. Erantzun be bai, bete-betean, siku, berak ez ebala nai Jaungoikuak bera zigortzerik iñozente erruz

Andik urten eta bere etxera joan barik, Antoni Mari'ren senideekana joan zan brixak urtenda, bereborean itsu eta gor, eta sartu orduko, eskutuko barik esan eutsen ekiana eta berak ez ebala nai inogaz autuetan sartu ez zela-alako konponketa edo ta estalgarri ariñen eta makurren azpian nastatu

Jakinda egongo ziran lez, edo igarrita eukiko eben lez, ume baten zai egoala, baiña bere gizon eta endakoen usaiñik be ez ebala gura, eta etorteko zanari odola berak emon bear ba eutsan be, eurentzako gordeko ebala eta jaio ta batera, egunean bertan, etorran lez, sabeletik urtenda lez, zil eta guzti, koipe ta guzti bialduko eutsela euren Antoni Mari'ren erregalu ori

Umea orrela lagata, Antoni Mari'gaz jakingo ebala zelan konpondu, narru lodia eukiarren etorteko adorerik eukiten ba eban, akerrari adarrak zelan erakutsi ba ekiala-ta Etxekoak ez-e, auzokoak be argi entzun eben ori.

Albiste illunak.

«Espiritu Santua eta Arimak» oraindik Terranoba aldetik ebillan, arrantzan.

Beste itxasontziak baiño beranduago joan zan ara. Beste urteren baten ez zan ausartuko ain berandu urte-ten. Baiña arrantzaldi askotan andik ibilitako agintariak eroiazala ta ori laguntza erdi zan txalopa batentzako. Eta jaubeak pozik laga eben errentan txalupea, eta errentan artu ebenak be itxaropen onez arriskatu ziran. Eta an jarraitzen eben, oraindik Urrilla'ren asieran.

Ordurako bidean etozan besteak, arrantza denporak amaitutzat emonda edo ta txalopak al eikeen bestean beteta.

Arrain urte zala ta pozik. Etozanak ba ekien an geratutakoen barri ekarten, an iñoiz alkarrekin gertaten ziralako. San Joan'en, edo Oporportu'n, edo Portu-txoan, edo Mikelen portu edo beste nunbaiten, premiñak betetera joanda, alkarregaz batzen ziralako. Urteen baten berreundak euskal itxasontzi be batu ziran leku areitan eta bost milla lagun inguru. Bizkaitarrak, gipuzkoarrak, laburditarrak... Orrela, ekarrezan barriak eta albisteak ez ziran beti ziur ziurrak izaten, ainbesteren artean egun bat edo bitan ezaupide andirik egin be ezin eikealako.

Oraingotan ba ekarren beintzat San Joan'dik adibide illun bat. Eta barri zeatzagoak kapitanak emotekotan be, laster zabaldu zan errian Bakio aldeko txalopaetan ibilitako batzuk bertsoetan aizetu eben zurrumurua.

Zotin eragin eban albiste orrek Ondarroa'n.

Toba'ri gaitz izan yakon sinistutea, eta ziurtasun beteagoak artu arte, ez eban ezer agertu. Edozetara be, bere kolkoan, gizon aren irudia gorrotatzen ebala igarten eban.

Deba'ko ostatuan be laster jakin eben zerbait. Geroko gertaerak jakinda min eta pena artuarren, Jainkoaren laguntza zala pentsatu eban ango etxeokandrea ostalariak. Alaba, ordurako, baserrian eskutatua zan eta amak ez eutsan jakin erazi.

Baiña bertsuak gero ta zabalago ebiltzen erriaren aotan, batez be itxasertzeko portu eta kaietan, arrantzale familien etxe eta kaleetan.

Terranoba'tik datoz gizonak
uste bagako barriaz,
Antoni Mari an illa dala
burua galduz larriaz.
Ara joan dan kontramaixurik
onentzat egon egiaz,
ostera askotan ikasitako
ardura ta jakitiaz,
gizon arteko tratua eta
sentimen bizi bizi.

Terranoba'ko itxas otzetan
balerik ba zan agertzen,
Antoni Mari ez zan izango
azkena bera ezautzen.
Arpointa sokak beti gertuta
unerik ez zan galduten,
txalopak, ere ur azalean
laster ziran jarraituten,
beraren gaitik irabazirik
sekula ez zan aulduten.

Antonio Mari'n gaitza izan da
odolan berotasuna,
andre ta nesken atsegiñetan
ekiteko gaitasuna,
baiña biotzik ezin erdituz
batu dau eritasuna
bajta galdu be igarri barik
len eukan gizontasuna,
gero kontzientzi arduraetan
makur bere osasuna.

Antoni Mari'k zer euki daben
azken osteran jakin ez,
bere aotik entzundakoaz
iñor be ez atsegiñez;

emazteandik etorteko zan
umeagaitik gaur miñez,
gero oster a beste norbaiten
kezka larri ta samiñez,
bata bestien albiste barik
itto egin zan zotiñez.

San Joan portuko kanposantuan
an dago bere gorpua,
arri otzean asieratik
betirako gelditua,
baleetako gogapenetan
eukiko dogu modua,
gizon arteko lizunkeriei
kendurik euren tratua,
arantza ontan ausarta zanai
gogoz joteko txalua.

Gure oroitzik ezin ukatu
iñolaz ere sekulan
gizon askoren maixu zanari
ur anditako eskolan,
bera lakorik ez zan aurkitzen
sartu ezkeroz txalupan,
premiñik ba zan lagun artean
beti lenena laguntzan,
aren izena gertatuko da
bale andien arrantzan.

Legor onetan iñor ba dago
ezautzen dunik balea,
konturatu lei Antoni Mari'k
eukala bere griñea;
bizi aldi an ezin soseguz
bits eta orru jotea,
gero minduta konturatzean
eder eskintzen iltzea,

bere saiñetik atarateko
probexuzko mesedea.

Ume gaixoak.

Goiz baten, Arno-ate inguruko baserritar batek, beste norbaitek emonak zirala-ta, intxaurrak eta esnea eroan eutsazan Deba'ko bikariori. Señalea zan, ezaugarri zan, Lore'k mutilla sortu ebala jakin erazteko, eta bizi zala. Mandatariak ez ekian ezer, eta iñoizko mesederen baten ordezkook izango ziranez eroan eutsazan.

Neska izan ba litz sagarrak eroango eutsazan. Eta illa jaio ba litz, esnerik ez.

Biamonean serorearen bitartez jakin eban Astigarrubi inguruko baserri baten jaio barri bat billatu ebela goizean atea zabaltzean. Sorginkerizko pekatu ori nok egin ete eikean gaiztetsiten ebillan serorea. Ez zan konturatu be etxe osteko ostatuan neskatilla falta zanik.

Len be ba egozan baserri aretan bost neska mutil, danak amar urtetik berakoak, eta azkenak ille bete baiño ez eukan. Iñungo aztarrenik ez eben atara eta Jaungoikuaren naien bat izango zala ta jaso eben. Andrea, errukiz, negarrez asi zan mutiltxoa besoetan artzean, eta amatasunez, bere alabatxoarentzat beteten yakon titia eskifii eutsan beste barik.

Egun batzutara Sasiola'n jakin eben aur orren barri. Diru poltsatxo bat laga eben an, kontzientziko karguz, umetxo a egoan baserrian emoteko-ta.

Praille anai bat, legu bat bialdu eben zeregin ori

betetera. Bataiatua ete egoan edo ez jakiteko agindu eutsen. Bera ez zan ausartu bataiatzen, nai eta etxeako pozik ikusiko ebela agertu. Berak jakin be ez ekiala zelan egiten zan, eta gitxiago orrelako ume bat bitarteko zala. Andik laster beste praille bat joan zan, zerbait jakin guraz, bataiatzeko arduraz baiño geiago. Eta etxe bataioa egingo eutsela agertu eban, orrelako ume batek parrokiaren baten agiriak egiteko burukomiñak ekarri eikezalako. Eta baserri aretan gizona, etxeako jauna, Antonio zalako eta emaztea Maria, Antoni Mari izen polita zala ta orixe deitzea erabagi eben. Gertaera bat? Sorginkeria? Bear ba da ao askotan ebiltzan bertsoak entzuna ete zan praillea? Dana dala, iñok ez eban orretan eskurik sartu.

Egun batzuk lentxuago Toba be erdibitu zan. Eta esanda eukan lez, jaio ta batera umetxoa, neskatxoa, garbitu be barik bialdu eutsen bere senarraren seniderik urrenari. Onetan gordin agertu zan, oraindik erioztaren barri, kapitana etorri arte, sinistu barik edo iruntsi nai ezik ebillan artean.

Atzera begira.

«Espiritu Santua eta Arimak» Bilbao inguruan sartu zanean, beriala jakin erazi eban kapitanak ainbat lasterren Ondarroa aldetik agertuko zala eta ez ibilteko alperrik iñora joaten, berari erriren batera urteten.

Urtubia kapitana zan.

Endaz etorran orretan, itxasoetako kapitan eta patroitzan.

Gurasoak be itxas zabaletan ibiliak ziran. Origaitik ixillean gordeten eban areikandik ikasitakoa, eta arriskuren baten aurkitu ezik, edo laguntza emon edo artu bearrean gertatu ezik, bakarrik ibili nai izaten eban bere eskola eta berezko jakituriaren araberan.

Berrogetamar urte eukazan eta gordin agertuten zan. Zaindu be bai orretarako.

Jatorra. Bere zeregiñean ixilla, baiña biotz onekoa. Tostartekoentzat, mariñeruentzat, tentea baiña zuzena, lerdena baiña entzun ariñekoa be bai.

Ea aldean eukan etxea. Ia'n.

Emaztea eta alaba bi eukazan. Ori zan bere miña. Mutil bat ez eukitea, bere jakituria eta teknika areri erakusteko, itxasoetan bere abizenak jarraitu egian be.

Bera ordurako, emengo bale arrantza galtzen asia zan. Milla eta bosteun urtetan sartu eta laster, euskaldunak irabazi andiak lortu zituen eurak Lur-barriak deitzen eutsen tokietatik, Canada aldeko Terranoba'tik.

Arako garra bizi sartu zan gure itxasertzean. Arrantzale eta merkatarien artean.

Laburditarrak lenago joan ziran emengoak baiño, emengo euskaldunak baiño, euren agintariak onean egozalako bestaldekoekin.

Aurrez, emengo erriak erdi asarre ibilten ziran alkarren artean bale arrantza zala-ta.

Bale banakak agertzen ziran eta alkarren onduan erri eta portu geiegi batu.

Emengo baleak, sardako baleak, euskaldunen baleak, txikiago ziran, ur andietan arrantzaten ziranak baiño, nai eta emengoak be galantak izan.

Bat ikusteko, bertsolari baten esanetatik aukeratuko dogu:

Amabi metro luze,
gerriya amar lodi,
buztan pala lau zabal,
albuetan pala bi,
españetan bizarrak
beste illera bi,
orraziak bezela
ain zeuzkan ederki.

Begi txikiyak eta
abo txit aundiya,
obeto esateko
ikarragarriya,
metro bi zabaltzen zan
au da bai egiya,
larru guziya goma,
ura animaliya!

Emengo baleak, ur andietakoen aiñako izan ez da be, neke geiago eskatzen eben, aletin biziago eta arrisku ugariago. Emengo ontziak, portu txikietako txalupa ariñak ziran. Biotzez gaindu bear, adorez eta indarrez, ontziak emoten ez eben laguntza.

Sei zortzi arrantzale ibiltzen ziran emen, lenengo denporetan, ontzi bakoitzean. Eta baleak, euren indarrez, arpoiz zauritu ondoren, tatarrez eroaten zituen ontzi orreik, makaldu arte. Gizonak ittotasuna igarten eben euren eztarrietan, balearen zartadaen baten tira bira eragin eta ondatuta geldituko ziran arriskuaren bildurrez.

Eta gero erriak zai egoten ziran, arrain bakoitzaren irabazietatik, bale baten onuretatik erriko lanak eta pre-

miñak bete al izateko. Eta Eleiza be zai egoten zan bere amarrenen legea eskatu eta artzeko.

Gain gaiñetik ikusi toki bat edo besteko oiturak, erri bat edo besteko legeak:

Gaminitz'en (Plentzi'n) dirutan artzen eban erri bakoitzak bertakoak ilten eben bale bakoitzaren tokamena.

Bermeo'n, bere uretan artzen zan bale bakoitzaren irutik bat eskatzen eben. Eta eleizarentzat mingain erdi.

Lekeitio'n, 1381 urtea orduko, erria eta eleiza baleen mingaiñen omuren eskale ikusten doguz. Zati bi erriak, mollak egiteko. Irugarren zatia eleizak, bere premiñetarako. Egia esateko, eleizak berak emoten eutsen arrantzalieri baletan erabilten ziran arpoientzako soka: ogeta-amar ariz egiñiko soka, irurogeta amar braza luzerakoa.

Ondarroa'n Lekeitio'ko legeak oituten ziran bien artean egiten ziran akorduetan.

Deba'n eta Motriku'n arimen alde eskintzen eben soldata bat. Eta bertako uretan ilten zan balearen diruagaz erriko begiralea, talaixearua, ordaindu bear izaten zan. Eta ilten ziran baleak, sarri gertaten zan lez, amata umea ba ziran, soldata bat eta erdi emon bear ziran arimen alde.

Getaria'n, an be mollak egiteko, bale bakoitzaren erdia laga bear zan. Eta mingaiña, beste tokietan lez, eleizarentzat, au da, abadientzat eta eleizako argitarako. Orrez gaiñera egoa be eskintzen eutsen an Salbatore eleizari.

Zarautz'en, Santa Clara izeneko monjaen konbentuko argizaria erri artako uretan ilten ziran balien diruz ordainduten zan.

Donosti'n be oitura bardintsuak. Geiago: getariarren lepoz, an artzen ziran baleetan ba euken eskubide bat, getariarren gogo txarrez, jakiña. Donostiarrak arei egiñiko mesederen baten ordezeko zan ori.

Eta errialde, erri eta eleizaren eskubideekin batera, erregeen eskubideak be zaindu bear.

Milla ta berreun garren urtean, Alfontso VIII'k eta Leonor bere emazteak mutrikuarrak artutako bale bat eskiñi eutsen Santiago izeneko Ordenari. Ez beingo. Urterorako nai izaten eben esandakoak eskintza bardiña.

Milla berreun eta ogeita amazapi garren urterako, Zarauz'ko eskubideak emotean, erri orreri bere eskubideak ezagutzen, erregeak eurentzat gordeten eben zarauztarrak arrantzatu eikien bale bakoitzaren zati bat.

Iru urte geroago, 1.240 urtean, getariarrei agintzen dautse urtean lenengo arrantzaten daben bale bakoitza erregeentzat gordeteko.

Euskal erriko toki askoren bizi izaten zan bale bakoitza. Olio eta aragiz, bizar eta azurrez, ainbat onura kentzen yakozan bakoitzari. Origaitik urtien urtetan, gizonak gogoratzen ez diranetatik asita, euskaldunak bale arrantza euken euren mesederik andientzat. Eta errietako ikurdiak, eskudoak eta zilluak arrokeri orregaz gertuten zituen. Ala, erririk geienetako eskuoak balea agertzen dabe. Eta etxe askoren zimenduak, bale azurrez naastuta billatzen dira, batez be ondar egalean edo ta ondartzza zabaletan jasotako bizi tokietan.

Kala barriak billatzen.

Inguru oneitako baleak urritu ala, erbesteko premiña agertu zan. Itxas ibillerak zabaldu eta luzatzen arriskatu bear. Ur andietan gero ta geiago sakontzen.

Eta sei gizoneko ontziak eta txalupak geiagontzeko egokitu eta anditzen. Sei-zortzi gizonen ordez, ogeirentzat. Ogeiren ordez, berrogeirentzat. Edo ta irurogetak lagunentzat.

Urrunera joateko, indarra bear; indarrak gizonak eskatu, gizonak tokia. Kosta erreko bale arrantzak, ez eban txalupetan toki askorik eskatzen. Lau erramulari trebe, bulartsu, bixkor, patroia eta arpolaria. Eta balea lotuta ekarten zan, txalupa egalean lotuta, portuan sartu eta bere zatitzea eta egokitzea an egiteko.

Urandietara joateko indarra geitu bear, ugaritu bear. Eta an, egunetan, illetan egindako arrantzen onurak ekarteko, tokiak bear txalupa barruan. Eta txalupen ala, indarra, neurria eta tokia anditu bear, gizonen mesedean eta arrain onuren eskabidez.

Gure itxasertzean, erri gaiñetako mendietan egoten ziran begiraleak, talaxeruak, edo ur ertzean tontorren baten egokitzen ziranak begizatzen eben balea. Orretarako egozan. Txalupei deitu ta aren zuzenbidez jokatu. Baleak, baleak!! Zorrotz entzuten zan dei ori erriko kale, kantoi eta egaletan. Baleak, baleak!!, kaltetik etxerako deiak iñor ez eban lagaten oiean. Eta txalupak alik ariñen urtetan eben, beste errien bateko uretara baleak iges baiño len. Gero, zorionik ba zan, egun berean amaitzen zan zeregin guztia.

Itxasoetan sakondu ala, gizonak be artarako gaiak eta duiñak billatu bear. Maixuak aukeratu, kapitanak

sortu... Ontzi erabiltzalle eta gidari azkar eta adoretuak bear, eta gizonen agintari eta erakusle jatorrak.

Lendik odolean orretarako gaitasuna eta zaletasuna egoalako, erreskadan datoz izenak, izen ospatsuak, ortarako gertuen artean. Lenengoetan Galizi aldeko uretara joatea be, urrun zan. Arako egin ziran urteerak. Andik be urten bear eta gizonak, bata bestearen leian, urrunago joaten ausartuten dira, kala barriak ezagutzen alegindu. Arraiña bere bizi lekuetan billatu nai, arraiñaren sorlekuetara jo nai, eta an be leku bata baiño bestea aukeragokoak igarri, onuratsuenak zearkatu, uraren bits eta aparretan arraiñen bideak usaitu...

Urtubia kapitanak, bere osteretan, Lorente santua-
ren izeneko itxas kolkora jo eban. Zenbat milla? Auskalo! Eta an itxas orratzeko koska batzuk gorago edo alborago, ba ekiazan nun egozan Zazpi Ugarteak, edo ta Mantane erribera, edo Uskimin portua.

Bera baiño lenago joanak ziran bere gurasoak. Bere aurretik. Origaitik bera ordurako ba zan Euskaldunen Ugartea izenez ezagutzen eben tokia. Ba ziran Bon Desir eta Trois Pistoles, bere ingurutan. Euskaldunak izena be kendu egin eutsen toki askori, lenago bertakoen ibilaldietan bertan euki zitun burrukaldi gogorren ondorenez, Gerrako Ugartea izenagaz ezagutzen ebenari lez.

Eta inguru areitan ezagutzen ziran Mingain ugartea, Balea Baia, eta beste ainbat

Urtubia kapitanak Uskimin ezagutu ebenetik (Lesquemín edo ta Les Escoumins be deitzen eutsen toki oneri) bertara joaten ekian, bertan, osterak askotan irabazi onak lortu eta egokitasun ugari euki zitulako, leorean egin bear izaten zituen gantzak koipetuteak, olioak garbitzeak, arraiña gazitzeak eta bizarrak azur eta mamin aldebanatzeak egiteko. Maite eban kapitan onek leku a.

Ingurutan ba zan, aletin egingo eban, bide geitxuagoz be, bertara joan eta an portu egiten.

Antoni Mari'ren, azkenak.

Urtubia kapitana, «Espiritu Santu eta Arimak» txalopeagaz Uskimin'era eldu zan. Beste osteretan baiño beranduago eta neketsuago. Bai eta amets gitxiagoz.

Baleetako osteren arrotasuna beratzen asia zan azken urteotan. Kate eta kaku asko bitartean.

Laterriak, estaduak, lagundu ordez, estutu egiten eben. Gero ta zerga eta eskabide geiago. Gatza bera be sei bidarrez karutu zan, zergak eta erri premiñak bitarteko ziran aitzakiz.

Len euskaldunak ia bakarrik ebiltzan tokietan, ingalanderak eta olandarrak gero ta sarriago ikusten ziran.

Len euskaldunen lagun ziran inguru oneitako gizonak, bertako eskimalak. Euren laguntzaz baliatzen ziran emengoak. Pozik lagundu, geratzen yakoezan irabazien ordez.

Nai izaten zituen angoak emengoen janari ta edariak be. Leku otzak ziran ta berogarriak bear.

Emengoak, legorrean, gizonen atsegiñak billatu nai izaten zituen, baiña eskimalak euren emazte eta alabak maite zituen eta garbi ikusi nai. Lotsa gorde ta eskatzen eutsen. Gorputzari, soiñari, arretaz begiratu. Eta batez be gizonak keixu eta zur egoten ziran emengoen indar eta berotasunak igarrita.

Ori zan andik arrantzan eragozpen barik ibilteko gorde bear zan premiñazko bat: Ango emakumiei begirapen eta lotsa euki ta gordetea. Batez be ezkonduiei.

Aurreko urtean Antoni Mari emendik ibili zan. Ba ekian zerbait. Ezagutu eban emakume ederren bat.

Ostera onetan be Urtubia'k Uskimin'era eroan eban itxasontzia. Komeni yakon koipe barrika asko, edariak, aparixuak eta ontziko tresnak legorrean lagatea, orrela ariñago arrantzan ibili al izateko, erosuago saiatzeko. Eta ango tokiekaz tratuan ebillan.

Lengo bideak ba ekiazan Antoni Mari'k be; ango zulo ta atxarteak ezagutzen zitun. Zelataka asi zan... ta berak lengo urtean atsegiñetan erabilitako neska bat aurkitu.

Loxintzetan asi zan, maitekerietan berotu nai, ta orrela ebillala, ara nun andre aren senarra agertu. Gizatalde aretako burutzakoa bera ain zuzen.

Bete-beteko naste, asarre eta gogorketak sortu ziran beriala. Antoni Mari'k iges egin bear, al eban eran eta eskutuan gorde. Txalopatik indarrez atara nai izan eben, bertan, danen aurrean, eskimalen legea berari ezarteko. Ez jakin ilteko be.

Len adiskide eta borondatetsu zan gizataldea, izkilluz eta amorruez urreratu zan ontzi egalera. Alegiñak egiñarren, Urtubia kapitanak ez eban lortuten gizatalde a baretzerik. Kaieko inguruetan be zabaldu ziran eskimalak Urtubiaren ontziari iges egiteko trabak eta eragozpenak ipinten.

Nekez lortu eban Urtubia'k arein buruak, nagusitzako egiten ebanak jaramon egitea. Eskarmentu gogor bat emon nai eben areik, ordukoen eta urrengoan ikasbide ta gogorapenetarako

Lotsari lez Antoni Mari'k parka eskatu bear izan eutsan, danen aurrean, euskaldunen eta angoen aurrean, bere senarrari. Eta txalopeari urte aretako baimena kendu eutsen an portu egin eta bere tresnak erabilteko.

Gogorra izan zan ori Urtubia'rentzat. Gogorra eta mingarri Antoni Mari berberarentzat.

Arrezkero, adorea eta bizitasuna galtzen asi zan; gizon artean agertu eta jarduteko koldartiago sentiduten zan; kapitanagaz berba egiteko, nortasuna galtzen. Egunetik egunera makaltzen etorran, beratzen, aulduten, jausten. Jateari be lagaten, kontzientziko buruausteak eta ardurak zitaldu eta txikitzen ebela.

Gau baten, San Joan inguruan ebiltzala, kapitana-ren gelara joan zan eta bere oe ingurura urreratu, kirioak etenda. Bere istori guztia kontatu eutsan, eta laster ilgo zala igarten ebalako, bere naiak erakutsi, bere borondatea jakin erazi, bere eskutukoak agertuz batera.

Bera kontramaixu izanda, marealdi aretan orrelako goraberetan naastu eragiteak, burua artu eragin eutsan. Odoletik etorkiola berak gaindu ezin eban gaixoa autor-tzen eban. Eta bere buruausteak uxatu ezifñez, gero ta jausiago, aste bat baiño len, txalupako ertz illun baten, ifnok ikusi ez egian, bere burua eskutaten asi zan bela artean, ilda billatu eben.

San Joan'dik laster ebiltzan eta ez eban nai izan kapitanak, itxastarren oiturea dan lez, bere gorpua ure-tara jaurti. Eta antxe, beste euskaldun askoren illobien inguruan, arlosa bat erosi eban beretzako. Kapitanak berak zuzendu zitun otoitzak, kristau arrenak, bere be-rotasunekin damututa, baiña gaindu ezifñez, ezagutu eban kontramaixu jatorraren gogoaren alde.

Ontziko gizon guztiak, ordurarte euren arduradun

keixu eta biozkor izan ebenari, maitekiro eta negarrez betiko agurra egin eutsen.

Gizonak errezago ezagutzen ditue, beti be, gizonkerien ondorengoak, eta andrak baiño biozkorrago eza-gutu eta autortu bakoitzaren argalkeria orretan.

Geroztik, San Joan aldera joan izan diran itxastarrak, euskaldunak izan edo ez, ango iltokian, illobi zarraren artean, Joannes Sara'ko, edo Ganix, edo Joannes Iriart, edo Joannes Suigarai baten illobien inguruan, izenik gabeko bat billatzen dabe, eta argalkeriak aztuta, bale denporetako itxas umant onein adore, kemen eta bizi eskintza goratuten dabez.

Deba aldean, asmo barriak.

Urtubia kapitana Deba'ra joan zan, Ondarroa'ra baiño len. Eskutukoa zetan ete zan jakin nai eta agindua beteteko asmotan.

Parrokoaren etxean batu zan.

Itxasoan lez legorrean be gauzak egoki ta iazan egin nai zitun Urtubia'k.

Antoni Mari'k agindu bat emon eutsan: Bere irabazietatik zati bat Lore'gandik eukiko eban umetxoari eskintzeko eta beste bat, bear zana, Itziar'ko Amaren argi ontzia biztuta eukiteko oliotarako.

Jakin nai izan zitun gorabera batzuk, urten da gero gertatuak. Ostaturkoen barri, umearnak...

Parrokoak esan eutsan, eskutuko gauza zala. Ixilleko kontu lez gorde ebela ostatukoak eta ba ekiala eurekandik kanpora iñok ez ekiala ezer. Etxean bertan ez ekiela zigur jaiotza ondorengorik. Ez ebela nai geiago gogoratu be. Lore bera bide barrietan sartua zala. Konbentu baten dei egin ebala, konbentu sarratu batera eskiñi zala eta, ordurarte beintzat, pozik egoala an eta bertako monjak zorutzen beragaz. Ez ebala nai iñor gogoratzerik. Ez ekiala Antoni Mari'ren barririk, baiña damututa zintzo bizi zalakuan sartu zala, gaztetasuneko arinkeriak urtiekaz aztutekoak diralakoz.

Amak, bear ba da, arretaz eta abegi onez ikusiko ebala, bere uste bagako gertaeran be beretik urten barik ondorenak sentzunez konpontzen alegindu zalako, baiña amak zerbait jakitekoz gaitz izango zala alabak ez jakiterik eta obe zala, ordukoz beintzat, txingarrari su emon barik bertan bera itzaldu edo amataten laga, indar bako auts biurtu arte, konbentuan baketan egoana kezka barrietan zurbildu barik.

Antoni Mari'k umearentzat bialdutako soldata zattia, berak Sasiola'ko praileren baten bitartez, ixilpearen ziurtasunez umea zindo alikatzen iñarduen baserriko familikoei bialduko eutsala.

Urtubia kapitanak eskabide bat egin eutsan parrokoari: Berak, bere etxean, alabak baiño ez eukazala ta baserri aretakoei min emon ezik, pozik artuko ebala mutil bat, biar edo etzi itxasoetan bere nortasuna lagateko eta gurasoakandik etorran izenari ospea luzatzen jarraitu nairik.

Berak ba ekiala baserri askotan onelako umeak azi eta ezitzeak etxerako laguntza emoten ebala, eta origaitik ba zan gertu egoala ixillean baserri aretakoei laguntzen jarraitzeko.

Berak Antoni Mari'ren biotza ondo ezagutu ebala, eta bere sasoiko zezen indar galdu eziña be ba ekiala zetatik etorkion.

Parrokoak ondo entzun, baiña erantzuten ez eban jakin, bear ba da luzera begira.

Eta barrero, emazteagaz batean, beste baten Deba'n alkar ikustekotan geratu ziran: Agurtzean be Antoni Mari'ren izenez eta oroiz mesede ori pozik egingo ebala barriztatu eban.

Toba'ren etxean.

Ondarroa'ra sartu orduko, Toba'ren etxera joan zan. Laster igarri eben inguruetan, zain egozalako, zein izan eikean, baiña errespetuzko gizona zanaren entzutea eukan kapitanak inguru guztian eta Antoni Mari'ren etxekoak be, zain egotea naiago izan eben, berak artu eikezan bideak ikusi eta ekarri eikezan aginduak beteten laga-ta.

Negarrez zabaldu eutsan atea Toba'k. Kirioak, nerbioak eragindako negarrez eta ittotasunez. Bizi askoko andrea zala, zoratuta lez.

Urtubia kapitanak nasai artu eban. Esan-alak esaten laga eutsan. Gordinkeri, zatarkeri eta nabarmenkeri ugari eroapenez entzun eta errukiz, mindutako andre baten nasaitu gurea eta premiña igarrita. Ixil, baretu ala konfiantza emoten aleginduz.

Toba'k, parkatuarren, ezin eikean aztu bere senarraren joku biderik, bera beteta laga ta beste batekin

olgetan eta atsegiñetan jokatzean. Ori arrantza tokietakorik ez ekiala.

Bere pekatua eta errua ezagutzera eldu zan.

Bera izan zala, ezkongai zala, zirikatu ebana be gogoratu eban, eta bete betean autortu. Bera izan zala, lenengo senarra il ondoren, lengo bidetara jo eragin eutsana be, sinistuta egoan. Baiña dana dala, edozetan be, bein ezkondu ezkeroz zintzotasun bat eskatzen eban.

Garbi agertu eutsan kapitanari zelako erabagia artu eban, ze girotan egoan senideekaz, eta umea, neskatxoa, zelan bialdu eutsen jaio ta bereala, eta gero noiz il zan. Antoni Maritarrekandik libre egoan.

Senarraren soldata ekarren Urtubia'k. Baiña berak, premiñan egonda be, ez eban aren dirurik artu. Ez eban nai beretik urten. Eta garbi agertu eutsan ba eukazala errondan ebiltzan gizonak eta gertatu eikeala irugarrenez ezkontzea, biziari, bere arrisku eta gertaeretan, bat gai zan artean, aurre egin bear yakolako.

Arrituta egoan Urtubia andre alargun aren pentsakera eta betetasunagaz. Gaitz egiten yakon bere zintzotasunean sinistutea be. Baiña Toba'k, birritan eta askotan jardetsiten eutsan, andrazkoak ez daukala zetan koldartuta geratu, eta bere bizimodua eratzeko eskubide osoa eukala, gizonen mende geratu barik.

Soldatea nori emon barriro aitatu eban.

Toba'k erantzun eutsan ez ebala orretaz geiago jardun nai. Ori bai, ez ebala ondo ikusiko senarraren etxeakoak artzerik be. Eta gertatu eikeala areik, eskifiñ ezkeroz, artzea, narru lodiko eta diru zaleak ziralako.

Gero kapitanari itandu eutsan, ba ete ekian ezer Deba aldean eukitako umearen barririk.

Urtubia'k ekiana agertu eutsan. Antoni Mari gan-

dik jakin ebana eta gero entzuna. Toba'k orduan, ume arek ez eukala errurik eta bere borondatea, biar edo etzi, iñoizko denporan errukarri ibili ez egian be, arentzat nunbaiten gordetea izango zala.

Kapitanak agindu eutsan ume arek, bera bizi zan artean, ez ebalala eukiko premiñarik, aleginduko zala berak ekian aiña erakusten, berak Antoni Mari'ren biotza ezagutu ebalako eta itxasoetan berari eskiñi eutsan zintzotasunari al eban bestean erantzun nai eutsalako.

—Eta kalean?

—Ni itxasontzietako kapitana naz, eta itxasontzietan daukat nire mundua. Andik kanpora ez daukat eskubiderik.

—Ni be etxeokandre naiz. Eta nire etxeari begiratu bear dauzat, bein etxekoratu ondoren agintzen dan zintzotasunez.

Eskua estutu eutsan kapitanak.

Toba'k, oraindik be tartetan malkoak kentzeko igortziten zitun begien bete beteko begirapenez, bere eskerre agertu eutsan.

—Zure senarra zanaren senideak agurtu gura neukez.

—Nik, ba-da ezpa-dan, otsoekandik urrunduta bizi nai dot, erantzun eutsan Toba'k, eta asieran ez eukan baretasun eta adiskidetasunez agur bero bat egin.

Azkenak emoten.

Urtubia'k sartu urten bat egin eban Antoni Mari'ren senitartean.

Naastuta, gogaituta, bete-beteta urten. Ez euren Antoni Mari'ren goratzeakaitik, besteen ezezpén eta oiñazpian ipinteko agerbide nabarmenakaitik baiño.

Toba'gaz lenengo egon zalako, asarre.

Kapitanak erantzun eutsen, berak ekarrena Tobarantzako zala, bere senarra izan zanaren aginduz. Eta eureka joan ba zan, abegi on bat erakutsi nairik zala eta bear ba da bestera jakingo ez zituezan azken goraberak gertatu ziran lez jakin erazitearren.

Itsu itsu ikusi zitun. Entzungor. Alaxe, destañez eta betozkoz agurtu ziran.

Andik bikarioaren etxera joan zan.

Onek be bekoki illunez artu eban. Otz. Besteekana baiño lenago beregana joan bear ebala agertuz, Iñok baiño obeto berak ekiala ango gorabera eta autuen barri. Toba, Antonimaritarrak eta beste guztiak be euren artean ze erabillen ez ekiala beste iñok berak aiña. Berak ba ekiala zein zan errudun eta nortzuk zintzo, itsukeri asko tartean egoala sinistuta be.

Kapitanak agertu eutsan bera ez zala erri kapitana, agintariekaz azaleko itxurak beteten ibilteko. Bera itxasontzi bateko kapitan zala; ontzi orretako gizonen arduradun zala, eta gizon orrein artu-emonak eukazala danen gain. Bere kontramaitxu baten eskabide bat beteten etorri zala. Berak, bear ba da, eskutuko asko besteak baiño ziurrago eta etorri obeagotik ekiazala. Eta askotan sua zaintzeko ez egoala zetan ausporik erabili.

Abadea ixildu zan. Urtubia'ren osotaunak makurtu.

Ba ekarren eleizarentzat Antoni Mari'k egindako

eskintza bat. Abadea ez eban atzeratu diruaren ugarrak.

Ba ekarren beste bat be: Toba'k eta Antonimaritarak nortasunez edo arrokeriz, destaiñez edo ta zer-esan eta autuakaitik laga ta berak beretzat nai ez eta Antoni Mari'ren azken pentsakerak eraginda, eta Toba berberaren borondatea igarri ondoren, une aretantxe artzen eban erabagia: Antoni Mari'ren gomutaz, bikarioari lagako eutsan arek mare orretan irabazitako soldatea, itxastarrak, portuz portu ibiltean, odolaren berotasun eta egarriz ekarri eikezan aitatasun bagako ume errubakoei laguntzeko.

Bikarioak pozik ikusi eban ori.

Itxasoan oiturazko eben lagunak, iñor ilten ba zan, soldata osoa emotea. Eta ala ekarri eban. Mare orretan, gorabera ta gertaera askogaitik oker ibili ba ziran be, arrantzaen onuraz lortu eben soldata ona zan.

Gero, oraindik, bere aldetik, diru mordotxo bat eskiñi eutsan bikarioari Antoni Mari'ren illetak ordaindu eta urtearen buruan mezak eskintzeko. Ori be atsegiñez artu eban abadeak.

Andik, eleiz ondoko korreta aldera urten eban, bertatik ibaia ikusi eta txalopei begirakada bat egitera. An egozan erriko zarrei poz emon nairik, pozezko bitsetan euki zitun ibiltoki orretan, batek itandu eta besteak erantzun, baletako euskaldunen ibillerei buruz. Eurak be semien semiei kontateko, gizonen txikikeriak eta argaltasunak ezagutu ta jakin eraziz, argi bidean gizonkiago jokatzeko.

Urtubia kapitanak erritik urten orduko, bikarioak, egun ber-bertan, il kanpaia jo eban, egun orretan ziurtzat emon eikealako Antoni Mari kontramaixu entzutsu eta ainbesten aotan erabilitakoaren eriotza.

Utsunak?

Liburu zaarrak zeenak jandako orriak daukez tartetan edo ta orri galduak. Urteetako utsunak, nai baiño geiagotan.

Alakoren baten gertatuko zan Antoni Mari'ren eriotzearen agiria idatzi bearra.

Bikarioak ardura ori gogan euki eta bete nai izango ebanik ez dogu ezpaian ipini nai.

Liburuetan billatzen ez danez, guk ipiniko dogu, sasoiko espirituaren araberan, bere eriotz agiria, bere antzekoen eriotzen neurri eta tankeretan egiña:

«Espiritu Santua eta Arimak» bale ontzia, Terranoba aldetik bere osterea eginda etorri danean, legorrera oiña luzatu orduko, Antoni Mari'ren eriotzaren barri ekarri dau kapitanak. Urrungaitzak eta odolaren berotasunak eragindako buru galtzetiko ondorenez il ei zan, gitxi gora-bera egun onetatik iru illabete.

Kontramaixu zeregiña eukan txalopan. Azken nairik ez eban laga, kapitanari berbaz esandako batzuk ezik. Aukera euki ebalako, uretara jaurti barik, San Joan erriko kanposantuan lurperatu eben, beste euskaldunen illobien inguruan. Eta izenik ipini ez, argiñik billatu ez zalako aukeran.

Eta beriala il kanpaia jo da dolu-miña agertzeko eta biaramonean illetak egin. Eleiztarrrak oartu daben lez, bere emazterik ez da illetetara etorri, senartzat ukatuta eukalako, bale-

tara joan aurretik neska gazte batekin maitekerietan ibilia zala ziur ekialako, ondorena bitarteko.

Irabazien zatia eleizari laga dauetsa Urtubia bere kapitanak, Toba emazteak artu nai ez eutsalako, eta bere senideak orren premiñarik ez daukelako. Irazabi zati ori itxastarren argalakerietatik sortu leikezan ume errubakoen aldeztorra egiteko laga da. Eleizaren oiturazkoak, urte-barrukoak, kapitanak berak ordaindu ditu, gixajoa premiñan egon leiken kezka.

Il zanean berrogei urte inguruko zan. Legezko seme bat euki eben ezkontzatik, baiña emazteak ez eutsan bere abizenik ipini, eta ori, «salvatis salvandis» argi ipini neban jaiotza orren agirian.

Ezkontzatik kanpoko seme bat daukana jakiña da, baiña ez nun bataiatu eben, ez eta bere abizenik ipini dauksen be, edo ta amarenekin agertzen dan. Iñoizko baten mingain labanak eta berba lapiko ariñak autu biderik euki ez dagien esaten dot au, len be orretan zer esan asko egon ziralako eta erreta nagolako.»

Urte batzuk geroago.

Urte batzuk geroago, lengo agurak gero ta zarrago, jausiago ta okerrago, gor eta zitalago ziran.

Eleizako korretan lau agureak, oraindik laurak bizi ziran, trapu zaarrak astintzen ebiltzan, batak esan

besteak biribildu, edo ta batek aitatu eta besteak ezetsi eta beratu.

Beti lez, beroen, Antoni. Toba'ri buruz esanalak esatien:

—Andre zar, alkaueta, alu ori!

—Gitxiago esanda, lengo baten lau illabeterako erbestera bialdu eben Txomin Iramategi'ko. Probintzira bialdu eben.

—Mingañean darabilt ba lau berbakoa, esan eta beste, merezi dau deitutea ta.

—Beste batzuk, ixillean, ez ete dira bera baiño zantarrago?

—Ixil, mesedez. Zelan esan leike ori eta areri erru bidea labandu, oraindik senarraren eriotzearen barri ondo jakin barik, bere umearen zilla osatu baiño len, kalera jaurti ebalak jakinda?

—Ori esana eukan aurrez. Erri guztiak ekian zer egingo eban.

—Esanda euki edo ez, umearen biziak ez al eban beste begirapen bat merezi?

Ezer ez, ori txarri galduak be ez dabe egiten, basamortuko pizirik gaiztoenak be ez.

—Ara Anton. Andrak be, alurik andienak izanda be, euren errazoa euki leikie. Gurea ba litz be esango neuke ta... zuen Antoni Mari lako idizkorik inguruetan ezagutu izan da?

—Eta bera?

—Parrokoari itandu.

—Abaderik ez daigun pekorotz artean sartu.

—Orrek zer esan leike, ba, beti bere baba zarrak jaten, egun erdian iñor ez ezagutzeko eran geratzen da ta?

—Ez zaitzala entzun... Danok be... Arek babak eta guk lapak... jatekoak ekarten ditu aukera gaitzak.

—Eta moskorrak, tontorrak.

—Nik dakidana da, orrek irugarrenez ezkontzeko milla kaku eta traba eta eragozpen ipini arren, ezkondu egin dala, abadea txarto lagata be.

—Zegaitik abadea orretan sartu? Batek ezkontzeko garra eta gogoia ba daukaz, zegaitik bere libertadea kendu? Libertaderik sekula ez litzake eten bear iñori be, lege barruan dagola edo dabillala.

—Eta umeak? Katakumeak lez karkabetan laga?

—Ez alkateak barrabillak bere tokian euki izan ba litu! Noiz eta nun entzun izanda gure legeetan orrelako zatarkeri eta nabarmenkeri bat zigor barik lagaten?

—Ixo! Guk be ez dagigun atzamarra besotzat artu. Eta zuk be ez egizu Antonimaritarrekin gertatua bizi-txako legetzat aitatu. Arei euretar baten umea etxera bialdu eutsela? Arrezkero nok entzun dau olakorik egin dabenik?

—Zeñek dauka zer esanik irugarren ezkontzaz? Alargun eta denporak egiña ez egoan ba?

—Nik itz egin neike ortaz. Senarra etenda laga dabelako orrek, sekula beste batek batu ez eban aiñako perleziagaz.

—Erropail berak be irurogetak urtegaz ezkontzeko ze pentsaten eban ba? Arrazako ollarrak be ez al dira agortzen?

—Niri diñostazu ori?, ordurarte ia jardunean sartu barik egoan Millan'ek. Niri, andrakontuetan, baketan laga, mesedez, nai izan ba neu nik be egin neikean beste askok egin dabena edo ta egin dozuena-ta.

—Eta oraingo umeak nun dira ba?

—Biziteko denporarik eta arnasarik emoten eutsen ala? Ekarri bai, antxoa txikiak lakuak. Eta biaramone-rako beste mundura bialdu ta libre geratu.

—Ori esatea, beste barik, asko esatea ez ete da gero?

—Orretan be andratasunik euki ete dau sekula? Andra txarri, zikin, alu...

—Familiako arra daukazu zuk. Bestela ez zenduke ain itsu jarraitu bear andra orren aurka...

Parrokkoa atean. Betiko antzera, arro, tente, betozko eta berekiko. Begi ondoak tximur, begirapen barik.

—Errosarioa errezaten asi zarie gaur be?

—Laugarren eskutukoan azpaldi geratu giñan, Diopil'ek, destaintsu eta zital. Eta ez erdi lotan be.

—Izurde zarrak ala gazteak izaten dira gosetiago?

—Zarrak gazte izanak dira, jauna.

Barriri alargun.

Irugarren ezkontzatik be azkatu zan Toba. Ez gizon eta ez ume geratu, irugarren ezkontza onetan lau urte alkartasun on baten, itxuraz beintzat, igaro ondoren.

Alkartasun ona?

—Esanak, autuak eta azpikeriak erri bat laidotu egiten dabe eta gizartea itsutu.

Erri txikiak txikitu egiten dira kalean eta itxas andietan anditu.

Kale ta kantoietan trabak eta ur zabaletan aizeak.

Sorgin eta mamu, akelarre eta leiza zuloak bal-tzitu egiten ditue gure erriak. Izotzez betetako itxas andiko kaietan, oorez, aintzaz eta esker onez goratu.

Orra, beste askoren bizitzetan gertatua, Toba ber-beragaz be. Zeiñek itz, alako bits.

Ezkontza bat, bi, iru... Ibili ete zan, bizimoduaren giroan, denporen errekaizetan, galdutako lotsen bildur eta keriza barik?

Iru ezkontzetan, bere etxerik ez eban laga. Eleiz azpiko karkabako keriza eta lizun artean, erriko agureak euki izan zitun beti, goiko korretako orman, bere ger-taeren testigu. Erriko zarrak, giro baten ordezkari zur eta kezkatu, eta ez beti beretzako bigun, maitekor eta begirale on.

Toba'k, beti, bere nortasuna, nai ta askotan ulert-gaitza, erakutsi.

«Ni pekataria».

Toba il zan.

Irugarren senarra galdu eta andik urte bira.

Bat batean il. Bere ametsetan iñarduala. Iñori, laguntasun orde, bere zartzaro eta gaixotasunean mesederik eskatzeko ardura eta premiña barik.

Orañarte ildakorik usteltzen laga ez dala ta aren gorpua be, nai ta senideak urreratu ez, beti egoten diran borondate oneko andrak garbitu, gertu, jaso eta eleizarako eratu eben.

Lenengo senarraren oiñekoak ez ziran bere illetetara agertu, bigarrenez ezkondu zalako.

Bigarren ezkontzakuak be ez eben ezer jakin nai izan, ez eukelako traturik ez eta artu emon txikienik be; laidoz bete zitulako; senarraren errukirik euki ez ebalako, eta aregandik jaio zan umetxoarentzako biotz onik eta maitetsurik erakutsi ez ebalako; eta, zegaitik ixildu eskutuko arra? Irugarrenez ezkondu zalako.

Irugarren ezkontzakuak be ez eutsen lagundu, euren odoleko senarra ilda gero, oraindik gizonak eza-gutu nairik ibili ete zan aitzaki eta susmoz. Egia esateko, odol orretatik geratzen zana be erdi illik egoan, larogetak urteko neskazar txotxindu eta sorgintsu bat zalako.

Lenengo, bigarren eta irugarren senarren adiskideak ez ziran joan beste familiei ederkatura egitearren. Lenengoak ba auken itxas lapurren bildurra be, nai eta zigur jakin ez bere lenengo senarraren ezezpena zegaitik izan zan. Baiña a aztu barik euken.

Ordurarte utsik egoan bere illobian sartu eben. Onetan eleizak itxurak beteten daki. Baina iñor ez zan bertara urreratzen lizun usai eta pekatu atsa artzen zala ta. Kandelak biztuten zitun seroreak be, alako destain berezi batez biztu ta mankala osta osta zabaltzen eban.

Parrokoa lotsatu zan pixkat, baiña ez zitun bere eleiztarrak origaitik txartetsi. Danekin ondo egotearren, ez ekian bere eritzirik agertzen, nai, ta beti betozkoz eta zorrotz, tente egoten ekian gizon lez agertu.

Luzaro egon zan bere illobia arri gaiñean ezelako izen eta agerpen barik, nai ta eleizako beste illobietan ainbat agerraldi erraz igarri ta ikusi.

Oiturea zan arimen egunerako, domu-santuetarako, illobietako izenak eta edergarriak garbitu eta egaletako lizunak kentzea. Orretan ebillan argiñak tarte baten, bere umore garratzari nasaitasuna emon nai izan eutsan.

Iñori ezer esan barik, «Ni pekataria» irarri eban ezelako agerkai eta esakera barik ikusi eban illobian, arlosa zabalean, izki eta ezaugarri baldarretan. Gero kurutze andi bat markatu eta beian, egaltxo baten, borondaterik onenagaz egiñiko izki dotoretan, «betiko bakea» geitu.

Batzuk destaintzat artu eben, argiñaren akulakerizat. Beste batzuk a baiño izen egokiakorik ez egoala arentzat eta euren barrurako ontzat artu eben. Egon ziran argiñaren egitada ori lotsagabekeri andi bat zala esan ebenak, ez illarentzat, aren gogo ta oroitzaientzat, erri guztiarentzat baiño. Danak lotsatsearren ipinia zala ta... Parrokoagindik urten ez ete eban be zirikatu eban norbaitek, baiña ori jakin orduko, beretzat danak bardin zirala ta berari baketan lagateko argi adierazi eban parrokoak. Beste batzuk... argiña bera ez ete zan azkenengoz Toba'ri errondan ibiltzen yakona. Ori aizetu ebenak irugarren senarraren odolsideak ziran, bear ba da Toba'rentzako euki eben oztasunarentzat aitzaki bat billatzeko asmotan.

Dana dala, denporen denporetan, «Ni pekataria» obiratuta, enterratuta, lurra emonda euki eben gure

eliza zarrean. Eta beragaz batean, itxas lapur, bale arrantzale eta itxastar odolaren garrei erantzuten jakin eban emakume baten gogo ta kondaira.

Illobi aretan, arrantzale errietako bizitza mingots, garratz, bortitz eta biurria, eriotzak etenda, bake lizun eta eri baten ametsetan gordeta egoan.

Geroago, «Ni pekataria» illobia, erri guztiaren illobi lez zaindu zan, bertan gogoratzen ziralako,

itxas lapurren eskutuak,
bale arrantzako ekiñaldi gurenak,
itxas ertzeko bizitza garratzaren ondorenak,
kresalak gazitutako andra-gizonen gurari ase eziñak.

Areik ondo bizo ba ziran...

Onelaxe dator errien kondaira, gure izatearen gatza, bitsa eta arnasa.

Gazteak bizi. Gordin edo garratz, zoro edo gartsu. Etorri ala. Gertatu ala. Ia bereztik datorren ondorenez. Toba izan edo Antoni Mari, bardin da. Beste edozein euren kideko. Izen bat edo beste, millaka eskutukoren ordeztu, erabili eta gogoratzen dira.

Zaarrak ikusi. Eta agertu, erabili, zabaldu ta biritu. Goratzen nai ezetsiten. Etxe barrutatik edo erriko kantoï eta inguru ezagunetatik. Anton deitu nai Millan; Batis'eri erantzun nai Diopil'eri. Bardin da. Gazteak erri diran lez, zaarrak be erri dira. Leenago eurak egin eta eratu eben kondaira ori. Igarten da. Orain goitik epaitu.

Eta abadeak, liburuetan, zelako giroa alako tajuz idatzi. Bardin da Mizkiri'ko Paulo lez edo Irusta abade lez agiriak izenpetu. Bardin da izenpetzea laga edo aztu yakoenen urratsak agertzea. Erri dira areik be.

Eta guk artu eta aztertu, biribildu eta gogoratu, gure semien semiak be, erri bizitzaren maitasunean, gure izatearen erakundearen jakin naian, gaurko ondo-renak zelako sustriak euki zituen jakin dagien, eta batez be, denporen denporetan etorriko diran aurrak, gure odola eroaten jarraituko dabenak, antxiñakoen bizikera eta egiteen giarra umetatik iruntsi dagien.

Ipuin batzuk onela amaitzen dira: Ala ba zan edo ez ba zan, sartu dedilla kalabazan.

Baiña kondaira, istoria, erriaren bularretik artu bear dan esnea da. Kondaira ez da ipuiña. Izatea baiño. Izate orren esnea, batzutan, titi gozotik artzen da. Beste askotan garraztutik. Beti ere esne orregaz loditzeko.

Origaitik, Toba eta Antoni Mari'k, beste edozeinek lez, gurari obeagoen billa naroe. Ni ta irakurle guztiok. Ortakoz gogoratu daigun; gure zarretatik ikasia au be: Arek ondo bizi ba ziran, gu obeto bizi gaitetzala.

ARIAREN MATAZA

| | Orria |
|---|-------|
| Erriko kaletan | 9 |
| Aguren inguruan | 10 |
| Azalak ezagutzen | 13 |
| «Kristo txikia» | 15 |
| «Padarra» | 18 |
| «Akerra» ren adarrak | 21 |
| Ezaupidea luzatzen | 23 |
| Kapa baltza | 27 |
| Bale arrantzaleak gogoan | 30 |
| Etenik ez | 34 |
| Aria luzatzen | 37 |
| Liburu zarrak ikusi ta irakurten | 39 |
| Askoren arteko agiri bat | 41 |
| Sakonduten | 42 |
| Besteen atzetik | 44 |
| Serora mistikak | 47 |
| Parrokoaren koplak | 50 |
| Karkaba aldetik | 53 |
| Itxas lapurrak | 56 |
| Lenengo senarra | 58 |

| | |
|---------------------------------|-----|
| Bizi legea? | 62 |
| Albiste illunak | 64 |
| Barru-barruko kezak | 66 |
| Illunaren giroan | 69 |
| Ur baltzetan | 72 |
| Sua biztuten | 75 |
| Gertatuaren laburpena | 78 |
| Azken gaba? | 81 |
| Agerpen sakona | 85 |
| Ordu luzeak | 90 |
| Toba'ri agurra | 92 |
| Bedeinkatzea | 94 |
| Ama alabak | 97 |
| Deia | 100 |
| Artzaiña eta ardi zarrak | 102 |
| Barruko arra billatzen | 106 |
| Garbitasun billa | 112 |
| Izerdi likiñetan | 116 |
| Beste alderdian | 117 |
| Toba'ren erabagia | 120 |
| Albiste illunak | 121 |
| Ume gaixoak | 125 |

| | Orria |
|---------------------------------|-------|
| Atzera begira | 126 |
| Kala barriak billatzen | 131 |
| Antoni Mari'ren azkenak | 133 |
| Deba aldean asmo barriak | 136 |
| Toba'ren etxean | 138 |
| Azkenak emoten | 140 |
| Utsunak beteten | 143 |
| Urte batzuk geroago | 144 |
| Barrero alargun | 147 |
| «Ni pekataria» | 148 |
| Areik ondo bizi ba ziran... .. | 151 |
| Ariaren mataza | 153 |

BALE DENBORAK izeneko au Agustin Zubikarai-k plazara dakarren leenengo nobela dogu. Orain arte landu dituen literatur saillen ganera datorren beste bat. Poesia, ipuiña, eta antzerkia izan dira geien landu izan dituen arloak. Eta kazetari legez idatzi dituan kronika ta erreportajeak berebizibiko balioa dauke.

«Erri euskeran ondoen idazten dauan idazlea dogu Zubikarai»: Justo Garate jakintsuak oraintsu emon dauan eritxia. Eta egia, benetan. Gazte gaztetarik EGUNA eta EUZKADI egunkarietan erakutsi eban maisutasuna barruan ekarren berezko doaiaren ezaugarri dira. Arrezkero ere AGUR-en egindako erri-monografiak, ZER aldizkarian zein DIARIO VASCO egunkarian egiten dituenak, eta amaikatxo aldizkaritan argitaratu dituen lanak, batu ezkerro, bere lan sakanatuaren balioa, neurri obean, erakutsi leikigue. Sari ugari jaso ditu ipuin, poesi, antzerki eta nobela lanekin. Bitxikeri ta dotoretasunaren billa ez dabil. Errez eta bizi idazten dau. Pasadizu eta jazoerak direan legez agertzen ditu: berba gitxigaz, esaldi laburrekin, adjetibo eta adizkera gitxigaz. Personaiak, giza jokerak, oiturak zein situazinoak beingo baten marrazten ditu. Euskera berebizikoaz, erri errikoaz baliatuz dsist-dsast pintatzen dakian artista dogu. Artista konkretua, azorin zalea, erritarra, errealista. Irakurleak beingo baten irakurriko dau nobela au: eragozpen barik eta errez errez.

zugaza argitaldaria